ZAMAONTZIA
IÑIGO ARANBARRI

Iñigo Aranbarri

Zamaontzia

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3,54 €.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2011 Iñigo Aranbarri
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2011ko ekaina
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

–1–

Gogoratzen, aita? Urri hondarretan geunden aitite Mateoren etxera aldatu ginenean. Euri egun batek are bustiago bati ematen zion aldi, eta niri, esan beharrik ez dizut, ez zitzaidan batere erraza egin bizimodu berrira moldatzea. Lehengo aldean, bidea nuen ikastetxera. Zeuk eraman behar izaten ninduzun lanerakoan Bilboraino goizero. Itzuli, metroan egiten nuen gehienetan, bakarrik ia beti. Eta lagunak galtzen hasi nintzen. Distantziak bere lana egin zuen, han geratzen ziren eskolak amaitu eta gero ere. Baina neureaz ez hitz egiten, arin ikasi nuen.

Ostirala behar zuen izan, hori badakit. Institututik bueltatu nintzenerako kargatua zenuen autoa. Hitzik gabe egin genuen bidekoa, haserre nindoan. Maleta eta poltsa gutxirekin igo genituen etxeko eskailerak, autoa estrata zarratzen oker utzia, argiak piztuta. Iluntze hartatik, atzerantz begira noala, autoko argi laranjak datozkit,

platanoen hostaje soiltzen hasian klik eta klik. Argi bustiak eta oinetakoen ibili presatua galipot harrotuan. Hodi hori malguek hartzen zuten espaloia, lurpean sartzeko gertu, elkarren ondoan taxuz pilatuta. Asteburu hasiera izanagatik, jende gutxi zebilen inguruetan. Bebarruko atea zabaldu orduko genuen zain Mateo Vallejo.

Poltsak armairu ondoan pilatu eta ohe gainera pijama soilik aterata, zurezko leiho zuria zabaldu nuen. Karranka zabaldu zen. Pestizida ukaldia. Nondik zetorren ez nekien burrunba apala. Eta gauaren aho zuloan, itsasoaren iluntasuna, bokalean hondo emandako zamaontzietako argiek mudatzen ez zutena.

Horra zer gelditu zaidan ordukoaz.

Eta zu Mateo Vallejorekin eztabaidan sukaldean. Heldu eta batera.

Horrela dut akorduan. Ezin dizut esan amaren falta sentitu nuen. Gertaeren garraioan, errazago gogoratzen dira irudiak sentipenak baino. Eta berregiten ahalegintzen ari naizen hau guztia ere, ez nuke esango hala ez nabilenik. Ez dakit ez ote den orduko hura, nolabaiteko behar honek hartaraturik, gerora neuk osatu eta edertua.

Oinetakoak askatu nituen.

– Akordatzen, Nerea? –galdetzen zidan.

Leiho orria zarratu eta ohe gainean etzan nintzen, eranzteko kemenik gabe. Galtzerdiak ere bai. Ahal beste luzatu nituen zangoak, belaunez belaun elkarren ondoan biak, elur berria bezain zuri oinak. Gela osoa hartzen ez zuen argia zen lanparak ematen zuena.

Izerdi usain hura, arropetan itsatsia.

– Akordatzen zara motor-txikian atera ginen aurreneko aldiaz?

Eta galdetu zidan aldiro baietz erantzun izan nion aitite Mateori. Baietz begiez, nola ez, baietz irribarre biluziz, ondo oroitu ere nola jaitsi ginen larunbat edo igande batean moilaraino, goiz beluan.

Artega joan nintzaion atzetik. Horma gainean zeuden kalatxoriek labarretara hartu zuten gu hurreratu orduko. Karrankapean genuen Urbano Peña zain.

Plastikozko zorro bat zuen petril hezearen gainean, haize berdeak bandera bat bezain erraz astinduagatik, zirkinik ere eragiten ez ziona benetan. Harri batek behar zuen barruan gutxienez.

Elkarren bila doazen esku bi. Atzean, zeru gris bat.

– Hona zer garen... –izan zen agurra.

Eta une hura berregiten dudan aldioro Urbano Peñaren esku handi haiek datozkit oraindino ere, arropa denda baten izena bistan zuen poltsa hura zabaltzen. Kutxa ilun bat zen, haria emanda tapa bereizten zitzaion ontzi nakaratua. Urre kolorekoa ertza bueltan.

Aspaldi zuten hitz egina, antza. Itxaroten eman zuten asteburu bat, eta hurrengoa, eta hurrengoa, eguraldia noiz aldatuko. Ez zen berehalakoan heldu ateri iratzarriko zen aurreneko asteburua, hala esan zion Urbano Peñak aitite Mateori. Bezperara arte ez zuen erabat hustu.

Gelditu egiten dut irudia orain, lagundu egiten dit bi gizonen artekoa hobeto ulertzen. Peñaren aldean txaparra da aitite Mateo. Hizketan ari dira, ezin diet dena harrapatu, ez dira berbak gaur arte heldu. Eguraldiaz esango nuke ibili zirela hasieran. Itsasora behatzen dute, buruaz egiten du Peñak moilatik kanpo, puntetara, kokotsa luzatuz baina eskuak poltsikotik atera gabe. Zentral termikoko tximiniak zolan. Grisa grisaren kontra, marra gorriz apaindutako hiru hodi erraldoi, porlan kolorekoak hirurak, ke puztua dariela. Gauetan argi gorriak pizten dizkiete hegazkinek jo ez ditzaten. Eta bola handien pi-

suaz makurrarazten dituzten argi-indar kableak alderik alde. Haizea dabil. Olatuen zurda zuriak datozkit begietara. Bekerekeak dirudite uretan bazkan, plastiko tarratak bestela.

Ohartuta dago Urbano Peña ere. Kezkak hartu du gizona. Txakurtxo bat da buruari eragiten dionean.

– Eta?

– Aterako gaituk –agindu dio Mateo Vallejok–, eraman beharrekoak ikaratzen ez badira bederen.

– Ez daukak Portsmoutheraino joan beharrik.

Nik badakit zer pasatu zitzaion burutik, norbaitekin bizi zarenean ikasi egiten da hori ere denboraren poderioz. Baina isilik geratu da aitite Mateo lagunari begira. Ez dago ondo, erasan dio ederto alabaren heriotzak.

Taberna giltzatuaren atarian daudenengana bildu da Urbano Peña. Berriketan aritu dira. Xira zuriz jantzitako jaseko gizon gazte bat nabarmentzen da besteen gainetik, espantuzko keinuak egiten ditu eskuez, itsaso aldera beti. Laubost lagunek inguratu dute, hala ikusten dugu petril ondotik Mateo Vallejok eta biok, elkarri berbarik egiteke. Atzerago dagoen multzotxoan berriz, neure adinekoak izango diren neska-mutil

birengana doazkit begiak. Domekako arropaz jantzi dituzte. Igeltsutan darama besoa mutikoak. Ondoan, bi besoak antxumatuta berotze aldera marruskaka ari da emakume bat. Gerora jakin dut ezagunak zenituela talde horretan.

Ohartu naizenerako, batekoak eta bestekoak kontatzen sumatu dut Mateo Vallejo.

– Jende gehiegi –esan dio Peñari hau itzuli orduko.

– Honaino etorrita ezin esango zieat ba lehorrean gelditzeko...

– Hi bahator?

Ezetz dio buruaz, ezetz alderik alde eragiten Urbano Peñak. Eta lagunari bizkarra emanda ekin dio Mateo Vallejok noraian amarratutako txikotetik tiraka motor-txikia apur bat hurreratzeari. Arrimatzeko egin die keinu Peñak taberna aurrean bildutakoei. Artean heze dauden harrizko mailetan behera jaisten hasi dira. Popagainean jesarrita ikusten dut aitonak nola laguntzen dien. Dardara egiten dute oinek karelean jauzi egin aurretik.

– Gehiegi gara? –galdetu dio emakume hotzakilak.

Inori motorrera jaistea ukatu gabe aukeratu dute bi emakumek eta gizon adineko batek moilan gelditzea.

– Urbanori lagunduko diogu –esan du andreetako batek.

Beldur hitza aipatu dute, itsasoaren zakarra, ontzi betea. Nahiago dutela lehorretik ikusi, ez dela ezer gertatzen, egoteko lasai beraiengatik, bertan itxarongo dietela.

Poltsa eskuan duela Urbano Peñak eskailerak motor-txikiraino jaitsi dituenean, gizonaren tristurak ez du non gorde. Maskotaren xerarekin laztandu du zorro plastikozkoa.

– Agur, Lu.

Esku biez oratu dio poltsari gizon xira-zuriak. Barrura begiratu du, keinu amultsua egin dio ostera moilara igotzen hasia den agureari. Besoa loka daraman mutikoak begiak xukatu ditu. Norbaitek bihotz berde bat marraztua dio igeltsuan. Letra zatarrez idatzitako izen are zatarrago bat. Berak bakarrik egingo du negar.

Baziren bi hilabete Lourdes Peña poto hartan sartua zutela, eta hirurogei egun asko da hildako bat egongelako apalean izateko. Larregi da eguneroko hautsa kentzen ari zatzaizkiola bizi-

tza oso bateko irudiek erasateko, eta malkoak ere agortu egiten dira.

– Erria txikota!

Hamahiru urte nituen eta inoiz ikusi gabea nintzen inoren hautsak haizeari ematen.

Mateo Vallejok soka bustia bildu eta enbarazu egiten duen jendea doi bat baztertuta motorra arrankatu duenean, «Portsmouthera» esan duela iruditu zait, ahopean. Baina inork entzun ez diolakoan nago. Eta bagoaz. Irudiak bizkortu egiten zaizkit hortik aurrera.

Eskuaz egin ziguten agur moilatik Peñak ez beste guztiek.

Luk jaiotzetik ekin zion oker. Zeukan burua izateko, ez zen etxe egokian sortu. Urbano Peñak semea gura zuen, zu bezalako mutiko bat, hala esan gabe hori esaten zion Mateo Vallejori gaia ateratzen zen aldiro.

– Hik bai.

– Ez diat ulertzen, Urbano.

– Zorte handia duala semearekin.

Horrela aritzen zen zugatik Urbano Peña. Eta orain, hitzok inoren ahotan datozkidalarik, ez dakizu zein arrotza egiten zaidan dena. Elkarrizketa hauek, bi gizon heldu ametsetako familiaz hizketan, inor zure miraz bizi izan dela gogora ekar-

tze hutsa. Zure inbidiatan bizi. Grazia egiten dit, baina zaila da gertatua gordetzea, hori da egia. Luren ostean beste haur bat jaio zitzaien, zu baino gazteagoa den hori, nola du izena? Eta beste bat handik urte batzuetara, Urbano Peñaren azken esperantza. Neskatoak hirurak.

– Andreek halako lanak hartzen ditiztek.

Neuk entzuna. Garondoan gogortuta geratzen zaizkizun berba horietakoak dira.

Kolpeka egin zuen motor-txikiak aurrera, uhin gainzurituek mendebaldetik jotzen zutela. Moila utzi orduko hasi ziren oihuak, balantzagatik adina karelean barrura sartzen hasi ziren zipriztinengatik. Animalia ahulak gara zinez: barnean ez dugun babesaren bila biltzen gara arerio artera. Xira zuriko gizonak zirtoaldi merkez lasaitu nahi izan zuen giroa. Berehala hartu nuen begitan. Lu etortzen zitzaidan behin eta berriz, lerdo hura gidari aireportura laguntzen azken hegaldia hartzeko. Ikusten ez nuen ahots mehe batek ea merezi zuen hainbeste urruntzea galdetu zuen, zergatik ez genuen han bertan botatzen. Mateo Vallejok ez entzunarena egin zuen, puntetatik urrun geunden artean.

«Nerea, etorriko zara egunen batean nirekin?».

Eguzkiak beltzarandutako azala zuen Luk, milaka orin txikiz josia. Ikusi egiten dut oraindinoko. Gozo hartzen ninduen ikusi aldiro, zure alaba nintzen.

Afrikan hil zen, Malin, Mauritanian, egun ere zehazten asmatzen ez dudan mapako puntu gorri batean, lanean eszedentzia hartu eta eskola bat eraikitzen laguntzen ari zela. Inor gutxiko parajean zebiltzan autoa pendizean behera amildu zenean. Hori zabaldu zen orduan behintzat. Bi egun egin zituztela burdina artean, ahuntzekin zebilen haur batek aurkitu zituen arte.

Goizeko seietan iratzarri zuten Urbano Peña. Atertzen ez zuen telefono hotsa ilunpetan. Ahots arrotza zen.

– Nola esango niake, ahoan legarra balu bezala sentitu nian.

Ez da egia gizonek ez dakizuela zer gertatzen zaizuen azaltzen. Urbano Peñak hartxintxar xehatua barrundatu zuen alabaren heriotzaren berri eman zion ahotsean, hala aitortu zion aitite Mateori.

Xira zurikoak errautsen ontzia ondo zihoala erantzun zion, ea brankan zer moduz galdetu zuen. Joateko atzera agindu zion emaztea izan behar zuen emakumeari. Zarata egin zion aitite

Mateok, egoteko geldi. Ahaleginak egin arren, ez nuen ontzian gindoazenen arteko loturarik egiterik izan. Nor zen norena, nor familiakoa eta nor laguna, ez nuen lehorreratu ostean ere argitu. Egia esan, horrekin zer.

Kanpoko moilatik hurre, ontzia bilin-balaunka hasi zen. Errotek errukirik gabe ebakitzen zuten haize mina zebilen. Hots hura. Orduan erabaki zuen Mateo Vallejok motorrari abantea kendu eta mendebalerantz, haize-ezkutuaren bila jotzea. Ez ginela iritsiko bestela. Lehorrera begira, Mateo Vallejoren etxearen bila aritu nintzen, ostendu aurretik ezagutu nuen nire leihoa. Garabitik hasi eta muturreraino, zazpi kanabera zenbatu nituen moilan.

Xira zurikoa ez zen isiltzen. Lu etorri zitzaidan atzera, zergatik utzi genuen kaiku haren eskuetan zarataka, ateratzeko pototik atoan, uzteko behingoz bokaleko urak irents dezan, nola egin duen aita Urbanok hori, nahiago duela itorik haren magalean baino.

Motorra trabes jarri zenean egin zien keinu Mateo Vallejok. Luren ahizpetako batek orri urdinxka batean idatzitakoak irakurri zituen. Amaitu bezain laster libratu zuen ertz urrekarako estalkia xiradunak. Ahoz behera jarri zuen ontzia.

Hautsak zabaldu zirenean ez zen okerrik gertatu, ez zuen haizea bat-batean aldatu, ez zen inoren zabarkeriaz hildakoa jendearen gainera etorri, film hartan bezala. Umorerik gabe, partikula ezin xeheagoetan alde egin zuen gure ingurutik Luk. Milaka pinporta afrikar eltxoak bezala hegan. Edozein bide bazterretako hondarra, handik segundo batzuetara gurpilez gora geldituko den noranahiko batek harrotua, Luren begiek ikusi zuten azken irudia, hain antzekoa dena.

Kostatu egiten zait haren guztiaren benetako pisua neurtzea orain. Ez naiz gauza neuk zer sentitu nuen eta gerora entzundakoen artean bereizteko. Dena da halako anabasa bat, gerora, okerrak oker, nola edo hala ordenatu behar izan dudana. «Heriotzaren polena bazina bezala joan zara», apuntatu nuen koadernoan etxera heldu ginenean.

Txirriporroa zer nintzen ba.

Eta hala jarraitu nuen, herriko bandan jarri ginenean ere, hauts ilunei begirik kendu gabe, ordurako ezer bereizteko gauza ez nintzen arren. Lepoa atzerantz bihurtuta, zakar bakoitzari segi nahi izan nion. Pertsona batez gogoratzeko gai garena haizearen gurarira batera eta bestera, urrun, gero eta urrunago Mateo Vallejoren

motor-txikiak uretan utzitako zauri zuriaren, uhara isilaren gainetik. Urrutiko bidean orduan ere Lu, zakar txiki eginda Abran hondoa emandako zamaontzi zahar baterantz, atomo ikusezin bihurtuta Lu ontzi fantasma zirudienaren kubierta herdoilduan pausatzen, auskalo norako bidean beti Lu.

Bai, asmatu duzu. Serenity Star zen zamaontzi hura.

Eguraldia garbitzen ari zuen. Eta ontziaren silueta atzean, laino artean gero eta argiago, Portsmouth ikusten zen.

–2–

Puzzlea da iragana, aita. Irudiz, itzalez, lausoz, argi-hariz, ñabarduraz osatu beharreko estanpa, ertzik ere ez duena, hurrean.

Bada zer edo zer hamabost urte esan behar dizkizudanak esateko, hamabost dira-eta, ezta? Hamabost urtean ezabatu egiten dira mugetatik asko mapa mundietan, eta beste batzuk marrazten lehen kolore bakarra zegoen tokian. Hamabost urtean milioika lagun hiltzen da, nor bere sekretuekin; eta beste horrenbeste eta bat gehiago sortzen, nor bere negarrarekin. Hamabost urtean piztu egiten da lehen jota zegoena, eta erabat amatatzen alaiena. Hamabost urte bizitza erdi da mapa horretako orban askotan. Eta bizirik bagaude, hamabost urtean ganbarak nahi baino lan gehiago egiten du. Ez da beren-beregi egiten dugun ezer, hamabost urteren buruan gauzak ez ditugula gertatu ziren bezala gogoratzen, horixe da dena.

Zer gertatu zen zehazten, ez dakit asmatuko dudan, baina etxe hartara heldu eta batera hasi zitzaizkigun bideak okertzen. Esate bat da. Zu-

reak kalerakoa hartu zuen, administrazioan gora egingo zenuelako txakur-ametsak lotu zintuen, nik inoiz uste ez bezala. Ez dago hor tatxarik, lagunak deitu zintuen, aukera sortu zitzaizun, nahikoa da. Orain kargu honetatik hartara eta bulego batetik bestera aldatuta ere, zeure ogibidea hori dela aitortzen ikasi duzu. Ez dizut horregatik agiraka egingo, zaude lasai. Bakoitzak dituen lagunak ditu.

Arazoa beste non edo non zegoen. Ez zenuen ondo neurtu atzean zer geratzen ari zen, zein zen lurralde abandonatuetan zure lana lagatzen ari zen hondamendia. Nire bideak, berriz, zurearen moldea zirudien. Bata ahurra bazen, bestea ganbila. Zenbat eta kanpoan gehiago zu, orduan eta bilduago ni. Nahi gabe beharbada, baina institutuan nituen harremanak galtzera behartu ninduzun neurrian ekin nion neure artean gero eta barrurago gordetzeari. Hasieran zuk botatakoei ez erantzuten hasi nintzen. Ikasi egiten da horretan ere, eta ez da erraza. Ez duzu sinetsiko, baina behin baino sarriago izan nuen esan nahi nizkizun hitz haiek neure ahoan sentitu beharra. Harritu ere egiten ninduzun, bazenekien tarteka berago, samurrago, gertuagoko agertzen, eta zer egin ez nekiela egoten nintzen orduan. Osko-

la egin beharra nuen, ordea. Zor nion horrenbeste neure buruari.

Badakizu zer gertatzen zaien animaliei: itsuak direnek dute entzumenik onena, belarririk gabekoek sudur-mintzik zoliena. Halako zerbait gertatu zitzaidan niri ere Mateo Vallejoren etxean bizi izan ginen sasoi hartan. Saguzarra nintzen, Hegoafrikako errinozero zuria. Zurekin hitz egiteari utzi nion neurrian zorroztu zitzaizkidan beste zentzumenak. Horregatik hasi nintzen seguru asko oharrak hartzen koadernoetan, marrazkiak egiten. Idaztea kaosa gelditzea da, erdizka ageri dena osatzea. Idazteko lana hartzen dugulako ulertzen dugu gauza asko. Eta horrek larria du ordaina: mundua zabalagoa egiten da, arinago heltzen da nerabea.

Esan beharra dizut. Badakizu noiz hasi ginen elkarrengandik banatzen? Luren errautsak botatzera joan ginen egun hartan bertan. Ez, ez hartu gaizki, ez oker ulertu. Ez naiz ni Urbano Peñaren tokian jarri eta kargu-hartzen hasiko zergatik ez zinen agurrera agertu. Badakit espero zintuela, ez zuela ahaztua Lu eta biok lagunak izan zinetela bere garaian, politikak, bizitzak edo dena delakoak elkarrengandik urrundu zintuzten arte. Ez ahaztu: zu izan zara berak nahiko zukeen eta

egundo izan ez zuen semea. Berarekin zuritu beharrekoak zenituen horiek, ez nirekin. Orain berandu duzu horretarako ere, Urbano Peña bera joana da. Egoitza batean eman zituen azken lau urteak, eguteran eguzki-antza zenean, egongelako telebista aurrean osterantzean, burua non zuen ez zekiela. Arinago ibilita ere, ez zintuen ezagutuko seguruenik.

Serenity Star ikusi nuen aurreneko aldian esango nuke hasi zela gu bion arteko hondabidea. Oraindino ere bizi-bizi datozkit Luren hautsak itsasoan galtzen. Bai, zamaontzi hartan dago denaren hasiera.

Begira, gelan gogaitu egiten ninduten umekeriek. Beti zegoen nor edo nor oporretako argazkiekin joaten zena, eta hauetan orka, izurde, edo balea baten ondoan edo haiei laztanka ageri zena, berdin Tenerifen, Algarven zein Patagonian, benetakoak zein gezurretakoak. Ez dakit zu, baina ni, egon gabea nintzen ordura arte hain hurre, neurri horretako barku handi batetik esan nahi dut. Ez geunden bertan, ez ginen hura ukitzeko moduan egotera iritsi, ezta hurrik eman ere, baina zirrara eragin zidan balea ugertu hark. Ez da gauza bera, ordea, etxetik Abran daudela begira egotea eta uretatik bertatik ikustea.

Gauza bera ez den bezala gurea, alegia, zerbait bertatik bertara bizitzea edo norbaitek kontatuta izatea. Hala diotsot Sarari ere gehiegi sartzen denean ordukoan.

Eta orain, bizitakoak berriro bizi nahian nabilen honetan, ez naizela betean asmatzen ari aitortu behar dizut. Esandakoak ostera ere pasatzen nabilen honetan gogor egiten diot neure buruari, zorrotzagoa izan behar dut. Serenity Starrek ez ninduen tamainagatik harritu. Zer egoeratan zegoen, hori egin zitzaidan izugarri.

Amaren debekuagatik edo Mateo Vallejoren beldurragatik, aurreneko aldia zen itsasora ateratzen nintzela. Barkuak barku ziren ordura arte, hamahiru urte dituzunean zer dira ba, dekoratu eder bateko ezinbesteko figurak baino. Egun hartan, ordea, apaindura guztiak jausi zitzaizkion itsasoaren oihalari. Hura ez zen ontzi bat. Luren errautsen bidean ageri zitzaigun zamaontzi hura burdinazko balea bat zen, ugerrak osoro janda zuen metalezko krasko bat, kareletik beherako erdoka gaitz haiekin, uraren azalean nola ez dakidala ozta eusten ziona.

Mateo Vallejoren motor-txikian ez dakit nor gehiago ohartu zen esaten ari natzaizunaz. Baliteke neure burutazioak baino ez izatea hauek

guztiak, pintura urdin hura garbiago agertzea orbaineraino soldatutako xafletan. Ez zen seguru asko hainbesterakoa izango, baina goiz hartan Serenity Starren siluetari Moby Dick akitu batena iritzi nion, hura zen ninietan sartu zitzaidana, hor geratzeko, begien hondoan gaur arte, haur jolastien oinetakoa porlan zabaldu berrian bezalaxe.

Eta hats hura. Lagunen argazkietako orka, izurde zein balea haiek ez bezala, usaina baitzuen Serenity Starrek. Inoiz aditu gabeko hats mingotsa, intsektizida fabrikakoarekin eta kresalarenarekin nahasten zen herdoil sunda bustia, surziloetan barrena eztarrian behera hazi eta biriketan lehertuta, arnasa ere erretzen zizuna.

Orduko koadernoak hartu eta hasierako orriak zabaldu ditudalarik, neu ere sor eta lor utzi nauten marrazkiak agertu zaizkit. Serenity Star da, xehe-xehe ekarria orri horixketara. Popaz, alboz, branka muturra, kubierta zabala, masta, aginte-zubia letra handi haiekin: «NO SMOKING». Jakin-minez pasa ditut hurrengo orriak. Zerrenda bat ezkerrean, herrialdeena. Zerrenda bat eskuinean, hiriburuena. Eta ondoan, usain bat bakoitzaren atzean.

Harritzekoa da nola dabilen burua hamahiru urterekin.

–3–

Ordukoa dut konparazioak egitea, berbakera handigura hau. Denbora napalma da. Eta begiak osorik hartzen ez duen orube zabala gure bizitza, euri erreak hemen bai, han ez, nahi bezalaxe kiskaliko duena. Orbanak betirako geratuko dira txintxorrezko zoru gainean, baina hondakinak garbituta, belztu gabeko lurra agertuko da tarteka. Aztarrika, hala datozkit Mateo Vallejorenean emandako hilabete haiek orain. Gertaera batek besteari dei eginda, eskonbro kentzen aritu naiz, ez nekerik gabe. Bazter batean pilatu ditut adreilu hautsiak. Zertarako hartzen ditudan halako lanak galdetu dit Sarak, ea merezi duen orain hamabost urteko kontuak berregitea, gertatua ez dela itzuliko, ez dagoela ordukoa beste bide batetik eramaterik. Zergatik jakin nahi du. Zergatik. «Harrotu egiten naizelako» erantzun behar niokeen, zabaldu egiten zaidalako paparra iragana berregiteko gai naizela ikusita. Baina irribarre egin eta musu eman diot. Begiak zarratzen ditu beti, maite dut nola egiten duen.

Zeuk ere gogoan ez dituzun gomuten jabe egin naiz. Berbarako, akorduan duzu nola joan ginen aterpe eske aitite Mateorenera? Ni bai, nola ez naiz akordatuko zurekin eraman baininduzun. Hori ere egin zenuen, hamahiru urteko alaba erabili zure ezinen abalista.

Esango dizut, xehe-xehe: itzalak bildu zuen Mateo Vallejo bebarruan sartu orduko. Astiroago zeraman aspaldian urratsak, baina behartu gabe paratzen zuen artean oina zurezko maila higatuan. Ez zion atetak, baina, uda betean eskaini ohi zion freskurarik ekarri, beroena ere joan ohi da-eta irail hondarrerako hemen. «Bazekarrek, bazuan garaia», gorde zuen bere artean. Mendebala lohi zetorren hodei ilunez, «laster duk euria teilatu gainetan, haizean dik ezagun». Buruek kukuka erreparatuko zuten leihoetara aterata auzoko etxeetan. Eta ohartzerako lanpar-orratzak hodeietan behera, lanpar-orratzak portuko ura zulatzen, lanpar-orratzak potin eta motortxiki guztien gainean jo eta jauzika. Baten batzuk artean itsasotik moilara heldu gabe harrapatuko zituen udazkeneko oste-zaparradak.

Mateo Vallejo etxean zen, deiadarrak entzungo zituen handik gutxira, auzoak auzoari abisua, batzeko agudo esekitakoa, hasi duela. Eta xirak

arrapataka zabalduko ziren praken, alkandoren, blusen, pijamen, barruko arropa guztien gainean. Presaren presaz beti eroriko zen galtzerdiren bat patiora, edo kalera, balkoipean aparkatutako autoren baten kapotera. Edo hildako hormatxori bat bezala geldituko zen potxingo beltz baten erdian. Hala izaten zen beti, hala izango zen hamar, hamabost, hogei minutu barru.

Beste mundu bat zen. Eta beste mundu hartan, euria ere bestela egiten zuen.

Eskertuko zuen busti usainaren gozoa, horrela erantzuten zuen Mateo Vallejok edonork galdetuz gero. Garaian garaikoak behar duela. Orain inork hitz egiten ez duen bezala esaten zituen gauzak. Etengailuari eman zion. Garbitu egingo zuen airea arratsaldeko zaparrada hark, oilaritera arte eramango zuen tarrasean sufre keru zakarra, itsasadar barrenetik azken aldian ostera hazita zetorren intsektizida keru hura. Argia pizten ahalegindu zen berriro. Gora eman zion, behera. Temaz eragin zion giltzari Mateo Vallejok. Kakatzarra. «Kontakturen bat dik», ipini eta batera eteten zitzaion, antza, bonbillari haria. Lehenbailehen deitu behar ziola argizaleari agindu zion bere buruari, ez zuela goitik beherakoan zangotrabatu eta kaskezurra hautsi nahi.

Eskailerak zuen harrizko maila bakarra jaitsi eta bodegako atean sartu zuen giltza. Zoko-usainak jo zuen. Itzal ezagunak zituen zain ilunpean. Ahula zen argia, baina nahikoa izango zuen. Gainera, nora zihoan ba saskiarekin. Arkoiaren ondoan utzi eta zabalik laga zuen atea. Euliek lorrindutako bonbillak ematen zion argitasun horrexetan egin beharko zuen gora, eskailbururaino. Zarratuko zuen gero. Ez zegoen inor sartzeko beldurrik atea hala utziz gero ere.

– Aita, zu zara?

Eskailburura irten zenion gorantz zihoala entzun orduko. Ez zeniola bakerik ematen azkenaldian, horixe uste zuen aitite Mateok. Ezkondu zenetik hutsik egin gabe egunero egin izan zuen zerbait egiteko ere, ezgauzatzat hartzen zenuela. Berehala sumatu zintuen makurtuta, mailadian beherantz beha, ehiztaria bezala, harrapakina nondik ageriko.

– Sar hadi barrura, arraioa.

Sestran hasiko zineten atzera ere.

– Ez naik perlesiak jo...

Harraskan utzi zuen poltsa. Plastikozko korapiloa askatuta, albo batera egin zuen zamak, bizirik baleude legez atera ziren labainka geunetan.

– Saburdinak ostera ere?

– Alde egik paretik –baztertu zintuen.

Beheko atea zabalik utzi zuela, ez zeukan ahaztua. Su ondoko tiradera atera, zapi artean bila aritu eta linterna txiki bat zuela eskuan ikusi zenuen eskailburuan behera galtzen. Beste ahots bat bebarruan, gizonezko adindu batena. Norbaitekin ari zen hizketan. Lagunen bat, Urbano Peña beharbada. Edo txolintzen hasitako besteren bat, beste zoro bat, pasatu zitzaizun. Urrats pausatuak handik laster eskaileretan gorantz.

– Ez zenuke gehiagotan atera behar, aita.

Saburdin asko ari zen harrapatzen azkenaldian, edota kabrak, berdelen bat tarteka, txitxarrotarako juta hausten ez bazuten bertan katigatzen zitzaizkionak. Ez zizun aitortuko, baina urduri antzean zebilenean joan ohi zen arrain txikitara, txibiatarako nahikoa egonarri ez-eta.

– Ez duzu adinik itsasorako...

«Horixe diat bada», errepikatuko zizun, «adina. Handia gainera hire aldean, kakaume horrek». Baina bestela esaten zizun, ez zuen ostera ere hasi nahi. Horregatik ez zuen ulertzen Urbano Peñak zizun mira. Ume handi bat, hara zer izan zaren beti Mateo Vallejorentzat.

Kanila zarratu, saburdinak bertan utzi eta mahai gainean zabalduko zuen zapia, arrain gorrikarak astiro uzteko haren gainean. Zurezko ola txikia atera eta aiztorik zorrotzena aukeratuta ekin zion arrainak garbitzeari. Zirujauaren trebeziaz bereizi zizkien xerra biak, doitasun arduratsuaz pilatzen zituen hezurrak, buruak eta izpiak plater atal batean. Gizon mando askoak ere minez ikusia zela hiru izpiongatik, kontuz ibili beharra zegoela gogorarazten zidan aldioro.

– Hori ditek saburdinek.

«Hori ditek txarra, bai», errepikatuko zuen Urbano Peñak, lan handia dutela garbitzen gero hainbeste mami ez izateko, eskerrak emanda tomatetzan jarriko zituela eransteko ondoren. Ordurako urteak ziren Mateo Vallejok ez zuela berak harrapatutakorik platereratzen. Opari ematen zituen denak.

– Gainera, zeuk ez jateko...

Etxeratu orduko kargu hartzen hasi zitzaion gizona sartu zen une batez Mateo Vallejoren gomutan. Hondartza egun bat zen. Ur ertzean zebilen oihu mindu bat adituta jiratu zenean. Arineketa batean hurbildu zitzaizun. Umea zinen eta negarrez zeunden, esku biak oin guria bildu nahian. Ziztada garbia du saburdinak. Beso ar-

tean eraman zintuen Mateo Vallejok Gurutze Gorrikoengana. «Hainbesteko harrokeriarik gabe ere ezagutu haut», halako zerbait pentsatu zuen bere kolkorako oilartzen ikusten zintuenean. Ez da zaila jakitea zer zerabilen errotan jiraka: «oraingo aldean, asko egoten zen orduan saburdin txiki hori, hondar artean gordea. Eta galipota, haurren zein nagusien oinpean itsasten zen galipot alu hura. Sorospen postukoek ez, neuk igurtzi nian oin hori beraiek utzitako amoniakoarekin, pozoia hil eta mina gozatzeko, ez haiz oroitzen?».

Ez zizun laurdenik ere esango, ordea. Tuperra zabaldu, arrain xerra garbiak elkarren gainean atondu, kondarrak zakarrontzira bota eta mahai gainekoak jaso zituen, ola eta aiztoa harrian uzteko. Gero zorroztuko zuen. Zapia tolestuta geratu zen harraska ertzean. Bi eskuez itxi zuen tuperraren estalkia. Hozkailuan sartu zuen.

Orduan menturatu zinen:

– Aita, hona etortzerik ba dugu?

Begiraturik itzuli gabe erantzun zizun.

– Zer, oilo-gaitza ostera ere?

– Ez, oraingoan betirako da. Nerea eta biok etorriko ginateke, beste zerbait topatu arte...

Amagatik berak galdetu zizun.

– Londresera itzultzekoa da.

Txorrotapean sartu zituen eskuak, zatar garbian lehortzeko ondoren.

– Saltzen jarri dugu etxea.

– Etorri ba, kalean ez zarete geratuko.

Orduan bilatu ninduten haren begiek. Zu aurrean bazeunden, zakarkeriak babesten zuen lotsatik. Lotsorra baitzen Mateo Vallejo, zuk pentsatu aldean oso.

Mahai gainekoa batzea eta hotsa entzutea, bat izan zen. Usainagatik etortzen ikasten den azantza gozoa, bat aurrena, beste bat ostean, orratzak sukaldeko kristalaren kontra. Hala dator euria oroimenera datorrenean. Eta lehenbiziko oihuak atoan, etxekoneko Maria zuri:

«Euria, Mateo! Euria! Bildu arropa!».

–4–

Mateo Vallejok urteetan esperotako deia jaso zuen arrastian, bota ahalean ari zuen.

– Garai ederrean!

Zu eta biok etxe hartara heldu eta lasterrera izan zen. Enbatak atabalaren indarrez jotzen zuen barlasaia, zoruaren kontra hautsi zen teila bat erauzi zion haizeak aurreko etxeari. Eta orain badakit, entzun gabe ez nagoelako harrezkero, Terek ez zuela aitite Mateoren mingotsaren gozoa ulertzen asmatu:

– Nahi ez baduzu ez dugu zertan elkartu.

Isiltasunari luzetsita bilduko zituen begiak emakumeak. Nik telefono hariaren bestaldea ikusten nuen, hitzik egiteko gogortuta Mateo Vallejo tapizatua higaturik zuen sofa ertzean. Mahai gaineko lanparatxoa piztu zuen. Boligrafoa eskatu zidan, eta paper mutur bat idazteko.

– Ez zaude behartuta...

Saihetsez saihets nuen aitona. Telebistaren bolumena apaltzeko agindu zidan eskuari eraginez. Nondik iritsi behar zuen galdetuta, taberna baten izena eman zion, geltokitik ez asago. Egu-

netan atertzeko itxurarik ez zuen zaparradak behartu zuen Mateo Vallejo Tereren oinetakoetan sartzera. Metro geltokitik irten, aurreko bandara pasa eta espaloian aurrera jotzeko agindu zion ahotsa batere gozotu gabe, argazki-denda bat zuela ondoan, erraz aurkituko zuela. Galdetzeko ostean, ezaguna dela oso, beti-betiko taberna bat, aulki luze bat duela espaloi gainean. Nahiago izan zuen horrela, erauntsiak erauntsi, etxetik kanpo jarrita hitzordua.

– Zu lasai, neuk ezagutuko zaitut –entzun nion esaten.

Mateo Vallejok ez zion orduan aitortuko, nola ba, baina lotsatu egin zen bere lehengusina zela zioen emakumea etxera igotzen. Beldur zen edonon kontatuko ote zuen narras antzean zuela etxea, ezagun dela bakarrik bizi dela, nola galtzen diren gizonezkoak emakumerik ez dutenean gobernatzeko.

Terek ezer esaterako zuritu zuen bere burua Mateo Vallejok. Arratoi handia da beldurra:

– Orain semea eta honen alaba dauzkat hartuta.

Nola ez zuen jakingo nor zen, ez bazen emakumerik sartzen Toki Onan. Hura zuen goizeko kafea hartzeko estalpe Mateo Vallejok. Kanpoko

begi-luzeetatik babesean, barrenean zuen bere mahaia, bereago izateko brontzezko plaka batean izena jartzea baino behar ez zuena. Bertan irakurtzen zituen egunkariak, bertan isiotzen zuen eguneko lehen zigarroa, bertan katigatzen zen hizketan hurreratzen zitzaionarekin. Han ematen zuen goiza itsasora ateratzen ez bazen.

Gaur joaten bazara ez duzu aurkituko Toki Onan babesten zirenen itzalik. Nagusiaren semeak hartu zuenean ispiluz jantzitako kafetegi ezin itsusiago bat bihurtu zuen itsaslapurren zulokote hura, plastikozko barra gorri eta guzti. Paradisutik bidali orduko hasi ziren bezero zaharrak hiltzen, eta honezkero ez dakit bakarren bat gelldituko den bizirik.

Lehengusuarekin zuen hitzordura, etxean gezurra esanda atera zen Tere.

– Nora zoaz, ama?

– Gizonetara!

Kontu hauek guztiak gerora jakin ditut neuk ere. Gertatu eta denboralera heldu zaizkidan elkarrizketa txatalak dira, bi lehengusuak elkartu zirenean ez bainuen artean Tere ezagutzen. Baina horretarako, belarriak zorroztu eta entzuten jakin beharra dago.

– Mateo Vallejo zara, ezta? Tere Aizpuru naiz, zure lehengusina.

Ez duzu sinetsiko, baina bien inguruko xehetasun txikiena ere batzea lortu dut gerora. Behar nuen jakin zergatik eman zuen Terek aitite Mateo bilatzeko pausoa.

Tereren alabak magal gaineko esku-zatarraren gainean utzi zuen madaria, zuritu gabe. Eta pentsatu omen zuen: «niri sartuko didazu porru hori.» Bisitara joana zitzaion amari, alargundu zenetik astero bezala.

– Gizonetara... eta nik sinetsi!

Egunak eman zituen Terek tripako moropila askatu ezinik, ezer ez esan nahi etxekoei, ez behintzat telefonoz gozoegi aritu ez zitzaion gizonak nola hartuko zuen jakin gabe. Urratsa emana zegoen, ez zuen ezkutuko lehengusuarena edonola zabaltzerik nahi, ordea. Isilunea haustekotan, ganoraz egin beharra zegoen.

Eskailera mailetan behera, metro-zuloaren lamara ustelak irensten zuela, gauzak ondo egiten ari ote zen pasa zitzaion burutik Tere Aizpururi. Arratoi hura ostera ere papar erdian azterka: «neuk bakarrik dakit», zioen bere artean, «eta mundu honetan ez da betirako den inor». Nolatan hartu zuen erabakia, ez zuen asmatzen

gogoratzen, baina ebatzia zuen urteetako gezurrak ezin zezakeela segi. Sabeletik atera beharreko umeki hila bihurtua zuen Mateorena.

– Urteak eman ditut dei honen zain. Tere esan duzu?

Urteak behar izan ditu Terek berak ere bi belaunaldi osoren kontu gorde hura zulotik ateratzeko. Ez daki zergatik luzatu den hainbeste. Ez aitite Mateok ez nik aurpegiratu diogu egundo atzerapenarena. Terek aspalditik baitaki Mateo Vallejorekin zer gertatu zen.

– Jakingo bazenu zer damu dudan, Mateo...

Metroan ibaiertz berritu ertzetik doalarik, trumilka datozkio Tereri Bilbora izekorenera zerbitzatzera heldu zeneko hizketaldi, irudi, usain ukaldi guztiak. Kafe-ordura arte amatatzen ez ziren suak lapiko, kazola, zartaginen ipurdietan, sasoiko mutil haien bizipoza. Sarriro berregin du akorduan garai hura. Ez esan ohi den legez zuribeltzean, baina denak du zahar keru hori, eta bere burua ikusten du gerra amaitu eta gutxira, eskola, familia eta herria atzean utzita Bilbora heldu berri, barra atzean beharrean. Portugaleteko Nautika Eskolako estudiante jendea biltzen zen orduan Achoste ostatuan, euskaldunak asko. Eta irudi guztien artean, batek lotzen du azke-

naldian Tere. Saiatuagatik hura datorkio, ez besterik. Bera bezalaxe herritik lanera etorria zen Asuntarekin zegoen barra atzean. Tartekoa egiten zen Saroizar baserriko Asunta, lehengusu txikia zuen. Eta hahor non ikusten duen Mateo haurra gurasoekin sartzen, ikusi egiten ditu oraindino Asuntaren begi ilunak hegoak bezalaxe zabaltzen, eta ahots musker haren harritu-oihua:

– Gure Juanito, hori gure Juanito dun-eta!

Atoan jo zuen zapiaz besoan Terek:

– Burutik egin zain ala? Mateo ez dun ba, Vallejoren semea!

– Gure amak hazitako Juanito dela hori, Tere!

Bezero gutxiko bazkaloste bat zen, hala gorde izan du beti. Izekogatik galdetu zuen matrimonioak, mutil koxkor begi ezti bat zuela ondoan. Terek ezagutzen zituen: Achosteko izekoren auzokoak ziren Vallejotarrak. Izarak baino zuriagoko zapi haiekin ari ziren edalontzi guztiak txorrotapetik pasa eta lehortzen Asunta eta Tere.

– Nik ezin nuen hori barruan nuela hil, Mateo.

Atoan erantzungo dio lehengusinaren larriari:

– Juanito naiz orduan?

– Juan Aizpuru deitu izan zinen hiru urtera arte.

Tererekin izan zuen aurreneko hitzordu hartara, inoiz gutxitan bezala jantzita atera zen Mateo Vallejo etxetik. Balkoian erre zuen zigarroa, Abran galduta begirada. Sukaldeko apalean utzi zuen paketea gero, tiraderan beren-beregi gordeta kiskeroa. Neure gelatik aditzen nion kolonia usaina. Atea zabalik zegoen, eta pasilloan zebilela sumatu nuen, jo atzea eta jo aurrea. Kuku egin zidan ate ostetik, bazihoala. Lasai joateko esan nion, gustura nengoela etxean. Irakurtzen jarraitu nuen, gehiegi gustatzen ez zitzaidan liburu bat leitzen, eta hala harrapatu nindu-ten ilunabarrak eta aitite Mateok bueltan heldu zenean.

– Afaldu ere egin beharko dugu ba...

Beteta zekartzan begiak. Zapatak eranzteko eseri zenean, luzaroan egon zen galtzerdi ilunetan bildutako oinei beha, egindako bideaz harrituta balego moduan. Tererekin egon ostean etxerakoa ilunpeen bila egin zuela, oso gerora aitortu zidan.

Hitzokin batera negar anpuluak atera izan zaizkit neuri ere, non ostia zeunden zu.

– Gertatuko dinat tortillatxo bat?

Gizon bat bakarrik espaloian barrena, bizitza iruntzietara jarri diotena.

Egia esan, neuk aitite Mateori egiteko moduko galdera zen Mateo Vallejok egun hartan Tere Aizpururi egin ziona:

– Eta esadazu, zer zen nire aita?

–5–

Nahastuan datozkio poza eta tristura Tereri, Mateo Vallejoren begi erabiliei erreparatu dienean. Ezaguna zaio ezti kolore hura, txikitasun gaiztoan herabe. Gero eta etxekoagoa zaio aurrean duen gizonaren behakoa.

– Gure hazpegia duzu. Izena ere... nola deitu behar dizut?

– Honezkero igualtsu izango da, ezta?

Ezpainak nola estutzen dituen erreparatu du, hotzegi ikusten du Mateo Vallejo.

– Esadazu, zer zen aita? Militarra? Apaiza?

Toki Onako mahaian bekoz beko daudela, odolaren indarra aurkitu nahi ditu Terek aurrean duen gizonaren atzamarren forman, belarri-ertzetan, kokotsaren biribilean. Amorrarazi egiten du horrek orain, ezin eramana egiten zaio lardeariazko isiltasun haren guztiaren zama.

– Garaiak ziren gogorrak. Badakizu, eliza...

Halako zerbait ibili duela beti buruan aitortu dio gozotasunik gabe Mateo Vallejok, oztopoak baino ez zizkiotela jarri dena agerian geratu zitzaionean.

– Aitaren argazkirik baduzu?

Terek ez dio berehala erantzungo, begiak ditu lanean. Sudurra, bekokia, berbak ebakitzeko era... «Zu gutarra zara» esatera doa, baina «ekarriko dizut hurrengoan» atera zaio.

Konfiantzan aurrera, amagatik galdetu dio Mateo Vallejok. Ezer ez dakiela aitortu behar izan dio Terek. Hala da, hutsa bada aurrean duen gizonaz dakiena, ez du motiborik izan honen amaz gehiago jakiteko. Zerbait zekiten guztiak falta dira.

– Denak hil dira txintik atera gabe.

Toki Onako behegain bustian zerra-zahia zabaltzen dabiltzala, nahi aldean geldiro doakio osatzen Mateo Vallejori iragana. Behin baino gehiagotan errepikatu behar izaten dizkio Terek izenak, datak, lekuak. Haria eten egiten da maiz, eta bihotz-begiek ez dute larregi laguntzen. Segitzea ez da lantegi erraza. Gauza asko da, ezin konta daiteke bizitza oso bat hamar, hogei, berrogei minutuan. Fraidea zuela aita, «osaba Klaudio» esango du beti Terek, semea aitaren izenera ohitu nahiko balu bezala.

– Klaudio Aizpuru deitzen zen zure aita. Urte parrasta da hil zela.

Maitemindu eta komunitatetik ihes eginda, ezagutzen ez zituzten tokietan ibili ziren amorante biak. Hala jaio zela bera, gordean ustez. Gero, ez dakiela zer pasatu zen, izekoak-eta sartu zirela tartean, Klaudioren arrebak.

– Achostekoa eta moja. Kontua da zure amari kendu egin ziotela umea.

Entzun eta batera konturatu da Mateo Vallejo zein arrotza egiten den norberaren gainean horrela hitz egiten entzutea. Gogortuak ditu malkoak negar egiteko.

– Zure aita Bilbon zebilela gordeta, bisitan joaten nintzaion. Tabakoa eramaten nion. Orduan besterik beharbada ez, baina tabako asko ibiltzen zen gurean. Badakizu, marinako estudianteak...

Harriak baino hilago dago Klaudio Aizpuru mortu hotzean. 1963ko udazken egun batez hil zen, kaputxinoek Leonen duten komentuan.

Seina kendu eta gero, aita komentura itzuli zen ostera ere.

– Ezagutu ninduen?

– Ezagutuko ez zintuen ba!

Klaudio Aizpuru Bilbon egon zen garaiek harrapatzen dute Tere, abiturik gabe, bizarra ondo eginda, ordenatik kanpoko aste haietan.

– Zinemara joaten nintzen zure aitarekin. Nik tabakoa eramaten nion, berak Campos Eliseosera edo Filarmonicara gonbidatzen ninduen. Achostera ez zen arrimatu ere egiten, beldurrez bizi zen. Ikusten zintuen, ordea, urrutitik badarik ere.

Aparterago elkartzen ziren osaba-ilobak, Arriaga atzean-eta askotan, tranbiak hartzen ziren txapitula berde baten azpian. Ikusi egiten du oraindino ere.

– Urteak egin nituen Achosten, ezkondu arte. Han ezagutu nuen senarra.

Orain erraza egiten zaio Tereri aurrean duen gizonaren aitaz berba egitea. Zalantza egin du, beldur da nola hartuko duen, baina bota dio. Klaudio Aizpuruk benetan gaizki pasa zuela esan behar izan dio, amorruz umiliatu zutela komentukideek burumakur itzuli zenean.

– Zergatik bueltatu zen?

Dagoeneko hariak nahasirik dabiltza, zaila da galdetzen denari erantzutea, artegatasunak bere bidea duenean, hitzak bata besteari amarratzea ez da gutxi.

– Eta ama, zer dakizu amaz?

– Ezer ez. Zu Madrilen jaio zinela, hori badakit, Asuntaren etxekoek esanda. Madrilera joan ziren ihesi biak.

Algara mingotsa atera zaio Mateo Vallejori Tereren irteeraren aurrean. Kalean argiak pizten hasi dira. Lagunengatik galdezka sartu den gizona agurtu du eskuaz Mateo Vallejok.

– Madrildarra ni!

Nekerik gabe egiten du barre bere buruaz aitite Mateok, horman Athleticekoak direla gabarran igota errio lohian gora. Ondoko argazkian, Iribar eta Kortabarria ageri dira, Atotxan ikurrina elkarrekin atera zutenean.

Eta nik, ez dakit zer esan zioten elkarri aurreneko hitzorduan eta zer ondorengoetan, dena baita halako amaraun bat. Tere bera ez da gogora ekartzeko gauza. Aurreneko bisitak handik lasterrera izan zuela jarraipena, hori bai. Tere, metroa hartuta, ilusio handiagoz eta kezkaren erdiaz hurreratuko zen lehengusuarengana bigarrengoan. Badaki Mateok nahi duela familia ezagutu, badaki familiak Mateo ezagutu nahi duela. Orain ez du zalantzarik egiten, merezi izan du telefonoa hartu eta deitzea. Berak tarteka «ondo egin al dut?» galdetzen die seme-alabei baina. Buruan, hor du mailua kolpeka:

«Garai ederrean!».

Mateo Vallejoren bizitza ezagutu arau, dena egiten zaio eramangaitzagoa. Ez dio hala aitortuko, baina amorru printzak azaldu zaizkio, lehen aldiz azken urteetan.

– Izeko-eta, gaiztoak ziren. Gaiztoak. Badakizu, familiaren izen ona gorde behar. Hala zen orduan.

Izan zuen jakiteko aukera. Rosa izeneko neska batekin zebilen Mateo Vallejo, ezkontzera zihoan elizan presentatu zenean bataio-agiriaren bila. San Agustinen bataiatua zen, eta papera eskuan zuela jakin zuen ez zela etxean zuen amarengandik sortu: ume hartua zen.

Ez zen Rosarekin ezkondu. Kontatzen hasi eta nahasi egiten zaizkio denak Mateo Vallejori, orduan izandako elkarrizketak ez ditu zehatz gomutatzen, dena da halako tropoilu bat. Orain, nobioen arteko harako iskanbilak bata bestearen atzetik datozkiola, ezin esan dezake bera izan zen Rosa utzi zuena edo Rosa bera izan zen bakarrik segitzea erabaki zuena, ero batekin ezin bizi-eta.

Lanari, hori badaki, berak laga zion, eta ez zen txarra Komertzio amaitu orduko aurkitu

zuen gerente postu hura La Basconian. Aho-bizarrik gabe aitortzen dio Tereri:

– Aldrebes ibili nintzen oso. Zurruta. Nor nintzen jakin nahi nuen. Bataiatu ninduen abadeagana joan, baina alferrik ari nintzela zemaitu ninduen On Elias Jauregik, ez nuela sekula arean jakingo. Etxean ere ezer ez. Nondik hartu ninduten eta moja baten izena.

Eta zuzen, Jauregi zegoen: Mateo Vallejok ez zuen ibilitakoaren arrastorik aurkitzerik izan. Ez zion horretan gezurrik esan.

– Elkar hartuta zeuden ate guztiak zarratzeko.

San Agustingo pulpitutik Francoren zapata zolaren kontra ere hitz egiten zuen indar berarekin egin zion aurre Elias Jauregik gurasoak zein zituen jakin nahian joan zitzaion Mateo Vallejo gazteari. Eta On Elias bazen nor: Gobernu Zibileko zerrenda beltzean izango zuten Txabi Etxebarrietaren aldeko mezak emateagatik.

– *Casa cuna*ko mojek ere, ez zidaten aurrerabiderik eman. Orain ulertzen dut, nola emango zidaten ba eurak tartean bazeuden.

San Agustingo bataio agirian ageri den egunean ospatu izan du beti urtebetetzea aitite Mateok, auskalo berez noizkoa den baina.

– Dena baino zaharragoa ematen du –abisatuko du etxean Terek–. Osasun aldetik kastigatua dago, makal antzean dabil. Gure amak bezalaxe, biriketakoa du, ito egiten da.

Madrildik, hiltzera ekarri zuten Mateo Vallejo. Sano haur ahula zen, ez zuela luzaroan iraungo pentsatu zuten Saroizar baserrian. Ekarri, Tereren amak ekarri zuen handik.

– Konturatzen? Zuen familiarentzat beti izan naiz burusoila, hortzik gabea eta gaixoa. Hala nintzen baserrira eraman nindutenean eta halaxe nago, urtetxo batzuk pasa ondoren, nire bila etorri zaretenean.

Poztu da Tere gizonak erakutsi duen umoreaz. Garratz tanta bat, horra bien artekoa eramangarriagoa egiten duena. Horretarako eta gehiagorako du eskubidea Mateok, pentsatu du bere artean Terek.

Umeak esnea behar, ordea. Atoan topatu beharra egon zen babes-zuloren bat fraidearen umea gorde eta zaintzeko. Tereren amak berak haurra besotan hartu eta beste etxe batera eraman zuen aurrena. Sentitzen zutela baina han ezin zutela ume hura hazi, ez zutela nahiko esne etxeko alabarentzat ere. Hala heldu zen tarteko egiten ziren Saroizarrera, garai hartako kontuak,

hala utzi zuten han, eta halaxe hazi zen orduan Juanito Aizpuru deitzen zen ume hura hiru urtera arte, non dagoen inoiz jakin ez duen etxe hartan.

– Gogorra da gero, ia hiru urte arte erdaraz jakin ez, eta orain euskaraz pitorik ere ez!

Zumaiako tren geltokira agertzeko agindua iritsi zen arte. Lehenengo aita eta ama kendu bazizkioten, bi urte eta erdira ugazama, etxeko aita eta senidetzakoak ostu zizkioten Mateo Vallejori. Han agertu ziren mojak esandako orduan. Ez eramateko mesedez egiten zuten erregu Saroizarkoek, ondo haziko zutela eurenean. Alferrik. Bigarrenez bahitu zuten. Umea hartu eta trenean sartuta ekarri zuten Klaudio Aizpururen arrebek haurra Bilbora. Bazeukaten non utzi, Achosteko ugazaben auzoan, Vallejotarrenean. Ezin familia egokiagorik aurkitu: haurra nola hazten zen zelatatuko zuten hartara.

Bularra eman zion andreak ez zuen umea sekula gehiago ikusi.

Asuntagatik dakizki Terek Mateoz dakizkienak. Pena horrexekin hil omen zen Saroizarko ama.

– Urteak eman ditut dei honen zain.

Eta Terek ulertu nahi du Mateok darabilena, nola egon den hainbeste denboran ezer esateke ari zaio egozten.

– Zer familia duzu, Mateo?

– Seme bakarra... Ez nuen erraza izan beste andre bat topatzea.

Ezin izan dio eutsi. Errukiz begiratu dio Terek. Hustu dadin itxaron du.

– Emaztea oraintxe bi urte hil zen.

Horituak ikusi dizkio atzamar-muturrak Terek agerian utzi duenean eskua mahai ertzean. Handitu egin zaio dardara. Hegabera elurretan bezala babesteko ezarri dio berea gainean. Mateorentzat, bakarrik dagoenetik gozatzen dituen aurreneko emakume eskuak dira.

– Semea eta honen alaba, Nerea. Belaunaldiko bakarra jaiotzen gara etxean. Eskerrak.

– Ez esan horrelakorik! Orain ez zaude bakarrik, ez zara bakarrik gehiago egongo, Mateo.

Laztandu egiten dio esku dardaratia.

– Eta ordukoaz, ez duzu ezer akorduan?

Mateo Vallejok baietz dio, ahaztu da bere buruari agindutakoaz, eta ezpainak alaitzen zaizkio lipar batez.

– Hori bai, jende askok ez daki zein duen bere bizialdiko aurreneko irudia. Nik bai.

Betidanik izan du hor. Teilatu zabaleko baserri bat etortzen zaio, sarriago telefonoak iluntze hartan jo eta Tererekin hitz egin zuenetik. Teilatua eta arbola bat besterik ez. Etxe aurrean zegoen arbola handi bat, haren itzalean egiten zuen jolas beste umeekin.

– Arbolapean, gizon zahar baten magalean nago, eta jaten ematen ari zait.

–6–

Hamabost urte asko da. Larregi ezer barruan uzteko. Denborak mudatu egiten du bere baitan biltzea lortzen duena, ezer ez da lehen zena, horrekin bizi gara. Egunen ibiliak dena hartzitzen du, eta nik noiz galdu ninduzun esan beharra dizut, noiz huts egin zenigun aitite Mateori, amari, niri. Eta zergatik ez, baita Edwini ere.

Igar ditzakedan koloreen arabera hasi naiz piezak atontzen. Itsasoko urdin astunak hemen, zeruko arinagoak han; tartean, gris, beltz eta ilunak, eta zamaontziaren gorrikara guztiak multzoan, itzal, arrakala eta orban.

Sarak inoiz eskatu izan dit amarena kontatzeko. Nola bizi duen hamahiru urteko neska batek hori, amak dena utzi eta Londresera itzultzea, minbizia, galeraren beldurra. Ez al zen hura ere, eta gogoz kontrakoa izanagatik, abandonua izan. Zeuk erabilitako argudio bera, bai. Batzuetan zu zuritu nahian dabilela iruditzen zait, ostera ere zu eta biok elkarrengana hurreratzeko ahaleginetan balebil bezala.

– Astero egiten nuen berba berarekin.

Baina ni ez nintzen egoten amak noiz deituko. Berak asmatzen zuen noiz hots egin, larunbatetan sarri, aitonarekin haitzetatik edo beste nonbaitetik itzuli eta bazkaltzen hasi aurretik ia beti. Arratsaldeko hirurak Londresen.

Aspertuta sumatutako batean gonbidatu ninduen labarretara Mateo Vallejok estreina, zure ezkutuan. Harrezkero, sarriro egiten genuen beheko lonjara jaitsi, trepetak hartu eta inori ezer esan gabe kostaldeko errepidetik, frontoi zahar atzeko estrata gibel utzita, etxe berriak eraikitzekoak ziren ortuetan barrena. Bidean, Santosenean egiten genuen geldialdia. Autoa motorra piztuta bazterrean utzi, biok atera, eta oina horman gora doi bat behartuta, eskua adarpean kakotu eta madari bat zuela jaisten zuen Mateo Vallejok. Ahoa busti eta eskuak likatzen zizkidan txermen urtsu bat eguneko. Harrika botatzen genuen mutxikina gero, ea nork urrunago.

Horra gozotasuna zer zen: aitite Mateoren zapiaren usaina, musualdea garbitzeko tolestuta ematen zidanean.

Luze gabe, lurra berdintzen hasiko ziren indusmakinak. Madariondoak palaz eraitsi eta zerraz moztu zituzten, egurra saltzeko. Arbolak

baino arinago haziko ziren adosatuak handik gutxira.

– Zer moduz zabiltza?

Singularrean hitz egiten zidan orduan amak beti, ni banintz legez hemen utzi zuen pertsona bakarra: «zer egin duzu, noiz egoten zara lagunekin, ondo zabiltza institutuan?». Horregatik dakit zurekin beste egun batzuetan hitz egiten zuela, ez zidalako zugatik egundo galdetzen. Nik, berriz, pluralean erantzuten nion, ez aitonak edo zuk sukaldetik entzuteko beldurrez, orduan halaxe ateratzen zitzaidalako baizik, berez.

Hasiera hartan sinetsia bainuen bion arteko zubi izan nintekeela.

Eta egia da. Arroka labainetan genbiltzala, oin bat hemen, bestea han, askotan hartzen zidan gogoa zubiak, benetako zubi batek. Labar gainean hasi eta itsasoaren bestalde, lainoen gaindi Portsmoutheraino eramango ninduen zubi moderno, ikusgarri bat, erdialdera etzaten diren kable astunak datozkiola goitik, amerikar telesailetan agertzen diren horietakoa, Brooklyngoa, Oakland Baykoa, Golden Gate bat, nik dakit ba. Bizikletan edo auto-stopean joateko moduko zubi bat.

– Noiz ikusiko zaitut?

«Noiz ikusiko zaitut» esaten nion, ez «ikusi egin nahi zaitut».

Telefonoz amak beti egiten zidan ingelesez, gurekin bizi zenean baino sarriago. Eta ingelesez erantzuten nion galdetu beste bider, nahiz eta joana zenetik ez nuen inorekin egiteko aukerarik. Gelan, nabarmenegi ez gelditzeko moduan aritzen nintzen. Nahita kamusten nuen ahoskera, gurata baldartu joskera, horretan ere ikasi nuen nintzena ez agertzen. Bazekiten nondarra zen ama, bazekiten ingelesez hazia nintzela, hala ikasi nuela aurreneko beharrak zein nituen adierazten.

– Olagarrotan joan naiz –esaten nion.

– Aitite Mateorekin –lasaitzen nuen.

– Musu! –ematen nion arrapostu bereari agurraren unean.

Harrezkero, ez dut uste inoiz eskatu diodanik. Eskatu gabe jasotzea da ederra. Baina orduan bestela ziren gauzak. Orduan urrutikoa gertu behar eta asmatzen nuen barruan daramadan harri tzar hau beratzen. Hamabost urte joan dira, eta badakit idazten duen esku hau bera ere umetu egiten zaidala amarekikoak hartzen didanean gogoa.

Labarretan behera, Mateo Vallejoren arnas hotsa nabarmenagoa egiten da. Hauspoa da, erretako zigarroak madarikatzen ditu. Aurretik doa, gibeletik nola noakion begia kendu gabe jaitsiko da bidezidorrean behera, ez dit utziko une bakar batean aurrea hartzen. Haren oinak nireak dira, ez dut urratuko haren lorratzen gainean pausatzeko agindua. Belar ihar latzek haitz beltzari uzten diotenean tokia, biok mantsotzen dugu urratsa. Itsasaldetik datorren haizeak garbiago harrapatzen gaitu, biluzik bagenbiltza bezala. Eginahalak eta bi egiten ditut harkaitz arteko arrakaletan oinik ez sartzeko. Arantza moreak dituzten itsas trikuak bizi dira bertan, lapak, magurioak, goroldioa. Eskua ematen dit arroka latzen bat igo behar denean. Potxingoetan, izkirak eta makonak daude, txitxinak bezain arinak. Eta haitz zorrotz asko, marea behean dela joaten baikara beti. Putzuetatik hurre nabilela, alga bustien usain gaziak hartzen dizkit sudur-mizpirak. Zorroa darama bizkarrean aitite Mateok, gakoen muturrak agerian dituela. Egurrezko heldulekua du luzeenak, burdinazko hari batez bildua.

– Olagarroak harrapatzea, berez, ez da zaila, baldin badago. Dagoen ehiztaririk bikaineneta-

koa da, baina nekez aurkituko duzu ehiztaria bera harrapatzea baino barne ikara ederragorik.

Zapi zuria ondo lotu gako muturrean, eta haitz egokia bilatuta, azken zirrikituan sartu, harik eta erroen gosea sentitzen duzun arte. Gakoa tenkatzen duen kolpe biribildua, askatzen ez duen amorrua, ahazten ez den zerbait da. Ostean zetorrena zen baina, gustukoen nuena. Nola burdina haitz zapalenaren gainean utzita ateratzen zuen labana aurreko poltsikotik, eta nola, non den jakinda, sartzen zion altzairuzko muturra begi artean. Orduan etsitzen zuen esku-muturretik gora, besondoan loturik zuen hamarratzak.

– Olagarroa ez beste edozer ematen du horrela.

Eta Mateo Vallejok barre egiten didala eutsi dio erro-buruetatik, hortz horitu haiek, eta erru-kirik gabe, zartatekoek arropa bustiarena ematen dute, behin eta berriro jo du arrokaren kontra, berehala zikindu da hau, harria tinta beltzez ilundu da. Likatsua dirudi. Ez dit inolako penarik eman. Gero, zerbaiten bila ari balitz bezala sartu dio eskua non esaten asmatzen ez dudan nonbaiten, harik eta halako batean olagarroa burua

iruntzietara duela erakusten didan arte, arestiko indarrik gabe abaildua.

– Ondo, Nerea?

Etxetik alde egin zuenetik, ez zitzaion mendreenik aldatu ahotsa amari. Eta kanbiatua beharko zukeen, amaren ahotsak, ezpain ertzak garbitzen zizkidan tu epelak bezala, usaina baitzuen, eta usaina duen oro mudatzen baita denborarekin: gereziak sukaldeko otzaran, arropa soinean, euria zelai moztu berrian.

Gezurra esan nion, baina, lehenagoko ahots hari. Larunbat hartan deitu zuenean ez nion kontatu Mateo Vallejok ez ninduela olagarrotara eroan. Ezin izan nion aitortu Abrara atera ginela motor-txikia hartuta.

– Hildako katu bat topatu dugu gaur haitzetan.

Pentsu-zaku zuri bat zen, arroka artean preso, sokaz itxita eta tarratada batekin. Horregatik ikusi genuen katua, ataloa bezain puztuta. Kiratsak salatzen zuen hilotza. Ez ginen haitz arte hartara gehiago itzuli.

Amak debekatua zion Mateo Vallejori ni motor-txikian ateratzea. Itsasoak irentsiko ninduen beldurrak lotu izan zuen hemen bizi izan zen artean.

– Noiz ikusiko zaitut?

Ez zuen arrazoi faltarik: amari ezkutatu nion larunbat hartan, ia Portsmoutheraino heldu baikinen Mateo Vallejo eta biok. Luren errautsak zabaldu genituen parera iritsita atzerantz egingo zuela pentsatu nuen, ez zela puntetatik aterako. Baina moila muturra atzean utzi eta bokalean hondo emandako zamaontzien artera arteztu zuen ontzia. «Horraino eta buelta», esan zidan. Lasaitu egin nahi ninduen, sumatu egin zuen nire ezinegona. Zamaontzien aingura kateak ukitzeko moduan igaro ginen haien ondotik. Hutsik ziruditen gehienek. Onenean, tarteka eskua igota agurtzen zuten marinel ilunek karelean. Badakit gero, herrira itzulita, begiluzeren batzuek adarrean galdetu ziotela zer ibili zen, ea estraperloan hasi behar zuen, aduanakoei ziri sartzen, «noiz eta Moisesen adinera iritsita».

– Egunen baten Tere ekarri behar duzu. Seguru gustuko duela itsasoa.

Izena irakurtzen genien popan, zeramaten zama imajinatzen:

– Begira, hau Panamakoa da.

Eta nik, loak hartu aurretik, azal gogorrak zituen atlasa atera eta Panama topatzen nuen ohe ondoko lanpara ahul haren argitan.

Hala ikasi nuen mapa mundia buruz.

–7–

– Skinnerren kutxa.

Lo zegoelakoan ahalegindu naiz albait isilen sartzen ohean. Sara itzarririk dago baina.

– Skinnerren kutxa, gogoratzen?

Neure aldera jiratu eta ea ez naizen Barney jaunaz akordatzen esan dit besoa pasatzen didala sorbalda gainetik. Ea ez didan une batez bada ere psikologia eskoletako Skinnerren kutxak gogoa hartu orduko kontuak berregiten nabilen honetan. Londresen, fakultate garaian determinismoak eta zoriak pertsonen bizitzan duten eraginaz eztabaida sortu nahi zuenean, Skinner doktoreak asmatutako kutxarekin xaxatzen gintuen irakaslea zen Barney, nola ez naiz ba akordatuko.

Skinnerren kaiolan Mateo Vallejo, Edwin, zu eta laurok egon ginela esaten ari zait Sara. Ea ez ginen baldintzatuta sartu denok etxe hartan.

– Aurretik emana zitzaizuen asko. Abandonuaren harra zenuten erraietaraino sartua Edwinek eta heuk. Mateo, berriz, ume bahitua dun. Hori hor zagon, Nerea. Indarra din horrek.

Sarak ez zuen ziririk behar izaten Barney jaunaren klaseetan hizketan hasteko. Nik nahiago izaten nuen mihia lotuan.

Isiltasuna ulertzen ez zuena zu zinen.

– Zurekin hitz egiten du?

Eta Mateo Vallejok «zer nahi duk, haurra duk oraindino, bil ezak pazientzia pixka bat» erantzun beharrean, «nirekin bai» erantzun zizunean ikustekoa izan zen jarri zenuen aurpegiera. Ulertu nuen barruak hartu zizkizun su haren indarra, ulertu nuen Mateo Vallejok eman zizun sastada gibelean, «espabilatu beharko duk halako batean», eta barregura eman zidala aitortu behar dizut. Ordutik dakit gaiztoa ere izan naitekeela, zuri min emateko gauza naizela ohartu nintzen.

Galderak etengabean helduko ziren harrezkero, ea lagunekin ez nuen geratu behar. Gero, ea norekin ematen nuen eguna. Azkenean ea nora eraman ninduen aitite Mateok moilarantz jaitsi ginenean. Erantzunik gabe nahi zenituen galderak, esan orduko jabetzen zinelako non amaituko genuen abainua emanez gero.

– Ez naiz ni hona bizitzera etortzea erabaki duena.

Eta orduan alde egiten zenuen. Hori zen behar zenuen erantzuna espantuka eta zeinuka

altxa eta, gora-goraka, ateari danbatekoa emanez auskalo nora joateko. Plantatakoa zen guztia: danbatekoa, oihuak, hanka presatuak; dena egoerak beste neurri bat zuela sinets genezan egiten zenuen. Mateo Vallejo isilik geratzen zen horrelakoetan, baina berak ere galdera asko zuen zuri egiteko. Ulertzen zuen pasatzen ari zinena, hori badakit. Begia ere iluntzen zion zu ohol bat itsasoaren erdian bezala ikusteak. Zure aita zen, baina ez zuen ikusten zurak ezer egiten zuenik hondartzara iristeko. Lana zela, batzarrak zirela, zeure egoeran zeuden lagunekin futbol partidak edo «trago bat eta oraintxe noa» haiek, kontua da eguna joan eguna etorri ez zinela ilundu arte azaltzen etxera.

Nik, ostera, berehala galdu nituen eskola ostean Bilbon geratzen ziren lagunak. Bidea nuen metrora, eta bideondoa geltokitik Mateo Vallejoren etxeraino.

Berbetan, zuk ez zenuen nire gaitzik:

– Laster itzuliko gara Bilbora, Nerea. Gauzak pixka bat hobetzen direnean.

Laster. Desastrea izan zara beti hitzak aukeratzen. Ikasturte osoa emango genuen portu gaineko etxe zahar hartan.

Etxea ez zen txikerra ere. Lau koarto bazituen, egongela epel bat eta lehengo sukalde handi horietakoa, ura berotzeko biltegi zuri batekin harraska gainean, akordatzen? Zainduz gero, ematen zuen hirurok dutxatzeko. Han hazia zara, badakizu zer ari natzaizun erakusten. Zer gehiago behar zenuen? Esaten zizun aitite Mateok:

–Konformidadea zer den baheki!

Eta balkoia, tala zabal hura itsasoa etxean izpika sartzeko. Hanka ugertuko mahai bat, oinetakoen armairua, lanbasak eta erratzak azken tomateak larregi gorritzen, piperrak kakotik zintzilik. Gau lehenean, Abrako argi guztiak geuretzat beren-beregi jartzen zituztela ematen zuen. Sukaldetik aulkia atera eta orduak ematen nituen urriko gau epeletan bakoitza nongoa zen argitzen: «han, Larrainetako funikularra; han, Sestaoko azken etxeak; harantzago...».

Horregatik petraltzen zitzaizun aitite Mateo bere partea saldu eta, ezagutzen zenuela kontratista konfiantzako bat botata, etxe berria egiteko tentatzen zenuenean. Jarduna zenuen, hitz ederrekoa izan zara beti. Balio handia zuela lurrak, ez geundela dirua galtzeko. Eraikin berria, garaiagoa eginda irabaziko omen genuen. Min-

tzatu behar zenutela negua orduko auzokoarekin. Erretiroa aipatu zenion, erosotasuna, garajea eta igogailua.

– Zenbat urte uste duk biziko nintzatekeela etxe horretan?

Kezka handiagoa zeraman barnean Mateo Vallejok ordurako, existentziaren nolaereko eskuaretzea. Ikusia zuen nola aldatu zen herria azken urteetan, etxeak eraisten, kaleak mudatzen, jendea hiltzen. Berriak eraikitzen, berriak sortzen. Geografia errotik aldatua zioten gizonari. Arrantzara gutxiago ateratzen bazen ez zen kasu egiten zizulako, ehiztari bihurtu zelako bazik. Ez da zaila asmatzea zertan ematen zuen denbora desorduetan kalera jotzen zuenean: itzal zaharrak harrapatzen. Badoazen lagunak bizi izandako etxe aurreetatik pasatzen zen, gutxien espero nuen tokian gelditzen ikusi nuen. Plaza ondoko oparien denda dagoen horretan badakizu zer zegoen oraintsu arte? Arbola bat. Bai, arbola soil bat. Han biltzen ziren bizitzara agertzen hasi zirenean. Gazteak ziren, dena sinpleagoa da beharbada ezer gutxi dagoenean, baina mundua biltzen zen kantoi ainube hartan. Zumar zahar bat zen, kartelak jarri eta erauzi egiten zizkioten zumar gaixo bat, milaka grapa

txikiz zauritua. Trenean fijo hartu zutenean, aduanatik ateratako botila whiskiarekin eta zigarro bilduekin agertu zen bertara. Lagunekin ospatu nahi zuen. Bera izango da seguruenik gazte haietatik guztietatik handik pasatzen segitzen duen bakarra.

– Luren argazkia ekartzera natorrek.

Urbano Peña etxera etorri zen hartan, kanpoan zeunden. Harritzekoa. Ilundu egin ninduen gizonak, inoiz ikusi gabea agure bat postura hartara etorria. Argazki plastifikatuan, irribarrez agertzen zen Lu. Egunen batean berarekin joango nintzela esaten zidanean zuen aurpegiera bera zuen. Sukaldeko kanpaiaren gainean utzi zuen Mateo Vallejok fotoa. Balkoira atera zituen aulkiak. Kafea jarri zuen egiten, pattarra mahai gainean geratu zen, eta bi kopa. Fruta eskaini zion.

Maite dut jendeak laranjak nola zuritzen dituen ikustea. Urbano Peñak lau ebaki goitik beherako egiten zizkion, artikoa eta antartika labanaz moztuta lau meridianoetatik atzamarraz askatzeko azala. Usain gozoa zabaldu zuen.

Barruak lasaitzera joaten zen Mateo Vallejorenera:

– Ez duk egun bat pasa Lu gauerdian etorri gabe.

Gauero egiten omen zuen hizketan alabarekin. Hasieran ohean, harik eta emazteak gelatik bidali zuen arte. Sukaldean aritzeko agindu zion, berba egin nahi bazuen. Leiho ondoan hartzen zuela alaba harrezkero. Egunsentira arte askotan.

– Behin baino gehiagotan esnatu naik zaborraren kamioiak.

Mateo Vallejok ez zion galdetu zertaz jarduten zuten, izango zuten elkarri zer kontatua. Aulkitik altxatu eta kafea ekarri zuen. Azken egunetan ez bezala, bare zegoen Abra.

– Han egongo duk –esan zuen Urbano Peñak.

Puntetatik harantzago, zamaontziak zain zeuden portuan sartzeko.

Kafetera ez zebilen ondo, hondarra uzten zuen kikaretan. Goma aldatu beharra zuela aipatu zuen Mateo Vallejok.

– Sinesten lanak ditik. Lehengo astean heldu zuan haren gutuna.

Errautsak zabaldu eta egunetara buzoia irekitzen duzularik, hildakoa duzu berbetan. Ondo zebilela omen zioen, eskola laster amaituko zutela eta itzuli beharra izango zuela. Osterantzean, gustura gelldituko litzatekeela beste pare bat hilabete Afrikan. Abegikorra dela jendea, eta ima-

jina ezin genezakeen modukoa paisajea. Argia, beste mundu batekoa.

«Ikusiko bazenituzte hemengo umeen irriak!».

Urbano Peñaren ahotik mintzo zen Lu. Hiru argazki ere ba omen zetozen gutunean, eskoletan lanean.

– Pozik zegoela ziok.

Hiruroi sartu zitzaigun itsasoa begietatik. Eguzkia beheratzen hasia zen eta aitite Mateok harria baino isilago segitzen zuen. Xorta bana pattar hustu zuen bi kopetan. Usainak dantzatu zituen alkoholak.

– Eta horko hori?

Mateo Vallejoren hitzak entzun eta batera jaiki zen Urbano Peña. Taketa den bezain tente luzatu zen. Bi eskuez heldu zion baranda beltzari.

– Hori hementxe geratuko duk.

Eztulak eman zion Mateo Vallejori atzera.

– Tabako tzar hau!

Burua Abra kanporantz altxatu zuenean ulertu nuen ez zirela Luz ari.

Serenity Star zamaontziak egunak zeramatzan aingura bildu gabe.

–8–

Baziren ordurako lau hilabete Serenity Star Abran zegoela. Venezuelatik heldua zen, ongarria bodegetan. Anberesera zihoan portua jo behar izan zuenean makina matxuratua. Hala heldu zen eta han segitzen zuen denboragarrenera, moilara ezin atrakatuta, Urbano Peñak hatsa bota zionean Mateo Vallejori kolkora:

– Hori hemen geratuko duk.

Erdiz erdi azertatuko zuen.

– Hemen geratuko duk –errepikatu zuen–, sabel barrenaz hondarra jota itotzea erabakitzen duten japoniar balea horietako baten moduan.

Zaila ere ez zeukan, Luren oroitargazkiarekin aitite Mateoren etxera etorri eta hori esan zuenerako, bulego onetik zekien Urbano Peñak zamaontziak ez zuela itsasora ateratzeko baimenik. Erratzeko beldurrik gabe zekien ez zuela gainera inoiz izango.

– Eskerrak bodegak behintzat hustu dizkioten.

Bere gelara jo eta berehala itzuli zen Mateo Vallejo, larruzko uhalak zituen prismatiko handi batzuk eskuan.

– Bahitua zagok –jarraitu zuen Peñak.

Urrunduak zitzaizkion une batez Lurekikoak.

– Bahitua?

Mintzo zedin utzi zuen Mateo Vallejok, eskatu gabe erria ziezaiola nahi zuen. Igarri nion.

– Zorrak lepo eta hartzekodunak lepotik.

Hitzik esan gabe pasa zizkidan prismatikoak, inoren laguntzarik gabe aise topatuko nuelakoan Abran zeuden ontzi guztien artean. Begietara ekarri nuenean, neure aurrean hondoratu behar zitzaidala zirudien. Luren errautsak hedatu genituenekо goizak hartu zidan gogoa.

Eztul egin zuen Mateo Vallejok. Kopa hutsa bete zion ostera lagunari.

Molokot eginda enpresak, galdutzat zuen ontzi ugerra, antza, armadoreak. Ez omen zien bidaltzen zitzaizkion faxei eta e-mailei erantzuten, ez zuen telefonorik egundo hartu. Atenasko bulegoa Egeoak ito zuela ematen zuen, Jonikoak jan zuela, Adriatikoa traganarru bihurtu eta betirako irentsi zuela. Mataza gaitza zegoen bildua antza interesen artean, bateko kontsigna agentziak eta zamaren ugazabak, besteko aseguru

etxeak eta itsas agintaritzak... Kontua zen marinelak txori txikirik jaso gabe zeudela azken zazpi hilabetean.

Kontsulatuetara deituta, ezinezkoa bihurtua zen munta hartako arazoari aurre egingo ziokeen arduradunik aurkitzea. Azkenik, ezin zuela legediaren amaraunean ezer egin aitortu behar izan zuen diplomaziak.

Liberiakoa zuen bandera Serenity Starrek.

Liburuan zetorrenaren berdina zuen. Zerrenda zuri-gorriak zituen oihal zikinak, estatuaren sorreratik eredu izan zuen Ameriketako Estatu Batuetakoen irudira, baita lauki azul bat ere ezkerrean. Izar zuri bakarra izatea Liberiakoak berrogeitakaren ordez. «Liberiak lur askea esan nahi du» idatzi nuen koadernoan. Marrak eta izarra, adin horretan bakarrik lortzen duzun doitasunez marraztu nituen orri zurian. Mateo Vallejok bere gelan zuen entziklopedian begiratuta erantsi nizkion orain irakurrita irri-antza eragiten didaten lerroak: «Monrovia du izena hiriburuak, James Monroe estatubatuar presidenteagatik».

Hamalau gizon zeuden ontzi herdoildu hartan gatibu.

– Hamalau gizon –errepikatu zituen bere artean Mateo Vallejok Peñaren hitzak.

Serenity Starren ukrainarrak ziren nagusi, bi moldaviar ere bazeuden, bi aljeriar eta filipinar bat. Kapitainak portura heldu eta aste bigarrengoan alde egin zuen, Amsterdam kanpoaldean, Markenen zuen etxera. Urbano Peñak esanda jakin genituen hauek guztiak:

– Familia duelako hemen zakiagu.

Egun hartan, ahaleginik egin gabe agertu zitzaidan hegazkin bat balkoitik mugitu gabe. Londresera bidean zela egin nuen neure artean, bidaiari berezi bat zuela leiho ondoan. Aireportutik atera eta berehala etzan zen esker hegal gainean bira egiteko. Leihotxotik kapitainaren begiek ur-biltza jo dute, moilako aerosorgailuak, zentral termikoko tximiniak, zama-lanetan dabiltzan ontziak, erregai biltegiak. Lurreratze trena entzun du hegazkin sabelpean gordetzen, eta lasaitu egin da. Abran, eguzkiaren printza gorriek ur azalean dirdira margotzen dutelarik, ontzi mordoxka dago. Nekerik gabe agertu zaio Serenity Star begietara.

Kubierta hutsik dago.

Prismatikoak erantzi eta mahai gainean utzi nituen. Orratzekin, puntuak ezarri nituen buruz osatu nuen mapa mundian. Ukraina Mosku azpian kokatu nuen, Asia ekialdeko irlen anabasa

hartan Filipinak. Aljeria, ez zen gaitza. Eta Moldavia? Bazuen itsasorik non sartu ez nekien Moldaviak?

Etxetik urrun zebiltzan guztiak nolanahi ere.

Berriro eraso zion eztulak Mateo Vallejori. Orduan ekin zion Urbano Peñak, eta ordurako ez dakit bera zen edo pattarra mintzo zena, esanez zer kalte egin dioten ukrainarrek, letoniarrek edota bulgariarrek merkantzia ontziteriari. Haiek bai, baina batez ere Asia ekialdekoek, Singapurkoek, Thailandiakoek, Indonesiakoek, Malaysiakoek, Myanmarkoek, Vietnamekoek, Filipinetakoek. Erreskadan bota zituen herriak, mapa mundiaren zati oso bat eraitsi zuen hitz zantarrokin, langile merkeak zirelako geratu zirela hemengoak behar gabe.

– Jende horren erruz zagok hainbeste istripu itsasoan. Petrolioa nonahi, olioa, gai kimikoak... badakik zer hondamendi? Zergatik eta ez dutelako prestakuntzarik.

Salto egin zion Mateo Vallejok:

– Errua ez duk ba eurena izango!

Zurekin aritzen zenean ikasi nuen, betarteagatik nekien noiz ezin izaten zion gehiago eutsi.

– Geu hasi ginenean ez genien halaxe kendu lanpostua Europa aberatsekoei?

– Guk ikasketak genitian! –defenditu zuen bere burua Peñak.

– Soldatak lotsagarri jaitsita!

Eskerrak eman nituen ez zeundelako elkarrizketa hartan, bestela badakit Mateo Vallejori egingo zeniokeela kontra, ez ausaz berarekin bat ez zentozelako, ezpada ordurako, nik zu bezala, zuk ere zeure aita begien aurrean ikusi ezin zenuelako.

Lu hil aurretik Peñak beti galdetzen zuela zugatik aitortu zidan behin Mateo Vallejok. «Hirea bai ondo enpleatua», esaten omen zion, Luz galdetzen zionean bestela erantzuteko, «ez nire alaba hori bezala, firin-faran munduan barrena, egunero opor balitz bezala».

– Etxean geratu izan balitz...

Neure aurrean errepikatua zen:

– Hala izatera bizirik genikean.

Harena izan behar zenuen semea.

Izua zabaltzen hasia zela gaineratu zuen Urbano Peñak. Izua, ontzia egoera horretan egonda bagak aingura katea eten eta jitoan haitzen, moilen, hondartzaren kontra bultzatuko ote zuen. Ordurako garbitzen hasia zen itsasertzean utziko ote zuen erraietan zeraman kaka guztia.

– Zer esan duk daramala?

– Hustu dutela esan zidatek, baina nork jakin... gasolioa behintzat izango dik. Anberesera zihoan...

Elkarrizketa bere arrastoan sartua zen atzera. Ontzi barneko bizi baldintzei buruz jardun zuten luzaroan, ura amaitzen ari zitzaiela, laster zirela argirik gabe. Arazoak barre mingotsa eragiteko moduko tolesdurak zituen. Marinelek zazpi hilabeteko soldatak zituzten kobratzeko, baina ontzia utziz gero galdu egingo zituzketen eskubide guztiak, baita zor zitzaiena kobratzekoa ere. Hala zabaldu zuten itsas sindikatuetatik.

Eta zuloa handituz zihoan. Azken asteetan marinelak ontzitik lehorrera eta lehorretik ontzira eraman izan zituen lantxa konpainiak, zor zitzaiena egundo ikusiko ez zuela pentsatuta, «zerbitzuak etetea» erabaki zuen. Kasua hartu orduko abandonatzen zuten abokatuek. Portuko agintaritzarekin ere konpondu ezin. Beste horrenbeste makina konpontzen ahalegindu zen enpresarekin.

Dirurik ezean dena da arazo.

– Egoera honetan inork ez ziek lagundu nahi. Normala.

Mateo Vallejo ez zegoen barkatzeko:

– Laguntza ematea beste zerbait zelakoan nengoan.

Itzalak luzatzen hasiak ziren. Egunak sano laburragoak zetozen, eta arrastiak ilundu egin zituen aurreko etxeko leiho berdexkak. Aspaldiko partez aro ederra genuen. Konturatzerako bi ordu pasa generamatzan balkoian, Luren memoriarekin hasieran, marinel abandonatuen lorratzean gero.

Hitz egin zuen moduan, Mateo Vallejok aurrez ere bazekiela zerbait ondorioztatu nuen, ez zuela berria Urbano Peñak esan ziona. Zamaontzien artean ibiltzera eraman ninduen larunbat hartan nik harrapatu ez nuen zerbait ikustera joana zela sartu zitzaidan buruan. Harritzekoa zen, urrun gelditzen zen Urbano Peña ume bat bezala negarrez ikusi nuen unea. Beharbada ez zela inoiz gertatu oldozten hasia nintzen, neuk asmatua zela dena.

Ipurditik oratu zion edontziari, hatz artean ibili ostean zegoen bezala uzteko. Hasperen egin zuen.

– Martxa egin beharko diat. Ez diat andrea bakarrik utzi nahi...

Hutsago geratu zen etxea. Galdua zuen usaina itzuli zen berriz. Tripaki-lainoak gorritzen ha-

siak ziren. Zigarro bat piztuko zuen Mateo Vallejok. Mahai gainekoak batu eta balkoiko atea zarratu genuen. Eguzkia apaltzen zelarik, nabarmen hozten zuen etxean. Zer egin nahi nuen galdetu zidan. Ordurako ez genion elkarri zutaz galdetzen, itzal bat baino ez zinen, gure bizitzetan eguna amaitzera gindoazela soilik sartzen zena. Institutuko beharrak nituela erantzun nion. Osteratxo bat egitera zihoala esan zidan, farolerantz. Zabor poltsarekin ateratzen ikusi nuen. Gelan sartu eta liburuak zabaldu nituen ohe gainean.

Zenbat denbora pasa zen, ez dakit. Sartzen entzun zintudan. Sukaldeko irratitik zetorren erle hotsa sumatu nuen gero. Bakarrik ari zinen afaltzen, auskalo zer estadiotan epaileari txistuka ari ziren kaiku haien artean. Piper gorrien usaina, arrautzena gozoago. Zazpi-sukalde bihurtzen hasia zinen ordurako. Ez uzteko platerak garbitzeke gogorarazi nizun. Balkoira atera nintzen argiak ikustera. Serenity Starrek ere piztuta zituen bereak.

Ilargi etzanak sehaska zirudien.

Luz oroitu nintzen, barkuen arteko argi artean hegan oraindinoko, udagoieneko haizearen konpasean. «Serenity Star», apuntatu nuen koa-

dernoan. «Eta baten bat hilko balitz izar horretan, zein zerutara joango litzateke?».

Horrelako txorakeriak idazten dira hamahiru urterekin.

Gau hartan Moldavia non dagoen topatu nuen atlasean. Aitite Mateok eta Peñak balkoian izandako elkarrizketak hartu zidan lo atarikoa. Serenity Starren, loak hartu ez bazituen, zure futbol partida bera jarraitzen ariko ziren seguru asko.

Moldaviak ez du itsasora irteerarik.

–9–

Hori du aspaldi joandako egunak urteetara gogoan berregiteak, benetan nekeza egiten dela bata besteagandik bereiztea, hain dira antzekoak. Puzzleko piezekin legez, berebiziko neurria hartzen du nola ez dakizula heltzen zaizun ñabardurak, xehetasunik txikienak. Nola esango nizuke, nahikoa da irudi bat egoki finkatzea ondorengo bi edo hiru gertaera uztartzen laguntzeko. Bat, esate baterako: Mateo Vallejo kanpora begira zegoen egunonak eman nizkionean. Itzarririk sumatu nuen gauerdian, zapatilak tarras, karrajo ilunean barrena atzera-aurrera. Zigarroa zeraman eskuan orduan ere, ipurtargia ikusten nuen hegan ateko zirrikitutik.

Zu joana zinen jaiki nintzenerako. Oharra utzia zenuen sukaldeko mahai gainean, bi billeteren ondoan, lehenago irten behar izan zenuela eta barkatzeko, metroz joan beharko nuela ikastetxera. Lau egun lehenago eskatu nizun dirua hileko bonoa erosteko.

Zuk iratzartzen zenidan, nork ba, barnean tarteka esnatzen zitzaidan pataria. Ezin ukatuko dizut dohain hori.

Lanparra ari zuen ostera ere, landur xehe, geldo, aspertua.

Beti da horrelako egun bat.

Mateo Vallejok hartu zuen telefonoa. «Ama» esan zidanean jakin nuen ez zitzaidala goiz hura luzaroan ahaztuko. Amak ez zuen ordu hartan egundo deitzen, are gutxiago astegun buruzuri batean.

– Zelan zaude.

Ez nion aurrenekoan ulertu, ospitalean zegoela esan zidan, baina lasai egoteko, ondo zegoela. Laster deituko zuela berriz. Gogortuta lagatzen zaituzten elkarrizketa horietako bat izan zen, hitz egiten duenak esan duena baino askoz gehiago esan nahi duelakoa geratzen zaizun zera hori.

– Zu ondo?

Umetokia hustu behar ziotela jakin zuen eguna izan zen. Berehala prestatuko zuten ebakuntzarako. Gerora esan zidan goiz hartan heriotza ikusi zuela, horregatik hartu zuela deitzeko erabakia. Benetan larritu zen. Beti damutu izan zaio telefonoa jo izana.

Londresko ospitalea nuela buruan ikusi nuen Mateo Vallejo kalerako janzten. Euritakoa lotzen ari zen, amagatik arduratu zen. Berak esanda nekien azken puskak biltzekoak zirela lokalean. Bertara joan ohi zen Serenity Starreko marinelen laguntza antolatzen hasiak zirenetik. Urbano Peña etxean izan eta gutxira euri asea baino arinago zabaldu zen Serenity Starren egoera. Zamaontzia ez zela handik aterako eta arrisku bizia zela, berehala heldu zen prentsa erredakzioetara. Kazetariek mira eraginak ziruditen gizon abandonatuen istorioarekin. Irratietan izan zen laguntzeko deia egin zuen esataririk. Janaria eskatzen zen, garbiketarako gaiak. Aurrekariak eman ziren, enpresa arriskutsuenen izenak, ontziak eta banderak. Tripulazioa ezkutatu egiten zela esan zen, ez zuela hitz egin nahi. Portu agintaritzatik ez zitzaiela kubiertara igotzeko baimenik eman ere zabaldu zen. Baita marinelek ez hitz egiteko agindua zutela ere, ezer lortuko bazuten.

– Bazatoz?

Elkarrekin atera ginen kalera. Umeletik zekarren, hormak melatu zituen mendebalak. Ni beste larritu zuen Mateo Vallejo amaren deiak. Espaloia zapaldu orduko ekin zion lehenago au-

sartu ez zena galdetzeari, ea nork hartua zuen ama etxean.

– Nola du izena?

– Katty.

Ea ezagutzen nuen. Eskertu nion esku lakar hura besagainean.

– Hegazkin billeterik atera behar dugu?

Sorbaldak harrotu nituen. Ez nuen asmatu baietz esaten.

Irakaslea gaixorik zegoela eta klasera beranduago sartzen nintzela azaldu nion Mateo Vallejori, lagunduko niola. Gezurra. Zuk baino gehiago zekien hala ere zertan nenbilen. Erabakia nuen lokaleraino joatea berarekin.

Geltokitik beherantz hartu genuen, adreiluzko etxe batzuetara, errepide nagusira heldu baino lehen eraikin dotoreago batzuen atzean ezkutuan zirenak. Berriro joanda kokatzen asmatuko ez nukeen behe solairu bateraino sartu ginen. Espaloiak itotzen zuen arbola mehartuari lotua mendiko bizikleta bat zegoen.

Hiruzpalau lagun ziren barruan, ezagutzen ez nituenak. Metalezko apalategi berun kolorekoetan, kartoizko kaxa gutxi batzuk, zinta beltzez zarratuak. Plastikozko poltsak, behegainean utzitako olio potoak eskailera baten ondoan.

Nik pentsatu aldean hutsa zegoen bildua. Aurkeztu egin ninduen Mateo Vallejok, buruaz agurtu nituen denak. Emakume bizkor bat zebilen guztia antolatzen. Ez nuen ezer esan, gehiago espero omen zituzten, azken eguna izanda. Caritasekoekin hitz egin zuen galdetu zion Mateo Vallejori gizonetako batek. Orduan ikusi nuen aurreko egunetan ez bezala barrez, «oraingoan uste diat klubeko egingo nautela» edo esan zuen.

Goibeldu egin ninduen lokalak. Ama etorri zitzaidan, Londresen ospitaleko egongelan jakizu zeren kontra borrokan, zeren alde. Hotz nituen oinak. Arropa gutxirekin irten nuela ohartu nintzen, ez nintzen etxeraino itzuliko baina.

Tertzioz iritsi nahi nuen metrora. Klasean sartu aurretik deitu nizun amarena kontatzeko, falta zinela esan zidaten lantokian. Harritu egin zen telefonoa hartu zidan emakumea zure alaba nintzela azaldu behar izan nionean.

Hurrengo egunean, kiosko aurretik pasatzean, kalerantz eskegita zituzten egunkarietan ikusi zintudan. Azalean agertzen zinen, kasko zuri bat buruan, sailburuaren ondoan. Babes ofizialeko etxebizitza batzuetako obrak gainbegiratzera joanak zineten. Eta kameren bila. Amaitzen

ari ziren, laster zozketatuko zituztela. Poztu egingo zinela pentsatu nuen, propaganda hura ondo etorriko zen menturaz gorantzago egin eta, espero zenuen bezala, diru sarrera handiagoak izateko.

Oroitzen zara etsitzen hasia nintzela sumatuta, zer esaten zenidan?

«Geure etxea behar dugu, baina ez edozein».

Egun hartan bertan helarazi zitzaien Serenity Starreko marinelei jaso ahal izan zen hazkurri guztia. Hunkitzeko indarra zuten istorio txikiekin berdintzen nuen zugatik sentitzen nuena. Eskolatik oinez etorri ziren ikasleena, bi kilo kafe eta dilistekin. Metroko langile batzuek euren artean bildutako sosak eraman zituztela, egoki iritzitakoa eros zezaten. Alarguntza erretiroa hartzen zuen emakume bat ere agertu zen, barkatzeko, ezin zuela gehiago eman eta kartoi bete tabakorekin. Zuretzat ez zegoela marinel behartsurik, garbi utzi zenigun. Ez zenidan egundo ezer ahomentatu behintzat.

Marea gorarekin joan ziren kartoizko kutxak eta poltsak hartuta Serenity Starrera. Itzuli zain, zortzi bat laguneko taldea elkartu ginen moilan. Biribilean berbetan, elkartasunaz hitz egin zen, egoismoaz, kontsumismoaz. Besteei bakarrik ez,

nola aldatu zitzaigun denoi ere bizimodua joan deneko urteetan.

Gau hartan, zu eta biok afariko platerak harraskara jasotzen ari ginela, bost argi gorri ikusi genituen, banan-banan izarrik gabeko gaua zulatzen. Serenity Starreko marinelak ziren.

Eraman genien apurra ospatzeko piztu zituzten azken bengalak.

Nire gomutan, denboraren napalmak ez du iritsi orduan atera zitzaizkizun hitzak erabat kiskaltzea:

– Mozkortuta daude.

–10–

«Burdina. Herdoila. Jendea» idatzi nuen koadernoan, begiak tinta-bideari jarraiki. Ohar hutsean geratu ziren orduan, haria emateko gauza ez-eta. Orain dakit zer esan nahi nuen: «burdina ez, jendearen arteko elkartasuna da herdoilak jan duena». Horretarako bizitzak berari zegokiona kendu beharra zuen, eta nik susmoa besterik ez nuen. Denborak aterako zuen esaldia.

Orduko lerroei erreparatzen diedalarik, harritu egiten nau neure idazkerak. Txikia da letra eta, elkarren beharra balute bezala, gertuegi daude hizkiak. Arnasa bila goiko lerrora jotzen dute marra bertikalek, edo behekoan sartzen sustraiak. Letrak harrotu gabe idazten nuen sasoi hartan. Orain ikusita, bolumena falta dutela ohartzen naiz.

Bakanka garatzen nituen zirriborro zoragarriz ditut beteak koadernook. Poemaren baten hasiera idazten nuen hemen, egundo amaitzen ez nuena; eta publizitate txatalak han: «Piztu zure sua, amatatu zure egarria». Amak hala erakutsita, baita hilekoaren egunak ere, neuk bakarrik

ulertzeko moduan markatuak. Tartean, edozeri buruzko datu teknikoak. Inoiz marrazkiren bat, presaka eta boligrafo beraz egina. Edo kraionez, lasaiago hartuta. Mundua zen azken beltzean, eta ez nion guztiz joaten utzi nahi. Ez dira egunerokoak, baina ordukoak berregiten lagundu didate anabasaren koadernook.

Bere garaian, ozeanorik beltzena argitzeko limurrarazi zuten ontziolako arranpan behera Serenity Star: 123 metro luze zen, eta 18 metro zabal.

Abran eman zuen denbora hartan, inork galdetu gabetanik maiz, zirenak eta ez zirenak ikasi genituen Serenity Starrez. Hogeita hamar urte beteak zituela, esaterako. Ikaragarri ez izanda ere, urte asko zen edonola zaindu gabeko zamaontzi batentzat.

– Zaude.

Astiro ekin zion motor-txikiak barkua inguratzeari. Uhararen bitsa gibelean, lema gainean okertu zen Mateo Vallejo tur-turrean gindoazela. Esan dizut lehen ere, ontzi fantasma zirudien, nik dakit ba, holandar errariarena, behelaino artean agertzen zena arrantzan zebiltzanak izutzeko. Karelean ez zen inor ageri. Zubia hutsik zegoen. Banda batean zintzilikatutako izara zahar

batek soilik salatzen zuen norbait ibilia zela kubiertan. «sos» zioen pankartak, lehorretik ez irakurtzeko moduko letra beltzez.

Gauza jakina zen Serenity Star deitzen zela, baina lehenago Pegasus izan zuen izena, ozta irakurtzen zen aurreko izenaren itzal zurikara berriaren azpiko azalean. Komenientziaren legearen arabera, ohikoa zen deiturek luzaroan ez irautea. Panamar banderadun Blue Dragon zena atzo, Estrella del Sur izan liteke bihar, eta Boli Kostan izan folioa. Abrara heltzen ziren ontzi izenak ere jasotzen nituen nire entziklopedia txikian, oihartzun ederrekoak denak: Dorsa Sorby, Thieng Cung, Iztacalco, Martina Barros, Mare Nubium 2, Kalender, Ar Bannour.

Helizearen gaineko baretasun larritik urrundu eta ababorrerantz jo genuen. Burdina entzun genuen hanpatzen. Handitzen bezala, halako hots huts bat biltegietan.

– Dilatazioa –esan zuen Mateo Vallejok ni lasaitu nahian.

Berez ez geneukan han egoterik. Galarazia zuten arrantzarako motorrek eta potinek zamaontzien artean ibiltzea.

«Egunen batean handiren bat pasako da», gaztigatu zuen portuko agintaritzak prentsa

bidez biztanleria. Egunak zeramatzaten beldurra zabaltzen, «ontzia dagoen bezala egonda, baga badator, edozein egunetan izan lezake erregai isurketa bat. Serenity Star ustelduta dago. Ezin da inolaz ere hondamendi ekologikoaren arriskua baztertu».

Ardurak elkarri pasatzen aritu ziren. Politika azken batean. Zer da ba politika, jendearen izuarekin jokatzea besterik?

Arnas hots hura krosko barnetik.

Dilatazioa.

Bizirik zegoela tematu nintzen, hauspo haren hatsak mantentzen zuela burdina herdoilduzko Moby Dick hura azalean. Nahikoa hurreratu ginela iruditu zitzaidanean tosta gainean ertzeraino egin eta ahalik gehien luzatu nuen besoa. Eskua gero, atzamarrak, eta hatz muturrak azkenik, mamiez ugerra ukitu ahal izan nuen arte.

Ospitale zuri batera umetokia erauztera heldutako ama balitz bezala laztandu nuen ontziaren azal latza.

– Ooooe! –egin nuen oihu.

Gelakideen antzera, orka, izurde, balea bat laztantzen ari nintzen neu ere. Argazkirik ez izatea, horra tamala. Hartan nintzela, burdina hezearen usaina sentitu nuen paparrean zabaltzen.

Argia olio gainean irristaka. Gasolio hatsa. Ordurako, eta joko zuen beldurrez, atereak zituen motor-txikiko defentsak Mateo Vallejok, txikot zaharrez lotutako lambretta gurpil-azal batzuk. Goma bustiaren sunda. Agindutakoa betez, indar egin behar izan nuen motor-txikiak Serenity Starren kroskoa jo ez zezan.

Hondoratze arriskua berehalakoa ez bazen ere, aintzat hartzekoa zela sinetsarazi zitzaigun. Norbait benetan arduratua zebilen hipotesi okerrenak bolo-bolo zabal zitezen. Nahikoa omen zen itsasoak zakartuta aingura haustea, barkua ume-pilota bat bezala haitzen, moilaren, hondartzen kontra jaurtitzeko.

Horma ugertuan gora luzatu nituen begiak. Umea nintzen atzera, esku epel bati oratuta Londresko metroan, exotikoak zitzaizkidan tunel adreiluzko antigoaleko haietan barrena.

– Ooooe!

Gabon haietan elurra egin zuen Ingalaterra hegoaldean.

Hotz egiten zuen. Ubelduak nituen eskuak. Haize berdeak azkordinak aterako zizkidala esan zidan Mateo Vallejok ondo babesten ez banituen, minberak zirela. Orduan ez nion ulertu, ez nekien zertaz ari zitzaidan. Bilin-balaunka hasi zen

itsasoa, eta gu ondoren jaioberri baten antzera haren altzoan. Atoiontzi bat zen, eguna bezain beltz abiada bizian gugandik hurre pasa zena. Kanpo alderantz zihoan, muturretik aurrera. Patroiak eskua altxatu zuen. Doi erantzun zion diosalari Mateo Vallejok.

– Goazen etxera, Nerea.

Ez zuela praktikoak salatuko aitortu zidan, lasai egoteko horregatik, hark ere bazuela zer ezkutatu, baina itzuli beharra genuela, ez zuela ni gaixotzerik nahi.

– Zertara etorri gara berriro?

Ezentzunarena egiten ari zen ahotsa aditu genuenean. Goitik zetorren. Pankarta parean karelean lotsor, keinuka itzultzeko eskatzen zigun gizon bat ageri zen.

– Lehorrera? –esan zuen behin eta berriz, ulertuko ez genion beldurrez–. Lehorrera?

Geurera ekarri beharrik gabe arrimatu zuen ostera motor-txikia Serenity Starrerantz Mateo Vallejok.

– Esaiozu arin jaisteko, eramango dugula.

Esandakoa itzuli nion gizonari. Egoteko keinua egin eta desagertu egin zen, handik bi minutura agertzeko poltsa handi batekin egurrezko zurubian. Oraindino ikusi egiten ditut Edwinen

oinak dardarka mailetan behera. Petate militarra ezin zakarrago erori zen nire ondora.

Irribarre egiten zuen. Gasolio usaina zuen berak ere.

Ehun aldiz eman ez bazizkigun eskerrak moilara bidean, ez zigun behin ere eman. Proa gainean jesarri zen. Gorputz erdia atzerantz eginda, hortzak erakusten segitu zuen. Orduan ulertu nuen horrexen bila joanak ginela.

– Edwin Macapulay –esan zuen gizonak.

Ez Mateo Vallejok ez nik eskatu gabe, kartera zabaldu zuen, azalean zeukan argazkia ateratzeko plastikopetik. Emakume gazte bat zen, haur txiki batekin.

– Emaztea, alaba –esan zuen atzamar estua aurrena emakumearen buru gainean jarriz eta gero umearenean.

Argazkiaren atzealde osoa hartzen zuen landare handi bat zuten biek gibelean. Altzoan zuen andreak umea, eskuetatik oratuta. Hogeita bost bat urte izango zituen amak. Urtebete askora jota seinak. Ez da egia ez daudenak gogoratzeko darabiltzagun argazkietan jendea beti barrez dagoenik: biek ziruditen goibel.

– Ez dut alaba ezagutzen.

Neure eskuan utzi zuen erretratua. Neuri atera zitzaidan irribarre izoztua orduan. Errepikatzeko eskatu nion mesedez, ez niola ondo entzun.

– Haurra, ez dut inoiz ikusi.

Lema askatu gabe bokalerantz segitzen zuen Mateori Vallejori itzuli nion Edwinek esandakoa. Berba egin beharra zuen:

– Dakarren nengoen Lizawin jaio zenean. Lanik gabe, ontziratze zain, ezagutzen ez nuen turista frantses mozkor batek ordaindutako garagardoarekin ospatu nuen haren jaiotza. Laster beteko du urtebete.

Larregi ari zela aitortzen begitandu zitzaidan. Haizea murtxikatzen balego bezala ebakitzen zituen hitzak, hartara hobeto ulertuko nuelakoan. Argazkia karteran gorde eta haize kontra jarri zen, goizeko hotzak aurpegia laztan ziezaion. Leiarrak zituen begiak.

– Aitona duzu? –galdetu zidan isiltasunak erreta.

Baietz egin nion buruaz, barruak txartuta neuk ere, aitite Mateo nuela atzeko gizon mutua. Eskuarekin giderrari eraginda moteldu zuen motorra honek. Heltzen ari ginen. Edwin jaiki egin zen tostatik, neke handirik gabe jaso zuen peta-

te astuna. Jendea zebilen moilan. Sandalia-hutsik zegoen Edwin. Txikotaren begizta pasa zuen noraitik.

Ontzira nola itzuliko zen galdetzeko agindu zidan Mateo Vallejok.

Konponduko zela erantzun zidan Edwinek.

– Hago.

Tabakoa atera zuen Mateo Vallejok alkandorako poltsikotik. Zigarro bat eskaini zion. Ez zuen kiskeroa ateratzeko betarik izan.

Esku zabaldua goratuta agurtu gintuen. Ez dut akorduan Mateo Vallejok eta biok zertaz hitz egin genuen etxera bidean. Edwin baino ama nuen gogoan atzera. Zor zidan dei bat. Zure autoa ikusi genuen estrata ertzean aparkatua, baina ordurako ez ninduen horrek ere pozten.

Oherakoan, Edwinen izen-abizenak idatzi nituen koadernoan, baita alabarenak ere. Loak atlasa zabalik eta Filipinetako oihan lore ederrez jantzi batean nenbilela bahitu ninduela esatera nindoan.

Zertarako edertu iragana, ordea.

–11–

«Zerk batzen du jendea elkarrengana?».

Iragarkia paisaiak erakusteko egina da. Innuit bat agertzen da, igloo barruan gutuna idazten. Tuareg bat ondorengo eszenan, hondar gorritan oinez. Nondik ez dakigula, Mikhail Strogroff da basamortu erdira iristen dena, zaldia leher egina. Offeko ahotsak dio:

«Posta zerbitzu egoki batek?».

Orain tuarega da oasiko bulego batetik telefonoz deika ari dena. Innuita ere herri batera iritsi da, baina ezin entzun dezake ezer. Zarata batean ari dira ostatuan diren guztiak. Ugazabak Alexander Graham Bellen antza du. Eta ahotsak:

«Telefono konpainiarik onenak?».

Hirugarrengoan, innuita hondarretan gidari ageri da, haizea bezain arin doa izotz gainean tuaregaren automobil beltza. Soluzioaren unea da:

«Mercedes. Distantzia jendea elkartzeko sortu zen».

Telebista itzali eta hortzak garbitzea erabaki dut.

Oraingoxea da, baina lehendik ere bizi izan dut une hau. Noiz ikusi dut iragarki hau? Gaur? Orain hamabost urte? Ez zaizu inoiz gertatu? Bizi izan duzun une bat ezaguna egitea, lehendik bizi izan bazenu bezala?

Jarraipena da bestelakoa. Oherakoan, orduan ez nuen inor zain. Kaleko argiek behetik gora sartuta zeharkatzen zuten leihotik sabairainokoa, halako orban gorrikara bat, tarteka batetik bestera labaintzen ziren pinporta beltzez zikintzen zena. Ohazal gainean etzan nintzen euriaren emana aditzera. Argi nabarrak apalategiak ere janzten zituen, hormetan jarriak nituen posterrak, zoru zati bat, oinetako bat ilunpera kondenatuta. Berehala jaiki nintzen. Mahaira hurreratu eta aurreneko tiradera zabaldu nuen, narrasen nuena. Urduri baztertu nituen gainean ziren paper tolestuak, gutunazalak, diru xehea eta hamaika txipi-txapa tropoiluan. Hondarretan bezala sartu nuen eskua izenik gabeko anabasa hartan. Ezer ez. Ate ertzeraino hurreratu eta argia piztu behar izan nuen. Ez zitzaidan zaila egin. Han zegoen. Argia amatatu eta ohe gainean etzan nintzen, argazkia eskuan.

Londresen atera genuen hura, gogoan duzu? Denok gaude. Nik zortzi bat urte ditut, mihia

kanpoan eta begiak okertuta agertzen naiz, txoroarena egiten. Orain bai?

Usadio hartua zenuten Mateo Vallejok eta zuk, bata bestearen ondoan ez egotearren seguru asko, etxetik kanpo errari ibiltzeko gauaren atarikoa. Bakarrik ematen nituen arrats haietako batean izan zen. Ohi bezala, aitite Mateo heldu zen aurrena. Giltzari bira emateko eran dago jakitea nor den ate ostean agertuko dena. «Gabon» doi bat esanda gorde zen gelan. Oinetako bustien apo-hotsa korridorean barrena. Elkarrekin afaldu genuen, amaz aritu ginen, juxtukoa. Telefoniako iragarki iraingarri harexekin erabaki nuen oheratzea. Irakurtzera nindoala esan eta ohe gainean etzan nintzen. Ez nuen libururik zabaldu. Amaren ebakuntzaren kontuarekin, auzoan nerabilen irakurtzeko gogoa.

«Zergatik leitzen dun ingelesez?».

Argazkiari eman nion begia, banekiena aurkitzeko. Ez aspaldi errepasatua nintzen erretratu hartako aurpegiak, elkarrengana batutako jendearen begiradak, ondokoari eusten dioten eskuak. Ama joan zenetik batez ere.

Gazteago agertzen gara denok. Alai gaude itxuraz. Uda da, jendearen arropetan da ezagun. Atzean, enkoadreak erditik moztuta, London Eye

ikusten da. Altzairuzko begi handi bat dirudi, handik ez hainbestera elkarrekin zoriontsuagoak izango ez ginenak zaintzeko ezarria.

Gero eta aspertuago itxaroten, alferrik nituen ingeleseko irakurketak ere, ordea. Egoten ikasi, hala agintzen nion neure buruari orduan. Zaila ez da, proba zenezake: ohe gainean etzan, begiak itxi, besoetako odol errekak sentitu eta egon. Egon etxeko zaratei erreparatzen, nola pasatzen den moto bat leihopetik, norbaitek uraren bonbari ematen diola komunean, zoru gainera jausten den koilaratxoa. Gauak edozein etxetan sakabanatzen dituen hamaika hots horiek jaso, sailkatu eta gorde. Bilduma bat ere osatu nuen denborarekin. Neure-neureak zirenak, arnasaren konpasarekin nahasten ziren eguneroko hotsen elemenia bat.

Ospitaleko ohe batean banengo bezala.

Gauerdian iratzarri nintzen, edredoi gainean hotzak eta jantzirik. Zenbatgarren aldia zen? Garai hartan sarri antzean gertatzen zitzaidalakoan nago, ohe gainean arropa eta guzti lo gelditzea, diot, edozer zela-eta gertu, etxetik presaka irten behar banu bezala. Belarriak zorroztu nituen. Hotsik ez. Mutu zegoen etxea. Ohetik altxa nintzen. Olioztatzea behar zuen ateak. Gauaren

besteko iluntasunak hartu ninduen. Ura edatera joan nintzen sukaldera. Oinen taupa-taupak egurraren gainean. Uraren xuxurlatzea hodietan. Edontzia ttorttorka betetzen.

Ez nekien etorria zinen.

«Laster joango gara geure etxera, maitea».

Egunak elkarren antza hartzen hasiak ziren aspalditxotik, baina ordurako apaldua, baretua, amatatua zegoen dena. Etsita bizitzea ohitzea da. Hilobi neurriko oheetan lo egitea bezalaxe. Eta ordurako, badakit ohartua zinela, gusturago nengoen aitite Mateorekin zurekin etxe berrian izan nezakeen balizko bizitza hartan baino.

Gelara itzuli eta ezin nuela esaldi hura jaso gabe pasa pentsatu nuen. «Hilobi neurriko oheetan lo egitea bezalaxe» idatzi nuen. Erantzi, argazkia gau-mahaian utzi, eta ohean sartu nintzen.

Lo hartu berritan izan behar zuen. Erlojuari begiratu nion. Nor ote zen ordu hartan telefonoz deika? Izuak hartu ninduen. Izara muturrari oratu eta begiak gorde arteraino estali nuen aurpegia. Izara aurrena, edredoia ondoren. Lau bat aldiz jo zuen. Bost ausaz. Eta hotsak, erregistraturik nituen hots haiek, ate bat aurrena, bigarre-

na berehala. Etxean zeunden beraz. Aitona zu baino lehenago iritsi zen telefonora.

– Nor da? –entzun nuen Mateo Vallejo.

– Nor izango da ba? Ez duzu zenbakia ikusten ala? –egin zenion zarata.

Ukondoen gainean doi bat tentetua soina, entzuten ahalegindu nintzen. Leihotik, zeru atal bat ikusten zen, argi-ilunetan.

– Eta?

Orain zu zinen hizketan ari zinena. Luze egon zinen.

– Ez dut uste, baina esango diot. Zaude lasai.

Gero, badakit eztabaidan aritu zinetela, Londresen ateratako argazki hartan bezala entzun egiten nuen aitonaren eskua zure eskumuturrari eusten, ez orduan bezain zoriontsu, baina esku zahar bat zen beste gazteago bati heltzen, uzteko bakean, lo nengoela, uzteko bakean loak abandonatu eta goizalbak iratzarri arte. Eskola nuela hurrengo egunean.

Oinak nire gelarantz sentitu orduko gorde nintzen ostera ere izarapean. Maratilaren negarra.

– Nerea?

Begiak bildurik nituen, zure eskua sentitu nuen ohazal gainean nire oinaren bila, orkatilatik leunkiro eusten:

– Nerea, esnatu!

Eta zure gorputza pultsuan nirearen gainean, ohea alderik alde zeharkatzen, gau-mahaitxoko argiaren etengailua aurkitu eta betazaletan argi ahul bat agertzen. Esaten dutenez umekiek amaren sabelean direla sentitzen dute argitasun iragazi hori.

Lo plantak egiten zabaldu nituen begi biak. Ukondoaren gainean bermatu nuen pisu guztia.

– Zer pasa da?

Negargarri zeunden. Ileak nahasi, elastiko ezain hura, hiru egun neramatzan zu ikasi gabe. Atalasean zegoen Mateo Vallejo, sorbalda atearen kontra, berbarik atera gabe.

– Amak deitu du.

Zer ordu zen galdetu nizuen, zer ordu zen nahi nuen jakin. Gau-mahaira begiratu nuen, banekiena ikusteko. Han geunden denok, argazkiko aurpegiak pozarren nituen beha. Eta banekien zer esango zenidan. Horregatik begiratu nion ostera ere fotoari. Ordurako bost axola zitzaidan zuk ikusiko zenuen, durduzatu egin ninduten amaren aurpegierak. Ama eta biok elkarri

begira ageri zineten, guztion aurrean kokoriko, eta zure sorbaldan nire eskuak.

– Badakit zer esango didazun.

Zotinka ekin nion. Besarkatu egin ninduzun. Aurreneko aldiz ez dakit zenbat denboran, estutu egin zintudan. Gezurra dirudi, behar nuen zure usaina.

– Nerea, esnatu!

Ez nizun ezer esan, ordea. Begiak zarratuta jarraitu nuen, zure deiei entzungor. Gorputza gogorturik, orkatilari loturiko eskurik ez balego legez. «Utziozu» ziotsun aitite Mateok atetik zuganaino inguratuta, «alferrik da gainera-eta, utziozu bihar arte». Egia da ez zinela gehiegi ere saiatu, hiruzpalau «Nerea, esnatu!» baino ez. Ostean, ez zenuen argia piztu, eta eskua bera, orkatilari loturiko garroa, handik lasterrera bildu zenuen.

Izarapean atea zarratzen entzun nuen, eta bion oinak sukaldera bidean. Zertaz aritu zineten, badakit. Eguneroko martxak zuen ezarria protokoloa. Zu kalean izango zinen ni jaikitzeraako, lanera bidean, sailburuaren ondoan babes ofizialeko etxe gehiagoren inaugurazioan, etxeak eta etxeak. Amaren tokia hartzen hasia

zen norbaiti masaila laztantzen bestela, nik dakit ba zertan.

«Distantzia jendea elkartzeko sortu zen».

Mateo Vallejok emango zidan berria, ez zuk, ebakuntzatik ondo atera zela ama. Mateo Vallejok argitu beharko zidan hegazkinena, ez zuk, ez zela erraza plazarik aurkitzea nahi zen egunerako. Mateo Vallejok esan beharko zidan, ez zuk, lasai egoteko, joko zela beste ate bat.

Horrexegatik egin nuen bestea imajinatzera. Zuk deitu eta ni esnatu egiten nintzela, ikusi egiten zintudala, orain inon aurkitzen ez dudan Londresko argazki hartan bezala, eskua jartzen nizula sorbaldan, nahiz eta hiru egun paseak izan, zure ahotsean hartzen nuela abaro.

Sukaldean, harraska gaineko armairuko atea zabaldu zenuten. Edontzien hotsa mahai gainean pausatzen. Gero, erleen berbaroa atzera, tarteka zure ahotsa nabarmen harrotzen Mateo Vallejorenaren gainetik.

– ...etxe puta honetan.

Atea itxi orduko, argazkia burukoaren azpian sartu eta une batez buruan erabili nuen iragan edertu hura. Negar egiten ahalegindu nintzen. Ez amagatik, nigatik baino. Sabela gogortu

nuen, atzamarrak ahurraren kontra estutu, min egin arte bildu betazalak. Eta ezin izan nuen.

Oilariteak euria ekarri zuen hurrengo egunean ere.

Edo hala gorde da nire baitan behinik behin.

–12–

Serenity Starreko tripulazioa herrian azaltzen hasi orduko ez zen falta izan erauntsi osteko uriolekin izututako arratoiak ikusi zituenik. Baina, oro har, airearen itzal balira bezala jokatu zen hasierako asteetan marinel abandonatuekin. Edwin, aljeriarretako bat eta pare bat ukrainar mozkote izan ezik, gorpuzkera handiko gizonak ziren gehienak. Herrian ikusita, alkandoretan, oinetakoetan, orrazkeretan zen ezagun nortzuk ziren.

«Jende zintzoa dirudi».

Bahametarako egokiagoak ziren atorra koloretsuak eta larru iluneko jakak, hebilladun zapata zabalak, bekokian albo baterantz jausten zen ile sarri argia, beste garai bateko manerak zituzten guztiek.

«Trauskil gizajoak!».

Denborak bere lana egin zuen arte.

Egunetik egunera barnerago, portutik gora, azoka inguruan agertzen hasi ziren, kale artean erakusleihoen aurreetan, erdialderaino iritsita

maizenik, metro-zuloan sartu eta Bilborakoa hartzeko normalean.

Begiekin jaiotzen dela ohartu zen jendea orduan.

«Elektrotresnen eskaparate aurrean, zer erosteko?».

Estua da errukitik ezinikusira dagoen aldea. Halakoxeak gara. Metroko txartela ordaintzen zutelako hasi ziren susmoak, ez hesi mekanikoaren gainetik jauzi egiten zutelako.

«Txori txikirik ez dutela?».

Uriarteren dendan jakin nuen superreko kontainerretan sartzen zirela gauez, bazela izen eta guzti ematen zen dendari abegikorrik, iraungi eta botatzeko janaria poltsetan txukun gorde eta eskura ematen ziena. Erantzuna, atoan iritsi zen. Horrexegatik egiten nion uko inorekin eztabaidan katigatzeari. Mintzo zitezen uzten nien, isiltasunez erantzuteko beti, azkazalei begiratzen nien bitartean, arinago haz zitezen eskatzeko, behingoz nahikoa hazi begi haietan labana gurinetan bezala sartzeko.

«Mutua duk biloba, Mateo?».

Harekin nengoela, ez nuen ondoegi ulertzen entzuten nionean gero eta urriagoak zirela janari sarrerak lokalean, Nazioarteko Sindikatuak ez

zuela asmatzen ate egokia jotzen armadorea soldatak ordaintzera behartzeko, egoera hartan ezinezkoa zirudiela Serenity Starrek zeraman zama edota ontzia bera saltzeak. Kontua da egunek aurrera egin arau hasiera batean sendoa zirudien giza-sarea ahultzen zihoala. Krisia aipatzen zen, nola lagundu besteri etxean dagoenean premia. Eman beharrekoa eman zela, gainera nola segi laguntzen egia bazen hain harro zebiltzala, ikusi zituzten bezala ikusita, eskatu eta ematen ez zienei zemaika.

Etxerakoa ordaintzea zen bestea, hegazkin txartel bana Kievera.

«Mutua duk biloba, Mateo?».

Eta Chisinaura. Eta Aljerrera. Eta Manilara.

Ukrainarretako bi portura bidean etxe ondotik igaro ziren batean, ea hitz egingo nien galdetu zidan aitite Mateok, jakin nahi zuen bazen ongarririk artean biltegietan, behintzat hura saltzeko.

Eta mutuak berba egin zuen.

– Nola heldu zarete?

Errioaren bestaldera luzatu zuen atzamarra gizonetan zaharrenak, zilarrezko katea eskumuturrean. Astiro hitz egiten zuen, urduritu egiten ninduen esaldirik sinpleenak behin eta berriz

errepikatzen zituenean. Zigarroa atera zuen jakako poltsikoan zeraman pakete gorritik.

Ingeles motza zuen.

Itxaroteko keinua egin eta eskuko telefonoa erakutsi zuen, gogo handirik gabe adierazteko nahikoa zutela dei bat egitea nork eraman agertzeko beheko moila ertzean. Lehenengoan isiotu zen kiskeroa.

Lotsorra gaztea zen, ez zuen zirkinik ere egin Mateo Vallejok ahal bezain bizkor beste janari partida bat igorriko ziela aginduta ere.

– Eta gasa. Butanoa, kuzinatzeko.

Aitonaren hitzak itzuli nituen. Ahaleginduko zela dena azkartzen.

– Ea aste honetan bertan bidaltzen dugun.

Esango nuke kostatu egiten zitzaiela esaten niena ulertzen, eta beharbada ez zen hizkuntza arazoa.

Abran, kartoizkoak ziruditen ontzi luzeek ur lohietan ezin geldiago. Itsasaldetik zetorren haizea, muinoen berdearekin nahaste. Zama-moilako garabiek irrintzi egin zuten, burdinazko xaflen danbada entzuten zen portuko zorua jotzen zuten aldiro. Errioan barneragoko moilan, egurra metatzen jarraitzen zuten. Gas biltegiak margotzen ari ziren, osterantzean makaldua zegoen

dena, nahikoa zen kamioien joan-etorriari erreparatzea.

– Eta ongarria?

– Aterea –esan zuen zaharrenak.

Ur putzuak zabaldu ziren zeruan.

– Ura –jarraitu zuen.

Gogotsu tira egiten zion zigarroari.

– Tankeetan duguna kutsatzen hasia da, lastakoarekin nahastu zaigu sukaldean erabiltzekoa.

Hala ulertu nion birritan galdetuta. Mateo Vallejok ez zuela itzulpenik behar begitandu zitzaidan, baina.

– Urik ez –esan zuen gazteenak.

– Laguntza behar dugu –errematatu zuen zaharrenak.

– Non dabil Edwin? –atera zitzaidan.

Atzamar luzeak etxe arteko bidea bilatu zuen, balkoien eta kalatxorien artean zeruaren zikinak zikinago bat jo eta itsaso txatal bat agertu zen arte.

– Bazkaria gertatzen.

Arratsalde hartan galdetu zidan Mateo Vallejok, larunbat berundu bat zen, ea lagunduko nion.

Haurren hotsak baino entzuten ez diren orduan atera ginela etxetik akordatzen naiz. Elkarri hitzik egiteke egin genuen erdialderainokoa, zer zerabilen galdetu gabetanik. Zigarroa pizteko gelditu ginen. Berotzen hasia zen, laino artetik jo egiten zuen artean eguzki apalak. Goizeko arropak aldatuak zituen Mateo Vallejok, dotoreago zihoan nabarmen. Tarteka tabako usaina zetorkidan. Jaberik gabeko zakur bat izan genuen atzetik, kartoi zahar batzuekin entretenitu zen arte. Uriarteren dendatik aurrera malda gozoagoa egiten den hartan ekin zion bizkorrago joateari. Eztula agertu zitzaion arren, nik pentsatu aldean erraz kentzen zion lurra oinari.

– Laster gara, Nerea, hortxe da.

Inor gabeko kafetegi argitsu bat, mahai txukun batzuk zituela barrenean. Hormetan Toki Onako dekorazioarekin zerikusirik ez zuten paisaia ederrak: itsasargi baten burua olatu zurden artean harro, zelai ezin berdeago bat, ontzi txiki bat itsaslabar ilunetatik gertuegi. Esku bat airean ongietorria ematen. Heldu ginenerako, Tere bakarrik zegoen bere kikararekin. Hustutako kikara bat norbait iritsi zain.

– Bertakoak beranduen –agurtu zuen aitite Mateok.

Egia zen, Mateo Vallejoren begiak zituen Terek.

– Zaude lasai, gizona. Eta neska polit hau?

Denbora zen inork ez ninduela horrela hartzen. Zain egon nintzen, berehala akordatu zen nire izenaz. Luze gabe, zurea agertu zen, eta amarena ere bai. Gaixotasunaz hitz egin zuten. Horrela ezagutu nuen Tere.

Leuna zuen azala, askozaz emakume gaztea-go batena begitandu zitzaidan. Sudur-mintzak lore morez gozatu zizkidan usaina zuen. Adinez Mateo Vallejo baino zaharragoa izanagatik, sa-soiko zegoen. Ez dakit zenbatgarren aldia zen el-kartzen zirena, ez dakit zertarako eraman nin-duen aitite Mateok, ez dakit zer egiten nuen bien artean han, baina ez nengoen deseroso ere. Gozoa zen berbetan.

Elkarrekin egon ginen ordubetean asko hitz egin genuen, Terek batez ere. Alferrik pasatzen utzitako denboraz solastatu ziren, ezagutzen ez nituen izenak atera ziren, «egin behar dugu baz-kari bat denok ezagutzeko». Mateo Vallejo inoiz ez bezala ikusi nuen, ez zen atzean geratu.

– Nahi baduzue hemen egin dezakegu, badut toki aproposa. Ez badizue ardura denok honaino etortzeak.

Egun hartan izan zen.

– Argazkiak ekarri dituzu?

Terek aurrezki kutxako ikurra zeraman gutun-azala atera zuen larruzko poltsatik. Irribarre egin eta lau argazki utzi zituen bistan, kafe kikaren ondoan. Gizon bera agertzen zen guztietan, bizar zuri handia zuen fraide bat. Gorde ezin izan nituen izenak eman zituen Terek, atzamarra gainean ezarrita. Familia izenak guztiak, beste garai bateko hotsa zutenak.

– Esan nizun, igualak zarete.

Bizarra estali zion eskuaz fraideari. Azkazal zaindu margotu gabeak.

– Ikusten?

Konturatzerako, jendez bete zen kafetegia. Haurrak mahai artean jolasean.

– Akabatu behar nau andre honek! –esan zidan aitite Mateok Terek entzun zezan.

– Zuretzat ekarri ditut. Kopiak dira.

Mateo Vallejo poltsikoan sartzen saiatu zen argazkien zorroa. Ezin izan zuen. Disimulurik gabe egin zuen irri, umoretsu zegoen:

– Eskutik eraman beharko dut aita.

Etxera heldu ginenean, logelan gorde zuen Terek emandakoa. Arropak ere aldatu zituen.

Bodegan zituen ur bidoiak orgatxoan zamatu eta moilarako bidea hartu zuen.

– Zu hemen.

Ez zidan utzi laguntzen.

–13–

– Txakur-borrokak egiten ditiztek.

Urbano Peña izan zen zurrumurruarekin etorri zena. Ahoan bildua zekarren. Ardaila batean heldu zen etxera. Irten beharrean zituen begiak, etengabean mugitzen zuen baraila, eta harekin, gezurretako hortz haiek, ilargia bera baino zuriagoak.

– Nork esan dik halakorik?

Zen bezain handi zutitu zen Peña eseri orduko sukaldeko mahaipetik atera zitzaion aulkitik. Alabaren argazkia zuen so apaletik, nik bezain laburra zeraman ilea Luk.

– Besterik ba al zabilek ba kalean?

Orduantxe ohartu balitz bezalako itxura egin zuen.

– Hemen zara? Ez zaitut ikusi, Nerea.

Goia jotzen entzun zuen arte eragin zion pertsiana uhalari Mateo Vallejok. Etxe hartan nengoenetik behin eta berriro ikusitakoari jarraikiz, balkoira atera ziren biak, Peña tantaia aurrena, adiskidea haren orpotik, etxeko zapatilak atzetik

atereak, botila ardoa eta bi edontzi zituela eskuan.

– Potroak behar dituk gero!

Ez zegoen isiltzeko. Bi edontziak beteta, ondoan paratu zitzaion Mateo Vallejo. Serenity Starri beha jarri ziren biak. Izara argi ikusten zen karelean, begi hutsez leitzen zen orain. Berritua zuten aurrez tarrataturiko hura.

Ardoa pol-polean basora.

– Kooperatibakoa duk, nafarra.

Gelan sartu nintzen, eskolako lan batzuk burutu behar nituela-eta. Alferrik, ordea. Leiho egurrezkoaren zirrikitutik bertan banitu bezala aditzen nuen bien arteko elkarrizketa. Musika jartzea ere pentsatu nuen han nengoela adierazteko, baina ez dakit zergatik, mahaitik altxatu gabe jarraitu nuen, marrazketa ariketako irudi absurdo haiei begira. Argitasunera so eginez gero, Peñaren ukondoa ikusten nuen, ozta sorbaldaraino albora egiten zuenean. Une hura aukeratu zuen lapurretarena botatzeko, gauza bat lanik gabeko marinela izatea dela eta aterpea eman dizun herrian ostea bestea.

– Badakik non hartzen dudan kafea batzuetan, Korneliarenean, bada bortxaz sartu eta makina lehertu ditek bart, eta aurreko egunean

beste horrenbeste Usategin eta El Tilon ere, parean topatu duten tabako guztia ere eraman ditek –halaxe esan zuen, ahoan batere legarrik gabe–. Nondik bestela hainbeste diru?

Soina atzerantz botaz gero, biak ikusten nituen.

– Askotxo esatea duk hori, Urbano.

– Kasualitatea duk bada –jarraitu zuen.

Kointzidentziaz mintzatu zen, egunak egunen ondoan jartzea dela, nola datozen bat datak, Serenity Starrekoak lehorrean ikusten hastea ostatuetan gertatutako lapurretekin.

– Nor izango duk bestela.

Arnasaldi sakona entzun nuen gero, esku bat kristalezko edontzia formikazko mahai baten gainean uzten.

– Errusiar hauek gainera, ba ez dakik ba nolakoak diren.

– Ukrainarrak.

– Bost xemaikoren alderik ez zagok. Mafia –ebatzi zuen Peñak.

Eslaviarrak gogorrak ziren lanerako, uste horretan hazitakoa zen Mateo Vallejo. Defenditu behar zituen, bihozkadaz bazen ere.

– Eurekin ibiliak gaituk. Ez duk hala.

Orduan aipatu zuen Mateo Vallejok urarena, biltegikoa lastakoarekin nahastu zitzaienez geroztik, kutsatua zegoela zuten apurra. Horrexegatik joan zela bi marinelekin egon ginen egunean bidoi batzuk eramatera. Isilune baten ondoren, aitortu behar ez zukeen beste zerbait erantsi zuen, ardo pixka bat ere eraman ziela. Kalean ordura arte ikusi gabeko beltzaran bat agertu bide zitzaion karelean, erdi italieraz egin ziona.

– Ederki ariko dituk orain hire kontura.

Isiltasunak gehiegi iraun zuen. Urbano Peña mendean hartzen hasia zen laguna, Mateo Vallejo zintzoegi ari zitzaien dena irentsi arteko onik ez zuten ahutz gaitz haiei. Kontua ez baita isilik egotea behin hasiz gero, merezi ez duenean ez ekitea baizik. Eta Mateo Vallejo galtzen hasia zen, berandu zebilen lehia hartatik onik erretiratzeko.

Erregela eta kartaboia hartu eta aurrez markaturiko puntuetatik bota nuen marra. Uste dut aurreneko aldiz berarekin bizi nintzenetik, ahul ikusi nuen, eta pena eman zidan.

– Han ez nian zaunkarik entzun.

– Ez ezak asta-paolarik bota, Mateo...

Ez niri bakarrik, Peñari berari ere eman ziolakoan nago. Bestela xehakatuko zuen galanto, hagin artean izpitu, ez zion, ez zionez barkatu zion moduan barkatuko. Urbano Peñak berak zirudien orain zakurra, balkoian alde batetik bestera. Presa usainak tentatuta, arnasak itota eta zangoak sutan ikusten nuen pasatzen leihoaren aurretik, barrutik begira neukala ohartu gabe.

– Ordainduko ahal zietek etxerakoa eta akabo!

Ez dakit zergatik bota zion, bazegoen artean ezagutzen ez nuen giltza ezkuturen bat hitz-hari haietan:

– Urbano, eta hala izanda ere, guk bazakiagu zer den hori. Itsasoa duk...

– Ez, Mateo. Hauek lehorrean ari dituk. Ahaztu itsasoko legea.

Serenity Starren txakur-borrokak egiten zirela, kalean bolo-bolo zebilelako kontua piztu nahi izan zuen berriz ere Urbano Peñak. Amore emateko puntuan sumatu zuen Mateo Vallejo.

Peña zuzen zebilen. Nik uste aldean, hala zen, erabat zabaldua zegoen kontua. Bilbon bertan ere, ikastetxean, egon zen zer nekien galdetzera hurreratu zitzaidanik. Mutilak beti, elkarrengandik bereizten ez nituen txakur-arraza ize-

nak botatzen zizkidaten, «lehengusuak din pitbull bat, lehengo batean hiperreko zaindariari eraso zionan ia». Ez dakit zergatik, ausaz Urbano Peñarik aurkitu ez nuelako aurrez, aitite Mateorena erantzuten nien:

– Hilabeteetako soldatak kobratu gabeko hamalau langile dira etxetik oso urrun preso daudenak.

– Preso?

– Hondoratzear dagoen krosko herdoildu batean. Jendeak emandakotik bizi dira.

Ostiral hartan, metrotik etxera heldu eta batera ez nuen gehiegi saiatu behar izan, arrainetan atera ginen aitite Mateo eta biok. Asteak ziren ez ninduela eramaten, kalma zuriak eta udazkenari irekitako eguzki egunek, bultzatu baino, lagundu egin zioten erabakia hartzen. Serenity Starrek erakarri zuen, lepoa egingo nuke. Amorrua zeukan erretzen erraietan gora txakurborroken kontu haren berri iritsi zitzaionetik.

Abra zabalean, zama-lanetarako zain zeuden ontziak ababor utzi eta puntetatik lekora irten ginen. Haitzetara jo genuen, «goazen kabratan», esan zidan, «durduak, txistuak, takartak, egongo da zer edo zer zure zain, helduko dio baten batek lantzean». Ale bakan batzuk besterik ez genuen

sartu baldean, baina. Enpatxatu zen aparejoa. Harkaitzak eraman zizkidan amua, juta eta beruna hondora.

– Hurrengoan bestaldera joango gara.

Agudo bildu genituen guztiak. Tanga hartu eta ohola altxatuta motorrari zerion olioarekin nahasten hasia zen ura txikatzeko agindu zidan aurrea etxerantz jarri genuenean. Arrazoi horretan zenuen. Aitite Mateo zahar ikusi nuen itsasora beste inor gabe ateratzeko, baldartuak eskuoinak, ilundua burua azkenaldian.

Ostertzetik gora zegoen artean eguzki hotza, lema bestalderatu eta zamaontzien artean sartzea erabaki zuenean. Zain-zain nengoen. Banekien hori egingo zuena.

– Debekatuta ez dago ba?

– Baita zu nirekin etortzea ere, eta hemen zaude.

Ainguren kateetatik bertatik pasatu ginen. Motorrak abaila moteltzearekin ama etorri zitzaidan akordura, ondoeza bezatu nahian, kimioterapia barrenak kiskaltzen, eta alabarengan gogoa, etxera telefonoa jotzen zuenean: «badakit eskatuko dizula, ez ezazu motor-txikian atera, Mateo, egunen batean gertatu ez beharreko bat izango dugu bestela».

Ontzien babesean, Mateo Vallejo arrainetan baino gogotsuago zebilen, igarri egin nion, begi txiki haiek batetik bestera eramateko eran zuen ezagun.

Serenity Starren popa aurrean ikusi genuenerako, eguzkia etzaten hasia zen mendi ilunduen ahoan. Eroria zuen bandera mastan. Motorra amatatu eta lehentxeago arrainetan bezala gelditu ginen, olatu gozo artean kulunkan. Soldeatze-orbain haiek goitik behera zatitzen zuten kroskoa, mapa mundiko paraleloen eta meridianoen antzera. Goraino lotu nituen jakako botoiak, lepo hegalak jaso nituen. Zaunkarik ez, irrati batetik zetorkigun aireak soilik hausten zuen isiltasuna. Punta Luzeron aerosorgailuek haizea ebakitzen jarraitzen zuten. Argi ahul bat piztu zen ontziko begietako batean. Bi lagun zarataka aditzen ziren, hirugarren bat gehitu zitzaien gero. Ez nuen, aurrekoan bezala, oihurik egin zamaontziaren sabel puztuak erantzun ziezadan. Eskuak poltsikotik atera eta tanga hartu nuen ostera ere. Maite nuen gasolio usaina. Orduan zorabioaren aurreneko abisua. Etxera nahi nuela sartu zitzaidan. Etxera, jakin banekien arren atetik sartu orduko hitz egitera behartuko ninduzula.

– Zergatik ez zara lagunekin ateratzen?

Zer erantzun behar nizun lehendik zenekiena errepikatu besterik, zeuk bakartu ninduzula, niri iritzirik eskatu gabe erabaki zenuela Mateo Vallejorenean sartzea, institututik, lagunengandik ezin urrutiago? Hainbeste luzatu zenuela etxe berriarena non heldua zen unea berdin zitzaidana zer erosteko asmoa zenuen?

– Eta ezin zara neska bat bezala jantzi?

Ezin izan nion eutsi. Aurreneko aldiz, karelean behera bota nituen guztiak. Berehala xaretu zen gonbitoa ur koipetsuaren azalean, hari zurixka batzuk bakarrik gelditu ziren arte.

– Hobe izango dugu joatea.

Banekien ezin izango niola itzuri egin hitzik egin gabe, atetik sartu orduko behartuta egongo nintzela zure galderei erantzuten, ezagutzen zaitut horrenbeste. Aste osoan aurrez aurre egon gabeak ginen kasik. Huts, ordea. Zapatak erantzi, esnea mikrouhinean berotu eta txintik atera gabe irten nuen balkoira. Gaugiro zegoen. Oporrak heldu orduko joango nintzen ama ikustera. Erosia nuen hegazkin txartela.

Orduan ikusi nituen: itzalez beteriko bi motor-txiki ziren, gauarekin olgetan. Posizio-ar-

giak itzalita, Serenity Starrera inguratzen ari ziren.

–14–

Tereren familiarekin egin beharreko bazkarira pozik joan ginen, ez da hala? Arteak hartu ezinda jaiki zinen, azkenaldian ez bezala atsegin egon zinen. Hilabete haietan elkarrengandik gertuen egon ginen unea izan zen. Gomutatzen?

Arratsaldea abiatua da eseri garenerako. Jendea bildu gara tontolo-montolo, Terek deituta. Denbora behar izan da denok batzeko. Soziedadera zuzenean jo dutenek ere ezin izan dute esandako ordurako iritsi. Autoak gertu uztea langintza gaitza bihurtu da igande goiz batean.

Ardoak atera dira, txakolinak, bermutak, bitterrak, muztioak. Arrapalada batean bildu dira haurrak oliben platertxoen bueltan. Pitxar bete ur laga dut mahai erdian, dozena erdi edontzi huts.

– Ondo eroa dabil eguraldia.

– Eskertzen da errepidean ibiltzeko.

Ordua aldatuta, egunak benetan dira laburrak. Goiz iluntzen du, eta ez da igartzen udazkenak koskarik kendu dionik neguari, nola ba, ez bagara beltzenean sartu oraindino. Leihotik lan-

dara, hego haizeak hurreratu egingo ditu urrutiko muino moreak, ubelak, malbak. Hegaztiak saldoan datozkio eguerdi osteari.

Aurreneko aldia da mahai inguruan direnak elkarrengana biltzen direna. Iragana ez dela errauts bilakatu ospatzen da. Mateo Vallejori mundua etorri zaio kolpean. Hirurogei eta hamar urteko isiltasuna dabilkio berbaroan, bakerik ematen ez diola. Kontatu egiten ditut, behin eta berriro guztiak banan-banan kopuru diferentea ateratzeko aldiro. Eta aurkezpenek ez dute akaburik, birritan eman dizkiot bi musuak bati baino gehiagori.

– Baserrikoak falta dira.

Eta Tere da, besotik bahituta Mateo Vallejo batera eta bestera darabilena. Barrea negar bihurtzen zaio, barruko mataza erabat askatu ezinik dabil aitite Mateo. Zer ikusten dudan? Izen guztiak gorde nahi dituen agure urduri bat emakume harrotu baten besotik: Tere esku zabalduaz soinekoa lisatzen, Tere batari eta besteari deitzen, Tere esku bilduaz Mateo Vallejoren masaila laztantzen.

– Ez du gure antza?

Eta bi aurpegi itxuraz zoriontsu dira elkarren babesaren bila dabiltzanak, urte haietan guztie-

tan galdutakoa une hartantxe bildu guran. Argazkiak bata bestearen atzetik lehertzen dira, «argiegi atera zarete flasharekin, jarri berriz». Eta bi aurpegiak dira ostera ere elkarren anparoan, iragandako oro une hartantxe izozterik balego bezala, orainaldi betiereko batean.

Ez dakit nolatan, Mateo Vallejok telefono dei hura hartu zuen aurreneko aldia datorkit.

«Garai ederrean!».

Ez naiz ni izango orain zoriontasun zaparrada hau ebatsiko diona. Eta zuri laguntzeko erabakiak estekatu nau kanpotarrei zerbitzatzen, ardoak, txakolinak, bermutak, bitterrak, muztioak ateratzeko.

– Nerea. Nerea naiz. Mateoren biloba. Honen alaba.

– Gorritzen sentitzen ditut masailak. Tereren ahizpak izan behar duten bi emakume adindu ditut aurrean irribarrez galdezka, nor den nor berehalakoan ulertzen ez dutenak. Nire ondoan zaude. Ez dut aukera galduko.

– Mateoren semea hau da. Aitona baino zaharragoa da.

Zerbait esatera zoaz, defenditu nahi duzu, baina orduan otoz otoan zabaldu da atea eta oihu batek askatu ditu ezpain guztiak.

– Hemen zarete-eta!

Bi emakume eta gizonezko bat dira Tereren besoetan katigatu direnak, atzetik datozen beste hirurekin, okerreko musutan, txandaren zain urduritzen direnak.

– Hau da Juanito –aurkezten die hurreratu orduko–. Hauxe da ba Asunta, eskerrak honi aurkitu zaitugu!

Eskutik helduta du, eta Mateo Vallejo ez dago inori ezer leporatzeko, ezin izan die begi beteei gehiago eutsi. Eta une batez Mateo Vallejok berak inoiz Juan Aizpuru izan dela sinestera egiten du jolas. Juanito deitzen zeneko irudiek esaten ez dakien neurrian hartu diote gogoa goizgoizetik, eta dena berritzen ari zaion honetan zalantza nagusitu zaio, ez daki zer den egiazkoa eta zer denborak bere artean asmatua duena arbolape hartatik. Kontua da etsi duela horrelako bideak hartzen dituela lantzean behin buruak. Eta batez ere haurren builak datozkio, harrezkero ostera aditzea lortu ez duen usain hura, eta gizon heldu haren magala. Zer zen gogoratu ezin duen jatekoa, aurpegirik jarri ezin dion gizon bat. Halaxe aitortzen du bildu berrien aurrean.

– Hauek dituzu arbolapeko ume haiek –aurkeztu dizkio Terek.

Halako batean zuen guztia galdu egin ziotelako gertatzen da gertatzen dena. Azkenaldian loa ere galarazten dion, ezezagunak malkotan besarkatu arteko haurtzaroaren eraso bortxazkoa. Toki bat munduan arbolape hura. Eskaini dien eskua euren esku artean enara bat bezala gordetzen dioten ehun kiloko haurren izenak ikasten ahalegindu da. Halakotuta entzun du berea, orduko ume haiek bezain mudatua, eta harritu egin da bere burua entzun duenean «ni naiz Juan» esaten, «ni naiz Juan». Eta etxeko haurrek gizon brusaduna inguratu dute. Eta hustutako platera soildutako belar gainean utzita aulkia arrastaka atzeratu du gizonak, magalean duen mutil koskorra eskutik askatu du, osterantzeko haurrek «hator gurekin» diotsotela, «hator jolas egitera Juanito».

– Zuen aita zen?

Baietz egin dute hiru buruek. Korasta bera dute, ontziola berean eginak dira hirurak.

Lurra harrotzerainoko sustraiak zituen, zerurainokoa kapelua, berdea eta zilarrezkoa. Hala etorri izan zaio beti aitona Mateori arbola zabal hura.

– Zer zen, intxaurrondoa?

– Ezkia, inguruetako ezkirik ederrena.

Halaxe azaldu diote garai bateko haur haiek, arbolape hark batu dituela orain ere Tereri esker. Asuntak hitz egin du orain, ez zekitela ondo zegoen dio, kezka horrexekin hil zitzaiela ama, ardura horrek lotu dituela, eta beste areagoko batek, Juanito deitzen zuten hark, bizirik bazen behintzat, jakingo ote zuen nor izan zen.

– Ni hemen nago ba. Eta arbola?

Baietz diotsote hirurek batera, han dela etxe atarian, orduan bezain zabal.

– Joan behar dugu, merienda-legea egingo dugu hantxe gerizpetan eguna luzatzen hasten denean. Behiak ditugu, ehun behitik gora, esnetakoak, arbola hartatik ez oso aparte gordeak.

Baina bitartean ekarri egin diotela dio ordurako Asuntaren senartzat duen gizonak, «etxean toki bat eginda betiko abaroa izan dezazun».

Plastikozko zorro beltz bat da eskuz esku doana, gizonezkoak betaurrekoak kendu eta begiak xukatzen dituela aitite Mateori eman nahi diona. Marko argia du. Okumezko xaflan itsatsiriko argazkia, ordea, handia da lehenengoan ateratzeko. Hori gero, agindu du Terek, horiek gero, orain denok bazkaltzera, afaltzeko ordua egingo zaigu bestela-eta.

– Zenbat denbora esan duzue daramala barku horrek?

– Hemen uztailetik dago.

Eta mahaia bitan banatzen da, adinak zatitzen gaitu txeraren eta lotsaren arabera. Plateretakoei ekin zaie, edontziak bete dira. Begiratuek ez dute etenik, «zuk ere utzi sukaldea», mahaian esertzeko tenorea da. Hala ohartu naiz neure ondoan zenuela tokia hartua. Eskua nirearen gainean jarri gabe esan duzu, «ondo zaude?», esku bat beste esku baten gainean, honelako txorakeriatan ematen nuen begia. Eta ez dakit ohartu zinen, baina biok elkarren ondoan egonagatik inork ez digu amaz galdetzen. Ez duzu pentsatuko, baina horren beldur nintzen. Ikasita etorri dira etxetik, sartuaz batera ezagutu gaituzte.

– Eta egia da txakurren kontu hori?

«Txakurrak, armadoreak» esatekotan egon naiz. Isildu egin naiz baina. Zuk hitz egin dezazun utzi dizut, odol berekoak izanagatik ez baititut aurrean ditugunak nahikoa ezagutzen. Drama ikuskizun bihurtu den jaiera honetan, ez nau musututs utzi hitza hartu eta zer kontatu behar zenuen igarri eta ekin diozunean:

– Borroka-txakur bat ekarri du bart arratseko marea-gorak hondartzara.

Turistak balira bezala begiratu dizute, harri eginda utzi diote ezpainari erortzen nahi zutena eman diezunean, auskadak dituela saman, odoldua burua, hezurrak agerian.

– Belarriak ere falta ei ditu.

Mahaiaren beste muturrean lainatu dira arestiko poz aurpegiak. Beste auskada batzuez ari dira.

– Gaiztoak ziren haiek, umeak horrela osteko.

– Juanitorena bakarra balitz gainera!

Ezustean harrapatu nauzu txakur-borrokena ez dagoela argi esan duzunean. Ez ez direla Serenity Starren egiten, ezpada marinelak ez beste norbait ari dela egoeraz baliatzen. Lehendik lehorrean, Sestaoko, Burtzeñako, Lamiakoko fabrika abandonatuetan-eta inoiz egin direnak hara eraman dituztela, hori dela jakin duzuna.

– Hori da dena –esan duzu azkenik.

Ahots ederra duzula konturatu naiz, ahaztua nuen. Eta ironiarik gabe diotsut, hala hitz egiten duzulako zauzkate seguru asko zauden tokian.

– Ni majo izorratu ninduten behintzat.

Eta Terek isiltasuna eskatu du, haurretako bati eman dio txanda, orain bai, arazorik gabe ateratzeko koadroa plastikozko zorrotik. Arbola handi bat da, baserri baten teilatu hegala duela

ondoan. Handia, berdea eta zilarrezkoa. Bertsoa darama idatzirik, Mateo Vallejorentzat beren-beregi gaztelerara itzuli dutena aldamenean. Abaroak dena ederra zen haurtzaroari egiten dio dei, anaitasunari, abizenari, familiari. Eta trufa egiten diote lerrook distantziari, larderiari eta itzuliko ez den bakardadeari.

Txaloen indarra neurtu nahi dugu, baietz malkoei ekin ostera.

– Ai, gure-gure! –esan du Terek ezin agerikoago musua emanda denok hunki gaitezen. Eta nekatu itxuraz eseri da Mateo Vallejo, esku artean ozta eusten dion arbola hura non utzi ez dakiela.

Kanpora irten dugunerako, ilunak hartua du berari dagokiona.

Bazkalosteko lurrunak aireztatzeko aitzakiaz, eta gonbidatuak agurtuta, etxeraino eramango duen autoraino lagundu diogu Tereri.

– Ederto pasa dugu, ederto baten dena. Familia majoa osatzen duzue hirurok.

Anbulantzia bat igaro da ondotik. Ez doa hutsik. Piztuta daramatza barneko argiak.

– Bestela gaude –atera zitzaizun.

Mateo Vallejok isilarazi zintuen denon aurrean. Tere berehala konturatu zen berak hoztu behar zuela bion artekoa:

– Tira, Mateo, edo Juan, nola deitu behar dizut? Orain ez duzu zer ezkutatu.

Nekatua dago, jota gelditzen da aurre egiten dizun aldiro. Sirena aditzen segitu dugu beste tarte batean.

– Nahiago nuke.

–15–

– Mundua nire moduko pertsonaz betea dago.

Ez dakit nola, baina hori ere bota zenidan behin. Esan zenuena baino gehiago aitortu zenuen horrekin. Ulertu nizun, zu ez zinela gu esaten ari zinen. Aldea dagoela pertsona batzuen eta besteen, aukeratuen eta gainontzekoen artean. Gaiztoa nintzela esan nahi zenidan. Barkatu, areago, gaiztoan ari nintzela, nahita ernegarazten zintudala, banekiela min ematen nizula mutu geldituta, eta horrexegatik egoten nintzela berbarik egin gabe zure aurrean.

– Nire sufrimendua beharko balu legez bizitzeko.

Ikusi egiten zaitut zure kezkak kontatzen. Erreboiloa eskatu duzue, behin eta berriz pasa dituzue orriak, kostatu egin zaizue ardoa aukeratzea. Ia entzuten ez den musika goxoa. Baietz diotsu lankideak, oso emakumeena dela hori, maitasunean bezala gorrotoan, gizonezkoek baino muturragoko jarrerak ditugula:

– Txikitatik, gainera.

Itsasoari begira, hurrengo bileran hartuko duzuen jarreraz hitz egiteko elkartu zarete. Semealaben gorabeherak ere ekarriko dituzue baina, zuena ez den visa batez ordainduko duzuen bazkarira.

Soziedadean izan ginen sasoi hartan, jaikita ibiltzen nintzen gauez. Inoiz, telebista piztu eta munduan diren saiorik lerdoenei beha ematen nuen gaua sofan luze eginda. Gehienetan ohera itzultzen nintzen sukaldetik osteratxoa egin ondoren. Orduan liburu batekin itxaroten nion nekeari, edo eskuak emandakoak idazten nituen koadernoetan. Sarriago marrazteagatik ere eman zidan. Orri ederreko koaderno handiagoak erosi nituen horretarako. Laminetako kopiak hasieran, burura etorritako bazterrak, jendeak eta egoerak gero. Oso bakanetan entzuten nuen irratia. Lantegi handietako gauzainek eta suizida izateko deituek baino ez zuten hots egiten ordu haietan, gezurra gezurraren gainean kontatzeko beti. Egunsentiaren zirrintak ostertza urratzerako, leher eginda, loak hartzen ninduen berriro.

Gau haietan ikasi nuen, leiho-ehizan, itsasoari begira egoten.

– Argiak jarri dituzue berriz.

Logurak erreta hartu nuen, orduan ere, ikastetxerako metroa. Katalogatua nuen bagoietakoa baino ezin izan zitekeen usaina, halako nahaste bat, garbigarria eta talko hautsarena. Zaharrek ospitaleetan uzten duten hatsarena. Sartu orduko ikusi nuen Edwin. Nasan presaka batean zebiltzan oinei beha zegoen, kiroletako poltsa ilun bat zuela aldamenean.

– Libre dago?

Atoan ezagutu ninduelakoan nago. Neuk hartu nuen motxila aulkitik, magalean eramango nion. Eskuetatik kendu eta berna artean jarri zuen. Irri egin zidan bibote xare haren azpitik, nire izena ekartzen ahalegindu zen. Ezin izan zuen. Barka-eske hasi zitzaidan. «Aitonarekin, motor-txikian», esan zuen, eskuarekin lemari heldutako gizonaren keinua eginez. Begi margulak zituen, paduretako gandua balute legez. Gaixo zituela pentsatu nuen.

– Bilbora noa.

Alabaz galdetu nion, ea ezer zekien. Ezin izan zuela azken egunetan etxekoekin solastatu, baina ondo egongo zela esan zuen.

– Familia handia dugu Cebun, denen artean zaintzen dute. Bihar naiz deitzekoa ostera.

Metroa martxan jarri zen, ordu haietan ohi moduan, beterik ia. «Cebu», gorde nuen gogoan.

Eskua praketako atzeko poltsikoan sartu eta motor-txikian egindakoa errepikatu zuen. Kartera atera zuen, eta karteratik argazki bat, paper arruntean inprimatua. Haur bat nuen begira. Harria baino serioago behatzen zion kamerari urtebete inguru beharko zuen neskatikoak. Bururik gabeko nor edo noren besoetan zegoen, bi txorimoñorekin ezin politago. Esan egin nion, ilargi betea zirudien aurpegi ederreko neskatilak zeru musker hartan. Masailak guri, txori arrosa bat zioten jarria ilean. Aitortu ez niona bestea zen, beste argazki batean, baina erakutsia zidala alaba aurreneko aldiz ikusi genuenean elkar.

– Haserre zegoen egun hartan.

Disimulurik gabe egin nuen barre, berak bezalaxe. Pena eman zidan, urrun zituenen presentzia nabarmendu beharrak tristatu ninduela uste dut.

– Aita ezagutu nahi duelako.

Neska ederra agertzen zen. Izena, gomutan nuen:

– Lizawin –esan nion–. Polita da.

– Lizawin –errepikatu zidan–, ama du Liza. Amaren edertasuna eta aitaren adorea izan dezan.

Eta ukabila estutu zuen indartsu plantak eginez. Hezurtsuagoak ziruditen eskuek airean marrazkiak egiten mugitzen zituenean. Jende gehiago sartu zen, bakan batzuk baino ez ziren jaitsi. Inguratuagoak geunden.

– Gauero egoten naiz Serenity Starri beha.

Belaunen kontra estutu zuen ia erorian zuen poltsa.

– Argiak piztu dituzue berriz –jarraitu nuen.

Orduan azaldu zidan zertan zetzan joan orduko etorri ziren foku zuri haien miraria. Portuko agintaritzak bidalitako unitate elektrogenoaz mantentzen zituzten isiotuta, erdi-ilunpetan behar beste ikusten ez bazen ere.

– Posizioagatik, gauerdian inork jo ez gaitzan.

Ura bezala zetozkion hitzak, egituraren bat edo beste izan ezik, eleren bat tarteka, aise harrapatzen nion esaten zidana. Amaren tankera baino, amerikarren eran ebakitzen zituela hotsak dut gogoan.

– Ez alferrik, berrogeita hamar urtez jasan genituen.

Ez zegoen azkarregia izan beharrik zeharkako umorea harrapatzeko.

– Eta zuk, non ikasia duzu? Gozoa egiten da...

– Ama dut ingelesa –erantzun nion.

Gorde egin nuen beste guztia, oraindino kontatzen asmatzen ez dudalako neure baitarako ostentzen dudana. Horrelaxe ezkutatu nion zuena. Ezin nion aitortu bereizi zinetenean Londresera joan zela minbizia zuelako eta han hobeto artatuko zutela pentsatzen zuelako. Galtzerdia iruntzietara nola, besteraka ere kontatzea banuen ordea. Nola esan zenuen? Hori, «gaiztoan aritzen nintzela». Alegia, minbiziaren diagnostikoa eman orduko senarra ondoan sentitu ez zuelako erabaki zuela gizonagandik urrun eustea biziari. «Orain berandu da», gehituko niokeen. Edwinek hitz egin zuen, ordea:

– Zuri esatea badudala uste dut: beharbada laster gara etxean.

Kopeta argitu zitzaidan. Logurak bildu nahi zizkidan begiak zabaldu nituen. Abokatu bat ekarri zuen hizpidera, konpainiaren izenean mintzatu zitzaiela aurreko astean Serenity Starren bertan. Hitz egin berri zela Atenasko armadoreekin eta zamaontzia salmentan jartzea erabaki zuela konpainiak, eta bazutela, ondo bidean, erosle

bat ere. Zamarekin omen arazoa, baina egoteko lasai, hori ere konponduko zela. Operazioa amaitu eta berehala ordainduko ziren zor zitzaizkien soldatak eta etxerako hegazkin billeteak.

– Etxean. Baina lanik gabe –esan zuen.

Hegazkin billeteekin ez zegoela gosea berdintzerik, halaxe aitortu zidan.

– Pankartak kendu ditugu. Ohartu zara?

Ezetz erantzun behar izan nion. Egia zen, konturatu gabe nengoen. Kontatu zidanez abokatuak eskatu zien, gauzak erraztu eta dena arinago konpontze aldera.

– «SOS» dioena soilik utzi dugu. Ni ez nengoen ados. Ontziarekin ustel gaitzaten nahi dutela uste dut.

Hasperen keinu bat eginez, azal lodiko liburua atera zuen ondoan eserita neraman emakumeak. Ez zirudien ulertzen zuenik elkarri zer esaten genion.

– Zergatik ez duzue Serenity Star uzten? Ez daukazue ontziarekin batera zertan hondora joan.

– Uko egingo genioke zor digutena kobratzeari.

Deseroso higitu zen irakurlea aulki gorrian. Kanpoan, behinola industria astunarenak izan

ziren orubeak zeharkatu genituen. Fabrika itxuraz garbiagoek hartua zuten haien tokia. Arinago izatea da ederra egun. Bidea hasita genuen: gorbatak buzoak baino, papera altzairua baino. Beste garai batzuk burdina ezainarenak. Tren leihotik, kolorez aldatzen ziren kristalak bulego argituetan. Etxebizitzak ere eraiki ziren, haur parke eta guzti. Inor ez txirristan goizeko orduotan.

Bidearen handiena janda zuen ordurako metroak. Laster nintzen institutuan. Eta banuen barruak erretzen zizkidan galdera bat.

– Eta txakur-borrokena?

Atera behar nuen. Barruan nerabilen egunkariko albiste hura, haginkadaka txikitutako txakur odoldua udan jende zoriontsuz beteko zen hondartzan, mareak goizaldean ekarria.

– Egia den jakin nahi duzu?

Baietz egin nuen buruaz. Neguan zakar gehiago dakar apakinetan itsasoak.

Alde bietara begiratu zuen. Irakurtzen segitzen zuen ondoko emakumeak. Apaldu egin zuen Edwinek lehendik goragi ari ez zen ahotsa.

– Ez zen geuk nahi izan genuen zerbait. Lehorretik etorri zen eskaera, toki aparteko bat nahi zuten, eta ontziko batzuek onartu egin zuten. Ez

da besterik. Dirua behar zen eta dirua sartu zen. Kito.

Ea bera onartu zutenen artean zegoen galdetzekotan egon nintzen. Ez zen beharrik izan.

– Filipinetan, haur nintzela, etxeko txakurra ostu zigun behinola amaren neba batek. Ez zen gehiago agertu. Borroka batean hil zela esan ziguten auzoek. Horren berri izan zuenean, koinatuaren bila atera zen aita etxetik. Lokatzetan aurkitu zuten osaba hurrengo egunean, burua irekita. Erreka bazterreko ihiek ezkutatu zuten gau osoan.

Ganduak moteldua zion begirada.

– Mozkor batekin borroka izan eta hark botila batez eraso ziola esan zien osabak poliziei.

Inguruko batzuen soak sentitzen nituen bion artekoan. Mutu egin genuen gelditzen zitzaiguna. Laino itsua zen, ezin zabaldurik segitzen zuen egunak. Argiak piztuta igarotzen ziren autoak trenbide ondotik.

– Ni heldu naiz.

Jaikitzen hasi nintzen. Denbora beharko nuen jende artean bidea egin eta atera iristeko. Itxaroteko mesedez pixka batean.

– Badakizu non dagoen Teofilo Guiard kalea?

Eskura eman zidan aldizkari batetik erauzitakoa zirudien paper muturra. Helbide bat eta telefonoa, faxarekin. Kontsulatua, irakurri nuen. Gerora jakin nuen, Teofilo Guiard kalean dago Filipinetako kontsulatua Bilbon.

– Ez dut azkena izan nahi hemen geratzen.

Ezetz erantzun nion, ez nekiela non zegoen. Orduan piztu zen abiatu ginenetik ondoan izan nuen irakurlea. Atsegintasun izpirik gabe, magalean utzi zuen liburua.

– Neu noa harantz, lagunduko dizut –esan zuen ingeles bikainean.

Ateak zabaldu zirenean, musu bat bezala hartu nuen goizeko freskura.

–16–

«Cebu» idatzi nuen koadernoan, ordurako seguruenik inguruko beste inork baino gehiago nekien arren Cebuz jakin beharrekoa: bertan dagoela oraindino Magalhaesek cebutarrak kristautu nahian eragin zuen gurutze egurrezkoa; bertan hil zuela hau auzo herri bateko buruzagi zen Lupu-Lupuk, aihotzaz eta borraz batzuek esatera, harriz eta lantzaz besteek; eta ondorioz, bertan hartu behar izan zuela Victoria ontziaren eta espedizioaren ardura Juan Sebastian Elkanok. Cebura iritsi zen, gainera, berrogei urte geroago Lopez Legazpikoa eta bertan dagoela Filipinek duten zama-porturik ezagunena.

Han behar zuen Lizawinek, aita noiz iritsiko abaroan, arbolape batean zain.

Hiru aste besterik ez zen falta oporretarako. Amak ospitaleari loturik jarraitzen zuen eta nik harturik nituen Standstederako txartelak. Okerrena imajinatu nuen, Londresko ospitale bazter auzoko batean igaroko nituen gabon jaiak, minbiziak erasandako gaixoen artean. Zuk artean ez zenidan argitu non eta norekin pasatzea eraba-

kia zenuen. Inoiz, beharbada lagunduko zenidala ere esan zenidan. Gehienetan, seguru asko ezin izango zenuela, lan askorekin zenbiltzatela.

«Ezta hiru egunerako ere?».

Datak aipatzen zenizkidan, hegazkin txartelak aurkitzeko arazoak, ordurako salduta zituztela merkeak. Okerrenera, lo egiteko tokiarena konpontzea besterik ez nuen behar. Edo nola egin Kattyrenetik ospitalerakoa, ez baitzegoen gertu.

Serenity Starreko marinelek zamaontzian jarraitzen zuten gatibu. Lehengo aldean gutxitan agertzen ziren herrian, eta laguntzak ere, txakur kontuak zabaldu zirenetik, erabat etenda zeuden, hori entzuten nuen behintzat.

Ahotsak balkoipean egin zuen orro.

– Mateo, zure motor-txikia!

Aterkipean Maria etxekonekoa zegoen, ea non zebilen aitite Mateo, abisatzeko bizkor, jaitsi beharra zuela portura, azkar gainera. Lehenengo bat, gero bestea, saguzarrak bezala higitzen zituen, saguzar artega bi ziruditen haren eskuek lanbrotan hegaka.

Mariak nahi baino astiroago egin zuten oinek mailadi bustian behera. Bizarra egiteko aparra

kendu gabe agertu zitzaigun Mateo Vallejo bentanan. Atoan bilduko zitzaigun.

«Mataperros».

Letra larriz, esku urduri batek idatzia zegoen, hizki trakets dardarkariak, norbait hurreratzen sumatuta presaka egina edo ontziaren batetik besterako balantzak eraginda bestela, lehorretik erraz leitzen zena, edonola ere.

Istriborra ikustera jo genuen segidan. Putzuetan jauzika ibili beharra zegoen iritsiko baginen.

– Pailazo alaenak!

Batere gorrotorik gabeko irri ilun bat atera zitzaion.

Ez zebilen garaurik portuan. Zintzur egarritu batek plastikozko botila bat zuen utzia petril gainean, freskagarriz erdi betea. Ondoan kristal gardenezko beste bat, sagar edo muxika pattarrarena, hutsik supermerkatuko zorro melatutik erdi irtenda. Eguraldi zantarrak bekerekeak eragiten zituen olatu zurdetan puntetatik kanpo. Zeharka zekarren lanparra haizeak, min eman arteraino bustitzen zuen guardasolari eusten zion eskua. Mateo Vallejok ez zituen horrelako egunak maite, motor-txikian ezin atera, sinesten hasia zegoen ez zuela aurrerantzean udaberri askorik ikusiko. Lehen ez bezala entzuten zi-

tzaion, txantxetan bazen ere, horrelakoak esaten. Erlojua zen eguraldia, bizitzeko gelditzen den denbora murrizten.

Eta Mariaren erruki-begi haiek:

– Zergatik zuri, Mateo?

– Zergatik ez, Maria?

Euria zerion bekokian behera aitite Mateori, baina izerdia zen. Aguarrasa zuela etxean eta laster zela bueltan hasi zen Maria.

– Espartzu latzarekin eta disolbente pixka batekin garbituko dugu, Mateo, berehalaxe duzu lehen baino txukunago.

Lohi zetorren ura portu barrurantz. Leungarri poto bat kulunka ur azalean, olio orbana txalupei gilapean itsasten. Saihetsean amarratuta zeukan motor-txikitik erraz obratzeko lantegia zen, nahi izatera, Mariak zioena. Abiatzekoa egin zuen. Egoteko lasai erantzun zion aitite Mateok, ez hartzeko ardurarik, ez zutela itsusi ere egiten letra zuriok ontziaren urdinaren gainean.

– Sekula halako dekoraziorik!

Mateo Vallejoren irribarrea euripean.

– Noiz eta orain gainera –Mariak.

Burla irria galdu gabe harrotu zuen bekozkoa, zer zioen galdetu behar izan zion.

– Noiz eta orain, denak joan direnean –errepikatu zuen emakumeak zirkinik egin gabe.

Berbok entzun orduko etorri zitzaizkidan gauerdian entzun uste izan nituen ontzien zaratak, ezohiko argien dantza Abrako zamaontzien inguruan. Ez nengoen lo, ez nengoen itzarririk. Sirena labur bat izan zen hasieran, orratz bat bezain mehea, loeroa doi-doi zulatu zuena. Motor batena ondoren, atoiontzia izan zitekeena. Edo Gurutze Gorrikoen salbamendukoa, erraza da zuzentzea jakin eta gero. Ostean, isiltasuna. Begiak bildu eta loak hartu ninduen berriz. Ez suziririk, ez bengalarik. Ospakizunik gabe alde egin zuten, antza, Serenity Starretik.

Irratia entzuteko kaskoak jantzita esnatu nintzen. Gosaltzen nengoela, Edwinekin metroan izaniko elkarrizketak hartu zidan gogoa. Minbera nituen belarri-ertzak, posturagatik.

– Gaur goizaldean eraman dituzte.

Garbitzaileen kamioia pasa zen mahai-aulkiak jasoak zituen jatetxearen paretik. Espaloian aurrera aterki banarekin zetozen bi gizonekin gurutzatu zen. Besteak ohartzerako bildu ziren guregana, Mateo Vallejoren eta Mariaren ezagunak biak. Bi aterki gehiago moilan, heldu zaha-

rrei agur egiten. Agudo lotu zitzaizkion Mariaren jardunari:

– Neuk ikusi. Autobus txiki bat heldu da, trepetak haren sabelean sartu eta han eraman dituzte aireporturantz.

Ez zuten askorik behar izan zein ordutan izan zen adosteko. Beharrik, aurreneko hegazkinean eraman zituztela Madrilera erabaki zuten. Gero handik Kievera partitzeko. Chisinaura. Aljerrera. Manilara.

– Bi ertzain-auto ere bai. Eta anbulantzia bat, goizaldeko ilunpetan zain. Furgoneta tankerako handi bat.

«Eraman dituzte», esan zen egun haietan. Presoak balira bezala langileak. Etorkin atxilotuak balira bezala. Txakurrak balira bezala, borrokalekutik etxera. Txapeldunak jarraitu zuen hizketan, portu kanporantz kokotsaz:

– Azkenean saldu dutela zabaldu da.

Silueta ezin ugertuago bat zen Serenity Starrena ostertzari eransten Abra erdian zain.

– Txatarretarako ez bada –arrapostu zion lagunak.

Goitik behera behatu ninduen, aitite Mateori begiez galdetzeko nor nintzen.

– Hau Mateoren biloba, semearena –sartu zen Maria.

Ez nien ezer esan, baina lehendik erretiraturik zituzten pankarta zaharrak utzi zituzten karelean. «Justizia». «Ordaindu lansariak». «Lana».

Orduan ohartu zen txapelduna:

– Zer putas?

Zurtu egin zen, harritu plantak egin zituen behintzat motor-txikiari so, hik zer egin duk ba, Mateo.

– Hik zer egin duk ba?

Mateo Vallejo ez zegoen, ordea, pintadez jarduteko. Pankarta haiek. Ulertzen duzu? Pankartak berriro karelean zeudela ohartu zen Mateo Vallejo, norbaitek jarri zituela marinelek zamaontzia utzi ondoren.

Eguerdi hartan, telebistako albistegian atera zituzten Serenity Starreko marinelak. Loiuko aireportuko irudiak ziren, fakturazio mahairakoan ageri ziren. «Luzea izan da baina azkenean etxera bidean gara» itzuli zuen offeko ahotsak langile gazte baten irudiaren gainean. Pozak txoratzen daudela etxekoak ikusteko, seme-alabak, emazteak, gurasoak. Zorretan daudela ere esan zuen, eskerrak eman beharrean direla hainbeste lagundu dion herriari. «Serenity Starreko mari-

nelen gatazka», hala esan zuen orain kazetari gazteak, gatazka, «bost hilabete ondoren onik amaitu da».

Kanpoan atertu gabe segitzen zuen erauntsiak. Tanta tantaren gainean, betetzen ariko zen aitite Mateoren motor-txikia. Txikatu beharko zen galanto hurrena hartzen zuenean, auskalo noiz izango zen baina, susmoa hartua bainengoen, pintada haiek saihets bietan, Mariari hitz egin zion bezala, irribarre hura, ez ote zuen erabakia gehiago ez ateratzea.

Poztuko zinela pentsatu nuen, poztuko zinela beste arrazoi batzuengatik bazen ere, kasu egingo zizulako.

«Zu ez zaude itsasorako, aita».

Besteez barik, Edwinez akordatu nintzen, hodeien gainetik ekialdera bidean. Lizawin izango zuen zain arbolape batean.

Logelako atea zabaldu zen, eskuak sorbatzean jarri zituen. Kalerako gertu jantzita zegoen.

– Etxean egongo zara?

Bakarrik ateratzen zenean etxetik, munduan diren bideak bi baino ez ziren Mateo Vallejorentzat. Bata tabernarakoa zen, Toki Onan babesten zen bazkalosteetan, han hartzen zuen kafea,

leihotik aparteko mahai batean jokatzen zuen partida ohiko lagunekin, ohikoenak ez ziren begietatik urruti. Bestea moilarako eskailerak ziren, baina enbata egunetan eta atera ezinik ibiltzeko alferrikakoa zen harlauzetan behera jaistea. Portuko ostatuetan ere, inor gutxi ibiltzen zen.

Egun hartan ez zen Toki Onatik pasatu baina. Leiho-ehizan nengoen Mateo Vallejorena izan zitekeen motor-txikia ikustea iruditu zitzaidanean, gizon bat lemaren gainean euritzan. Estali egiten zuen bagak ontzia tarteka, ostera agerrarazteko metro batzuk aurrerago. Prismatikoak hartzerako, ezkutatua zen portuan sartzeko zain zegoen petroliontzi baten atzean. Bazitekeen bera ez izatea, bera ez izatea eskatu nion ez dakit nori, beste edozein izatea itsaso harekin portutik ateratzen ausartu zen eroa.

Nahi baino makalago jantzi nituen botak, eskaileretan behera lotu nuen txanbergoa, lepoan biltzeko astirik gabe fularra. Atertzen ari zuela iruditu zitzaidan. Pauso bizkorrez ekin nion. Toki Onara jotzea erabaki nuen lehenik, laburragoa baitzen harakoa, begiratu beharra nuen. Oinak oina xaxatu eta arinago hasi nintzen, antxintxika ekin nion autoei izkin eginez. Arnasestuka sartu

nintzen tabernan, trebuka egin nuen aulki artean aurrera, inor agurtu gabe jokorako mahaira iritsi nintzen arte. Urbano Peña zegoen mutur batean eserita. Ez dakit nola egoten ahal zareten ke honekin, pentsatu nuen; ezetz erantzun zidaten, errautsez gainezka hautsontziak, Mateo Vallejo ez zela agertu.

– Ez dugu atzo ezkero ikusi, hemen beharko zuen arren.

Horretan ez zenbiltzan oker:

«Zu ez zaude itsasorako, aita».

Izpi batean atera nintzen, ez mahaietatik «nor izan da hori» entzuteko bezain azkar, ordea. Biraoa biribildu nuen ahopean, madarikatu egin nituen txokorjale haiek guztiak, eta zangoei eragin eta eragin jarraitu nuen ostera ere hasi berri zen euripean, kalean behera. Gorrian gurutzatu nuen errepidea, pasa nintzen Uriarterenetik, sartu nintzen portu aldera etzaten diren kalexketako batean eta oinez jaitsi behar izan nituen eskailerak, bareak helduta. Tximu eginda ileak, blai eginda nengoen, izerditan arropaz barne. Esku ahurrak izter gainean jarri eta arnasa bere onera hel zedin ahalegindu nintzen.

Motor-txikia ez zegoen han. Eta ezin zuen egon ilunabarrak moilan sartzen aurkitu zuelako, bi gizon zituela tostan: Mateo Vallejo eta Edwin.

–17–

Edwin Macapulay etxera heldu zen iluntzean sagar erreak jan genituen afalburuan. Hori zela itsasoko hotzari kontra egiteko erremediorik onena esan zuen Mateo Vallejok labea berotzen zen artean. Kresalak erotu egiten baldin badu marinela, errezil sagarraren mikatzak, azukrearen gozoak eta labearen beroak laguntzen diola etxera etortzen, ur gezak berak baino. Horrekin eman zion errematea erbestearen eta sagarren arteko kontu hari.

Gau hartan Edwinek ezin izan zituen oinetakoak bere Cebuko etxean erantzi. Lizawin aurreko asteetan bezain urrun zegoen, baina estreinakoz hilabete askoan lehorreko ohe epel batean lo egin zuen. Barreneko gela prestatu zion Mateo Vallejok, ezkondu aurretik zuk hainbeste gau bakarrik emandako hura. Zeureak izandako apaingarriak zituen artean, posterrak, Nikaragua sandinistatik ekarri zenuen zeramikazko ontzitxo gorri-beltz bat, auskalo zertan irabazi zenituen bi kopa merke, amarekin bizitzera joan zinenean gurasoenean utzi zenituen hamaika gauzatxo

han-hemen, inork ukitu gabeak ordudanik. Aitite Mateok zertarako zituen ez nekien kartoizko kaxez beterik egonagatik, asmatu zuen ohe ingurua libratzen. Neuk lagundu nion, Edwin dutxara bidalia genuela. Apal batzuk hustu genituen armairu zaharrean, non zen erakutsi genion, bere gauzak txukun antzean utz zitzan.

Petate hartan kabitzen zen haren mundua, baina. Kiratsa zerion eta, gaua atarian bazen ere, garbigailua jarri genuen. Bagenekien Maria ez zela ate-joka etorriko gure etxeko zaratak zirela-eta. Komunetik irten zuenean, zure pijametako bat utzi genion. Nasaiegi zeukan alde guztietatik. Txorimaloa zer zen bazekien galdetu genion, barre egin zuen berak ere. Sagarrak labetik atera zirenerako, karamelua ondo egina zuten. Eta lehenengo bider etxe hartan geundenetik, ez zen berogailurik itzali gau osoan.

«Abandonatu egin naute», idatzi nuen koadernoan. Ez nintzen, baina, neure buruaz ari. Ahoskatu ere egin nituen hitzok, eta hots ezaguna atera zuten, harribolak marea beheratzean bezala.

Luzaroan egon zen arratsalde hartan aitite Mateo Serenity Starren, ez zuen berehalakoan itzuli itsaso zantar hark. Zertaz aritu ziren zama-

ontzian biak bakarrik egon ziren ordu haietan, ez dit inoiz tautik esan. Lehorrera deitu zuten, ez dakit. Nola konbentzitu zuen Edwin etxera ekartzeko, ezta ere. Nire aldetik, berriz, ez naiz egundo ausartu galdetzen. Bien artean geratuko da dagoeneko. Kontua da gau hartan Edwinek dramatismorik gabe jokatu zuela, ez zuen haserreak hartu mendean, etsiak berak umore atzaparkada bat utzia zion mintzoan.

Baler-ko gotorlekua Cebutik bertan ez badago ere, espainolekin lan eginda ikasia zuen esaldia:

«Filipinetako azkena naiz».

Filipinetako azkena, grazia egin zidalako dut gogoan, orduan ulertu ez nuen arren. Eta haren begi margulek betikotua zuten gandua, bere etxean baino arrunt tristeago egin zuten irri.

Bataren hitzak bestearen mintzora ekartzen eman nuen afaria, alferlanean ari nintzela eman zidan zainak behin baino gehiagotan. Mateo Vallejok Edwini so egiten zion eragatik diot, besoak antxumatuta mahai gainean hitzak aletzen jarraitzen zielako haren azalpenei, nik hark ingelesez esandakoak itzultzerako baietz egiten ziolako buruaz, arrazoi zuela.

Sagarraren azala zuritzen ari zela argitu zigun Edwinek kontsulak berak esandakoa, nola agindu zion besteekin batera aterako zutela. Armadoreak saldu zuela azkenik ontzia, «oraintxe hitz egin dute ukrainarrek Atenasekin, hegazkin txartelak erosi dituztela, zor zaizuenaren parte bat berehala izango duzuela eskuan, eta bazoaztela, etxera zoaz Edwin, a zer zortea Edwin, ederra egongo da Cebu garai honetan, tifoi sasoia amaituta, hainbesteko berorik ez, Mactango hondartzak, trago bat Shangri-La hoteleko kafetegian, osteratxoa Fuente Osmeñan, neu joango nintzateke hemendik ihesi, neu egongo nintzateke zure tokian, Edwin».

Azpilean gelditzen zen kondarra atera zion Mateo Vallejok luzatzea kostatu zitzaion platerera. Koilaraz bildu zuen saltsa likatsua sagar lehertuari gainetik isurtzeko.

Guardia zibilak Serenity Starrera igo zirelarik, berarena ez beste guztien izenak zeuzkan zerrenda erakutsi zioten Edwini. Zirkulua hautsi zuen, kolpea sentitu zuen paparrean, larruz babestutako esku bat atzerantz bultzaka, «atzerantz!» zioena, «atzerago!».

– Edwin Macapulay –esan zien–, filipinarra.

– Zaude.

Behin eta berriro irakurri zuten, gora eta behera egin zuen zerrendan atzamarrak izenen gainean.

– Ez zaude hemen –azaldu zion burua zirudienak.

Egon behar zuela.

– Edwin Macapulay –errepikatu zuen birritan astiroago–, Edwin Macapulay.

Itxaroteko. Aldendu egin zen. Gizon handia zen, Malapascuako ura baino argiagoak zituen begiak guardia zibil hark. Zabalik gelditu zen pasaportea haren eskuetan. Gazteago zegoen erretratuan, urteak dira Manilan atereak zituela argazki haiek. El Pobladon bertan izan zen, Patio Bonitoko Politeknikotik gertu. Gorra zen erretratista, bakarrik bizi zen katuz inguraturiko etxe batean. Dei bat egin zuten Edwinen beraren aurrean. Eguna zabaldu gabe zegoen, baina hasiak ziren pixkanaka argiak pizten iluntasunaren hegitik harago sumatzen ziren eraikinetan. Masta nagusia ere ebakiko zuen haizea zebilen. Aurpegia estaltzen zion txano osokoaren ahotik, zigarroa erretzen zuen metrailetadun batek. Eskuargiaz kontsultatu zituzten karpetan zituzten paper guztiak.

Azken hilabeteetan lankide izan zituenak guardia zibilen lantxara jaisten hasi ziren. Dokumentazioa erakusten zioten begi-argiari lehenago. Gehienek besarkatu egin zuten agurtzeko. Karim izeneko makinista artegak futbol elastiko bat jarri zion esku artean, tropoiluan bilduta. Berdea zen, atoan ezagutu zuen.

– Nahiago dut zuk edukitzea –esan zion.

Izerdi hatsa zerion. Goizegi zela inork telefonoa hartzeko pentsatu zuen. Gero eta argi zuri gehiago ageri zen leiho beltzetan.

– Macapulay! –deitu zioten.

Itxaroteko. Dei bat jaso zuten gero. Lasai egoteko gaztigatu zioten, konponduko zela. Eta Guardia Zibilaren ontziaren argi urdina Serenity Starren popatik bazterrago, ardailaren eta uhararen atzean gero eta urrunago ikusten ari zela, ez zela handik pentsatu bezain azkar aterako etorri zitzaion Edwini.

Bakarrik gelditu zenean kubiertan, bildutako pankartak jarri behar zituela bururatu zitzaion. Amorrua zerabilen bultzaka. Gosaltzera jaitsi zen. Mahaian eseri eta gau erditik egina zegoen kafea berotu zuen. Lohi zegoen sukaldea, mahaietan bezperako afari hondarrak jasotzeke.

– Leher eginda nago, zuen baimenarekin –jaiki zen.

Toki guztietatik zuen nasai pijama.

Hurrengo egunean geratu ziren Mateo Vallejo eta Edwin bera atzera kontsulatura deitzekoak. Abisua pasea zen, gurean zegoela Macapulay, edozer behar izanda ere. Hara jotzeko telefonoa, edozein ordutan, «zain egongo gara». Ordurako baimena ere bazuen Edwinek barkua behin betiko lagatzeko, amaitua zen dena, erauntsia bezala atertua zen kazetariak telebistan gatazka deitu zuena. Burokraziaren akats bat besterik ez zen izan gizon bat hemen uztea.

– Isun bat, argiaren, telefonoaren, uraren faktura bidaltzea ahaztea bezala –argitu zion kontsulatuko idazkariak telefonoz bestalde.

Filipinetako kontsula ez zegoen, baina, inongo filipinarrik hartzeko. Hartu, lehendakariak hartu zituen erkidegoan ziren diplomatiko atzerritar guztiak. Hala agertu ziren prentsaren aurrean, kopak bekoki pareraino altxatuta, «demokraziaren, askatasunaren eta munduko herrien arteko elkartasunaren alde» egingo zuten topa. Ez ziren belartzara atera, ohikoa zen legez. Ateri bazen ere, ez zegoen batere gozoa kanpoan egoteko. «Ongizate gizarte global batean», erre-

matatuko zuen Justizia sailburuak, kopa pixka bat gorago. Maria etxekonekoaren alabak kontatu zizkigun xehetasunak, bertan zen, kanapeak, ardoak eta gainerakoak zerbitzatzera joanda.

– Ez daukat ikusitako guztia kontatzerik.

Gelara bildu aurretik, balkoira atera gabetan hurreratu ziren leihora aitite Mateo eta Edwin. Lausotuta zegoen kristala esku gainaz garbitu eta kanpoaldean galdu zitzaizkien begiak. Serenity Starrek, ilunpetan, zamaontzi dotorea zirudien, brankatik poparaino argiztatua.

Aspaldiko partez koloretako kraionak atera eta sagar batzuk marraztu nituen oherakoan, berdetik ilunerakoak sukaldeko mahai gainean, azukrearena izan nahi zuen orban zuri bat zutela gainean.

Etxean apopiloa hartzea ez zenuela gustukoa izango, begi bistakoa zen. Ezezaguna, atzerritarra, sosik gabea... eta gizonezkoa. Zuretzat ez ezik, alaba gaztea duen inorentzat ez zen, aukeran, etxean sartzeko lagunik egokiena Edwin. Are gehiago zuri baimenik eskatu gabe, halaxe egin baitzuen Mateo Vallejok. Horrenbestera heltzen naiz. Baina urteetan erraietan jaten eman diezun mamu guztiek Edwinen itxura hartu zutela, ondorengo egunetan ikusi nuen.

Bat-batean dena bihurtu zuen presa izuak. Etxe zaharra eraitsi eta planoen gainean berria eraiki behar zuen kontratista bidali zenuenean, dena azkartu zen lauron bizitzan. Mariak hala hartu zigun kargu, ea zer gertatzen zen, zakar aritu zitzaiola zuk bidalitako gizona, etxe zaharra bai, baina ez zitzaiola ondo iruditzen, eragatik batez ere, «zer esango dizut ba, Mateo, bizi osoa eman dugu harmonia onean elkarrekin, gauzak ez dira horrela egiten, zer dago honen atzean, Mateo?». Atea giltzatu eta batera odolak hartu zion burua Mateo Vallejori. Egundo entzun gabeko gorri-hotsean hasi zen, ahokadek etxea hartu zuten, lotuko zizun zamaontzi baten aingura oinetan, botako zintuen itsaso hondora egun hartan aurrean harrapatu izan bazintu, lazunek, baleztarrainek, karramarroek, izkirek, eltxarrek osorik jan zintzaten. Begietatik hasita.

Kanpotik ikusita, eta alea delako horrela esatea, bazirudien zeuk bidali zenuela Mateo Vallejo Serenity Starrera arratsalde hartan. Ezin egokiago etorri zitzaizun etsaia zure lehengo ohean aterpetzea, zure gaztetako posterrak, zeramika sandinista, latoizko kopa haiek izatea haren loaren atariko irudiak, zenuen apurra erabat etete-ko. Edwin zen behar zenuen aitzakia. Galdutzat

ematen zenuen, hasi gabe ere, aitite Mateorekin izan zenezakeen edozein berbaldi. Galduta zeuden ordurako Tereren familiakoekin bildu gineneko hurbiltze haiek. Nigatik erakusten hasi zinen kezka bakarra, berriz, atzerritar baten bazka izango ote nintzen zen.

– Neuk jarriko dizut kisketa –eman zenidan abisu arduratuegi ikusi ez ninduzun batean–. Lasaiago lo egingo duzu.

«Horra biontzat aurkitu nahi duzun etxearen aurreneko adreilua», pentsatzen dut orain, «hasi zara zerbaitetan, itzartu zara azkenik lozorrotik».

– Abandonatu egin nauzu –erantzun nizun ordea, Edwinek bezalaxe, ahopean, zuk ez entzuteko moduan.

Mateo Vallejok kontsularekin hitz egitea lortu zuenean, dena bere bidea egiten ari zela izan zen erantzun bakarra, ez ibiltzeko deitzen, uzteko eurei, izateko pazientzia apur bat, laster zela Edwin Macapulay etxean.

Kisketa, aldiz, denok kanpoan ginela jarri zenuen. Korriente bat.

–18–

Opor aurreko egun haietan galopan egiten nuen metrotik etxerainokoa institututik bueltan. Liburuak ohe gainera part bota eta ziztu bizian irensten nuen zegoena. Urteko arratsalderik laburrenak ziren. Eguraldiak hobera egin zuen, hegoa nagusitu zen neguaren hasiera hartan, eta zaharrenek urte batzuk lehenagokoak ekarri zituzten solasera.

– Galgoi ustel harekin, akordatzen zer giro maskal? Leihoak zabalik ezagutu ditiagu gabon gauean...

Ikasi egin nuen lasai egoten Edwinekin. Mateo Vallejorekin ematen zuen goiza, etxeko lanetan joaten zitzaizkien orduak, kalera ateratzen ziren, liburutegira joko zuten bestela prentsa edo beste zerbait irakurtzera. Edo basoerdi bat hartuko zuen Mateo Vallejok Toki Onan, te beroa Edwinek, iristen ez zen kontsulatuko deiaren zain. Han jarri zioten izena, Txinoa, edo Auschwitz. Izan behar du, Urbano Peña-eta hasi ziren horrela deitzen, alua izan behar du izen

hori emateko, Auschwitz, zer eta bestelakoa zuelako gorpuzkera.

Edwin eta aitite Mateo nola moldatzen ziren batak bestearena ulertzeko, ez dakit. Baina konpontzen ziren, hizkuntza berean aritzen zirela daukat sartua buruan. Galdetu ere egin nion, ea zer zekien Mateo Vallejok ingelesez. Askotan ez dagoela mintzatu beharrik erantzun zidan Edwinek, nahikoa zela bestearen barruan sartzea, ikustea nora daramatzan begiak, entzutea haren berbaroaren zera, erreparatzea eskuei. Itsasoan urteetan ikasi duen zerbait dela, ez dagoela besterik.

– Egoerak aurreikustea da.

Maite zuen hizketa Edwinek.

– Zurekin gainera –esaten zidan– erraza da, dena da errazagoa zurekin.

Eta ilundu aurretik zenbat denbora genuen neurtuta hartzen genuen labar gainetan egokitua zuten bidean barrena. Etxe berri asko eraiki zuten inguruetan azkenaldian. Miraz behatzen zien, ate aurre apaindu haiek, material ona, zenbat balio zuten galdetzen zidan, ez zidan sinesten. Londresez ere beti zuen itaunen bat, nork eta hamaika portutan ibiliak. Azaleko kontuak

baino ez nizkion esaten, begi gandutuak handituz eskertu zizkidanak, hala ere.

Hirugarren egunerako bateratuak genituen urratsak.

– Eta Mateok egongelako horman jarri duen zuhaitz hori?

Nahi gabe lortu genuen urratsa eta arnasa lotzea. Hala da, nahi gabe ikasten dugu hizketan arnasaren joan-etorrian, dabilenak badaki. Berez datorren dohaina da.

– Opari bat da.

Gaur izatera aterpea aipatuko niokeen, haurtzaroko lehenbiziko irudia babesa izan zuela urteetan Mateo Vallejok ezki hura. Ez nintzen xehetasunetan galdu, ordea. Artean ere lan handia eskatzen didan azalpena da bahitutako haurrena, are handiagoa gerra osteko larderiazko giroa zertan izan den. Nori gainera eta, hamaika aldiz errepikatuagatik gure giza jarrera batzuez ezer gutxi ulertuko zuen bati.

Ez baita aski begiei eta eskuei jarraitzea, Edwin, pentsatu nuen. Ez baita egia bestearen barruan sartzea nahikoa denik hau guztia ulertzeko, Edwin. Begira Edwin, goizak zurekin ematen dituen gizon txiki hori, bai, Mateo Vallejo, badakizu zer pasea den? Baina isildu egiten nin-

tzen, oinak entzuteko mututzen nintzen. Oinak, hauspoa, eta besoa soinaren kontra, urrats bakoitzarekin neurtzen zen arropen marruskatzea.

Hondartza gainetik pasa ginen. Andre bat zebilen pasieran, txakurra libre utzita. Itsasoak ekarritako egurki iluna hartu eta urrutira botatzen zion hark, lehorrera beti. Txakurrak ez zuen txokorra hartzeko ahaleginik egiten, ordea. Eroritako tokira iritsita, berriro xaxatuko zuen, berriro egingo zion keinu bera, segi, ekarri hori!, ekarri!, joango zen adar belztua airean, halako parabola bat eginez beti, baina txakurrak ez zion esanik egingo.

Zahartua zegoen seguru asko, baina jabeak ez zuen etsi nahi.

Goitik egon gintzaizkien begira. Neguko eguzkia limurtuz zihoan hondar bustitan. Berotu egin zela esan zidan. Jaka zabaldu zuen. Erantzi eta futbol elastiko bat zeraman azpian, berde higatu bat.

– FLNren ekipoa –esan zidan, atzamarra paparreko armarrira harro luzatuta. Ilargi eta izar gorriaren azpian, baloi bat, arabiar letrez inguratua.

Ez ulertu keinua egin nion.

– Aljeria. Aljeriako FLNkoa –errepikatu zuen.

Ostera ere oinez hasi ginenean kontatu zidan Front de Libération Nationale hark izan zuen futbol taldearena.

– Karim txikiak eman zidan opari Serenity Star utzi zuten goizean.

Istorioa, ederra du. Futbolzalea zara. Ezagutzen duzu?

Bi hilabete eskas falta zirela 1958ko Munduko Kopa jokatzeko, Frantziako ekipoetatik hogeita hamar jokalarik erbesteko bidea hartu zuten. Tartean Rachid Mekhloufi zegoen, AS Saint-Etiennekoa, Frantzia Suediarako sailkatu zutenetako bat.

Aljeria Parisen mende, Tunisian jarri zitzaien hitzordua. Eta futbolarien ihesa politikoa bihurtu zen. Batzuek trena hartu zuten Erromarantz; beste batzuk Alpeak zeharkatu eta Lausanara heltzen saiatu ziren, autoz. Frantziar zerbitzu sekretuak jakitun dira. Futbolari profesionalak dira, baina erbiak legez ehizatu nahi dituzte.

Azken izpiekin iritsi ginen itsasargira. Piztuta zegoen ordurako. Itsasoaren barea nola segatzen zuen begira egon ginen luzaro. Agurtu gintuen jendea topatu genuen. Atzealdean, Serenity Star ikusten zen moilako grisarekin nahastu-

ta. Zeru ilunetik hegazkin bat zetorren aireporturantz. Itzultzeko ordua zen.

Bat soldadu zegoen garai hartan, eta atzera egin zuen. Beste bat, Hassen Chabri, Frantzia eta Italia arteko mugan harrapatu eta azalpen sinesgarri baten faltan, espetxean sartu zuten. Salaketa: armak eta dirua pasa nahi izatea FLNri. Aljerren beteko zuen zigorra. Gehienak onik heldu ziren Tunisiara. Presidenteak berak hartu zituen.

Futbol taldeek kontratuak eten zizkieten. Elastiko berdearekin jokatzeagatik kobratzen zutena zeharo sinbolikoa zen. Ez zegoen ia dirurik, aljeriarrek borondatez emandakotik ordaintzen zitzaien.

Ilunkara zegoen berriro ere hondartza gainetik pasa ginenerako. Emakumea eta txakurra alde eginak ziren. Hondarrean idatzia, norbaitek ondo leitzen ez zen izena laga zuen. Berokia jantzi zuen atzera Edwinek.

Ez zidan hau dena esan. Gerora osatu dut neuk Edwinek emandako haritik tiraka. FLNko selekzioak 91 partida jokatu zituen 1958 eta 1962 bitartean. Hauetatik 65 irabazi zituzten, 13 berdindu eta 13 galdu. FIFAk ukatua, arabiar herrialdeetan aurkitu behar izan zituzten kontrario-

ak hasieran, Tunisian, Marokon, Libian, Jordanian, Iraken. Europa ekialdean gero, Jugoslavian, Sobiet Batasunean, Txekoslovakian, Bulgarian, Hungarian, Errumanian. Txina eta Vietnam izan zituzten zain gero.

Mohamed Maoucheri irakurri berri diot merezi izan zuela amets hark, futbolean egin zutela eurek Aljerko independentziaren alde, militanteak zirela, iraultzaileak. Damua, zerena.

Zinez oihartzun xelebrea du honek guztiak filipinar baten ahotan. Jakingo ote zuen zer esan nahi zion Karimek? Zaila zitzaidan sinestea. Beste hainbat gauzatan bezala, fede kontua da. Nik maitatzen ikasi nuena gizon haren ilusioa zen, haren begi margulak amaren mintzairan ari zitzaizkidala, nola heltzen zion kamisetari bera balitz bezala Mohamed Maouche.

– FLN, duintasuna –zioen.

Eta ez nion ezer esan, baina ez Karimek ez Serenity Starreko gainontzeko inork erakutsi zion futbolari haien laurdenaren laurdenik. Zer duintasun dago gizona bakarrik uztean? Filipinar bat kubiertan, Manilarako hegazkin txartel baten zain burokraziak abandonatua.

Pasaporteaz galdetu nion. Ez zidan erantzun.

Belarra motz egoten zen, zaindua, sarri ebaten zuten udaleko langileek paraje hartan. Neguko belaze iluna urratsen zain. Hitz egiteari utzi. Oinak entzun, arnasa, hitz egin. Aitite Mateo ekartzen genuen hizpidera isiltasuna luzeegia zitzaigunean:

– Zain izango dugu Mateo.

Eta Mateo Vallejo zain izaten genuen, afaria gertu. Zu, berriz, lehengo aldean sarri agertzen hasia zinen mahaira. Umoretsuago, beti zenuen zer kontatua, amarena izan ezik. Nire ondoan esertzen zinen, eskua jartzen zenidan gainean zeure ustez kontakizun barregarriren bat zenuenean, ni zurea nintzela esateko beharra bazenu bezala, ni zurea nintzela erakusteko nirekin denbora gehiegi pasatzen zuen (nola zenioen zuk Auschwitzi?, a bai), «kolaio siku» hari.

«Zurekin hitz egiten du?».

Harrikoa egiten hasi zinen, auskalo zer buruan.

Guk tea hartzen ikasi genuen berriro, amarekin egin genuen bezalaxe. Edwini azaldu egin behar izaten genion telebistan agertzen zen gauza asko. Harritu egiten zen, sarritan nahiago izaten zuen ohera erretiratu nik utzitako libururen batekin.

Orduan, hirurok bakarrik ginela galdetzen zenuen noiz arte gelditu behar zuen.

Eta zeure buruaren beldur zinela pentsatzen hasi nintzen, gai izango ote zinen gabonetan, ni Londresera amarengana joanda, oreka ikusezin hari eusteko. Hiru gizon etxe berean, eta zu hiruretan arrotzen. Ez zenuen gozoa.

«Joango da gabonetarako, ezta?».

Orduan utzi zenion esateari noiz jantziko nintzen neskago.

«Zurekin hitz egiten du?».

Isiltzen nituenek mututzen ninduten, baina. Baita aitite Mateoren aurrean ere sarritan. Min egiten zidan kisketa puta hark.

Zer zen zuretzat neskago janztea?

FLNko jokalariena kontatu zidan arratsean, etorbidetik egin genuen etxerakoa. Pauso arinean, afariaren pozean gentozen jendea sumatu genuenean zabaldu berri zuten taberna baten aurrean. Zarata batean ari ziren, gora-goraka zebiltzan, algarak nabarmentzen ziren tarteka, zerbait ospatzen ari zirela esango nuke. Beste espaloira pasatzeko keinua egin nion Edwini. Iristear ginela, ahots bat gangartu zen beste guztien artean. Ahots harro bat berbaroaren gainetik:

– Hi, Auschwitz!

Pausoa bizkortzeko agindu nion Edwini. Sartu ginen arbolapean, argilunen joko hartan, aparkaturiko autoen babesean, ez gintuzten hain garbi ikusten. Ahotsa ez zen atertu, ordea.

– Ahotik entzuten duk ala?

– Edanda zeuden.

– Txankamehe! Uki ezak neska hori eta...

Gurago begiratu ez banu. Osorik ikusi ez nuen keinua egin zuen, hatza zintzurretik pasatzen. Orroak nabarmendu egin ziren, gora zetozkigun algara iraingarriak. Edwin berehala konturatu zen. Zer zioen eskatu zidan, itzultzeko mesedez gizonaren berba hagindun haiek. Horretan genbiltzala, neure izenez deitu ninduen ahotsak:

– Egon hadi, egidan kasu, zerbait egin al din gizajo horrek?

Bizkorrago ekin nion. Laster nintzen kantoian.

– Egoteko esan dinat, ez al gara lagunak?

Isilik jarraitu nuen aurrera. Atzean gelditu zen.

– Hago, hire aitaren laguna naun!

Oinak entzun, arnasa, ez hitz egin, oinen ihesa argitik itzuri. Edwin atzean gelditu zela ohartzeke oinez. Edwin ikusi gabe oinez, ikusi nahi ezean nola jiratzen zen gangarrarengana

eta besoa igota nola luzatzen zion erdiko atzamarra.

Buruan darabilt oraindino: Edwinen atzamarra ilunpetan zut.

Harrezkero ez naiz honetaz inorekin mintzatu. Nor zen oihuka aritu zitzaiguna, ezagutu nuen. Luren hautsak zabaldu genituenean gurekin etorri zen motor-txikian.

Urbano Peña den galdetuko didazu, ohartuta zaudela Edwin etxean genuenetik etortzeari utzi ziola. Ez, ez zen Urbano Peña. Ordutik ahaztu ez dudan xira zuria zeraman, berak kendu zion tapa errautsen potoari.

Handik ezagutzen ninduen.

–19–

Abandonatua izatearen okerrena ez da bakardadea. Bakardadera ohitu egiten da, oina zapata berrira bezalaxe. Abandonatua izateak duen okerrena inork ahaztu zaituela da. Falta da, hustasuna, baina norbaitena, halakok zu bere bizitzatik egoztea erabaki duelako. Harremana funtzionala izan denean, eramangarriagoa egiten da guztia. Maitasuna egon denean tarteko, berriz, burutik egin arterakoa da gaitza.

Urteetan jakin eta isildu, zama horrekin bizi izan delako esango nuke bihurtu zela Tere etxeko. Zaharragoa da Mateo Vallejo baino, orduan gauza zen ingurua gaztetzeko, ordea. Ez zuk ez nik izan ez dugun harremana lortu zuen aitite Mateorekin. Garai bateko gaizki eginaren ordainak bazuela zerikusia honetan, ez nuke ezetzik esango. Are nabarmenagoa zen elkarren beharra zutela ohartu zirela biak. Bi familiek elkar ezagutzeko egindako bazkariaz geroztik, sarriago hasi zen etortzen gurera. Mateo Vallejok atzean utzi zituen hasierako lotsak, kanpokoa etxean sartzearena-eta. Elkarrekin egon ziren

aurreneko aldietan Terek biak odol berekoak zirela gogorarazten bazion ere, laster ikasi zuen ez zegoela iraganera jo beharrik bien artekoa estutzeko. Odol zahar kontuak atzean gelditzen hasi ziren. Jakin-mina ase egiten da, konpainiaren ederra ez.

– Bilbora noa, gauean helduko naiz.

Odolaren deia, baina berriarena. Eta ilunduta heltzen zen, eguna kanpoan emanda. Ordura arte egin gabeko gauzak egiten hasi zen Mateo Vallejo, kanpoan bazkaltzen, errio ertzean paseatzen, inoiz sartu gabeko tokietan sartzen. Ordurako baztertua zuen ia autoa, metroan egiten zuen joan-etorria.

– Zineman izan gara.

– Gaztetu egin zaitu andre horrek –esaten nion.

Nobioak ziruditen. Bularreko estutasun hura ere arindu egin zitzaion. Terek ez zion barkatzen. Jardunaren poderioz, tabakoari ere utzi zion.

– Berandu ezagutu dugu elkar.

Mateo Vallejok ez zion, nik dakidala, egundo aurpegiratu lehenago ez bilatu izana. Ez zion, nik dakidala, egundo gogorarazi non egon zen ordura arte. Tere zenean, berriz, Mateo Vallejorenera zetorrena, berau zen kalera ateratzeko eskatzen

ziona. Eta pasieran joaten ziren betiko osteratxoa egitera, Edwinek eta biok egiten genuen bidetik gehienetan, azken etxeetatik gehiegi urrundu gabe. Beste gizon bat zen. Besotik oratzen zion emakumeak. «Lehengusina dut», aurkezten zien bidean aurkitutako lagun eta ezagunei, gehiago esan gabe. Gertukoek soilik zekiten egia osoa, fraidearen semearena, familiak ahaztuarena, napalmak erretako haurrarena.

Portura eraman zuen batean, Terek konbentzitu egin zuen motor-txikia garbitzeko, kentzeko pintada itsusi haiek.

– Zuk ez duzu merezi horrela ibiltzerik, zer izan behar du, zu bezalako gizon bat horretara etorrita.

Etsia hartua zuena lastasua bezala piztu zen. Udaberria etorri zitzaion, egin zezakeela beste urtebetetxo bat pentsatu zuen, ez zegoela hain gaizki, bazeukala ateratzea ostera ere tximinoitan, kabratan, durdutan eguraldiak hobera egin orduko.

Abran mugimendua zebilen. Pestizida hatsa berriro dena hartzen.

– Gozoa jarriko da semea.

Eta barre egiten zuen zure begitartea imajinatze hutsarekin, zu baitzintuen Mateo Vallejok

gogoan, sinesten ez baduzu ere. Ni Londrestik itzuli eta gerora margotu zuen ondo lijatuta motor-txikia, eguna luzatzen hasia zenean.

Jakin-mina, Edwinekiko zuen. Arian, Filipinetako labirintoa xehatzen ikasi zuen, hiri nagusien izenak, Edwinen etxekoenak, Lizawinena ekartzen zuen berbaldira batez ere. Hango janaz erakusten zuen ardura Mateo Vallejok, barazkiak prestatzeko eraz. Bagoonga lortu zuen Bilboko aduanatik, tamarindoa, koko-esnea. Ahalegindu egiten zen, galderetan zuen ezagun. Nire koadernoa erakustekotan ere egon nintzen, bakoitzak bere mundua du, ordea. Eta egia, lotsa ematen zidan barrunbeetarako bide hura erakusteak.

Tere etxean zegoen batean deitu zuten kontsulatutik. Aurreko aldietako ahots bera zen, orduan ikasi nuen zer zen kontsul honorario bat, esanez «arazotxo bat» zegoela Edwinekin. Hirutan errepikatu zuen «arazotxo bat». Ez zegoela, dena den, kezkatzeko arazorik, laster konponduko zela dena.

Zirudienez, salaketa zuen jarria baten batek Serenity Starreko marinelen aurka txakur-borroken kontura.

– Ezin dizut esan nor den, ulertuko duzun moduan –argitu zuen.

Beste guztiak joanda, Edwin zen salaketari aurre egin behar zion bakarra.

– Ez du zentzu handirik, badakit –jarraitu zuen kontsulak–. Baina badakizu nolakoa den makina absurdo hau.

«Makina absurdoa». Kontsulak berak esan zuen, «administrazioa» esan nahi zuen baina. Berehala askatuko zela korapiloa, izateko pazientzia apur bat. Horretarakoxe deitzen zuela.

– Ez da epaiketarik izango. Ea gabonetarako etxean den.

Orduan ohartu ginen. Mateo Vallejok ikusi zuen balkoitik.

– Serenity Starra ez dago!

Eraman egin zuten, moilaren batean lotuko zuten, husteko ezer bazen, auskalo nora gero. Agertu zen bezalaxe desagertu zen Serenity Starra gure begien aurretik. Eta ontzi gehiago izan arren estibaren zain, Abraren hustasuna ikaragarria zela iruditu zitzaidan. Hagin bat galtzen dugunean legez.

– Ezer bazenuen kamarotean?

Negarrez ari zen Tere. Egia zen aitite Mateoren antza zuela, musualdean, sudurrean, ezpain

harro haietan. Alaiak izanagatik, erraz jotzen zuten tristurara biek. Garrantzirik gabeko gauza batzuk aipatu zituen.

– Erraza da abandonaturiko ontzi batetik nahi duzun guztia eramatea, aduanetakoak dira okerrenak –esan zuen Edwinek–. Poliziak berak dira ebasten nagusi. Ontzi bat desguazera doanean era guztietako lapurrez betetzen da. Ez da aurreneko aldia hori ikusten dudana.

Prismatikoen bila joan zen Mateo Vallejo.

– Geurekin igaroko dituzu gabonak, hemen bazara behintzat –esan zuen Terek orduan.

Hurrengo egunean Toki Ona atarian Urbano Peñak aitite Mateori aparteko batera deitzen ikusi zuenean, gonbita erretiratu egingo ziola izan zen Edwin Macapulayri burura etorri zitzaion lehenbiziko gauza.

– Zergatik? –defenditukо zuen Terek Mateo Vallejoren aurrean.

Poliziak eta portuko langileek Serenity Starreko barrunbeetan aurkitutako kaiola ugertuek ez zuten beste aukerarik ematen gehienen ustez. Kontua gezurra baino arinago zabaldu zen. Egunkarietako argazkiek agertzen zena zioten. Hiru kaiola handi, herdoilak janda sarrailak.

– Hik badakik egia dela, Mateo –harrotuko zuen ahotsa Urbano Peñak–. Neuk bezalaxe ikusi duk jende hori.

– Zer diok?

– Txakurrak jaten! Itsasoko urteak zer, ahaztu bat-batean ala?

Hori zen Toki Ona. Betiko mahaiak, betiko egunkariak, betiko jarduna. Gertakizun batek gainontzeko jazoera eta sentipen guztiak azaltzeko balio balu bezala. Nekatuta sentitu zen Mateo Vallejo. Kalerantz jo zuen. Iruditu zitzaion zerurakoan biluzik gelditu zirela. Eraikin margotu berri bat, toldo zuri-gorria zuela etxepean. Kiniela. Loteria. Botea. Umeak autobusetik behera jaisten. Lainezak hartutako ahoak. Patinetean doan bat. Ia behegainera bota duen bultzada.

Ibilera pausatzeak lagundu egin zion hitzei beroarena kentzen. Urbano Peña noiztik ezagutzen zuen pentsatu zuen. Elkar aldatzen ikusi zuten urte haietan guztietan, heltzen, zahartzen. Gizon dotorea izan zen beti Urbano Peña. Itsasoan emandako sasoiak hartu zuen, ikastola aurrera ateratzeko egindako lanak, garai ilunetako kaldan biak beti. Inoiz baino urrunago zuen. Bien arteko harremanak ez ziren inoiz errazak izan; denborarekin asmatu zuten elkarrengana molda-

tzen, ordea. Hori dena bazihoan. Eta bere burua-rekin harritu zen Mateo Vallejo, zein normal ze-raman hura guztia.

–20–

Orain, han-hemenka memoria historikoari dei egiten zaiolarik, hasieran pentsatu aldean asko dituela honek tolesdurak ohartzen zara. Ez dira bide ertzetako hobiak soilik, fusilatuen uhalak, kaskezur zulatuak, gorrotoaren bala-zorroak sakanean lo, nork aurkituko. Hala balitz sikiera. Horien gaineko airea, larderiaren estalkia da astunena, ustez guztia betirako iluntzeko zabaldu zena. Galtzaileen isiltasuna bermatzea da, harrokeriari soineko eder bat egitea, moralik garbienaren izenean umeak ebastea.

Mateo Vallejo haur haietako bat izan zela, biok leihotik begira geundela atera nuen aurrenekoz solasera. Ez dut ahaztua nola esan nion amari:

– Birritan ostutako umea da aitite Mateo, ohartzen?

Aitite Mateo erabili izan dut beti amarekin, orain zurekin Mateo Vallejo bezalaxe, ez baita bera zure aitak egin beharreko bidea. Ezta neure barnean ere, ez pentsa.

Hezurtsuagoak zituen atzamarrak amak, ezinago zuri eraztunarekin jolasean. Kaleburuan, mutil koskor batzuk hizketan. Adreiluzko hormaren atzetik agertu zen furgoneta beltzak bozina jo zien aldamenetik pasatzean. Antxintxika batean ekin zioten orduan atzetik, putzutan txiplitxapla. Gogoan dut nola indartu nion ostutakoarena, ahaztua zuen beldurrez. Bi aldiz, lehenbizikoa, mantuxetakoa izatera ere iritsi ez zenean, hilda jaio zela esan ziotenean haren amari. Bigarrena, ezki bat baino ez zuela oroimenean, baserritik jaitsarazi eta mihi gaiztoetatik babestu zuten haiek betirako galdu zituenean.

– Tren hotz bat Bilbora bidean, ama.

Bagoiko leihotik begira, aurrena landa beltzak eta gero auzune periferikoen iluntasunak kutsatu ninduen Stanstedeko aireportutik Kattyren etxera. Burdinazko gurpilak labainka zihoazen errailen gainean. Labainduz tenperatura arrotz hura, ninietaraino sartzen zena. Hegazkinetik jaitsi orduko zain nuen aire grisa, lika bezala eransten kristalaren bestaldean erdi-ilunpetan ageri zitzaizkigun kaleen, nasen, trenari itxaroten zioten bidaiarien zapata gainetan. Gabon argirik ez inon. Estreinako aldia nuen bakarrik egiten nuena bidaia. Eta etxerakoa aireporturaino

bila joan zitzaidan Kattyrekin bekoz beko egiteak ez zuen askorik epeldu. Ez nion erdirik ulertzen hasieran, eta hotz nintzen, iluntasun hura begimintzetan. Trenetik jaitsi eta metrozuloak irentsi gintuen. Bakantzen hasia zen jendea, zapata zolak zoruaren kontra jota ere joaten ez zen hozmina. Mamorro txiki batzuk ziztaka oinetan, min eman arteraino.

Ate aurrera iristerako, zenbat aldiz berregin nuen neure gogoan gertatuko zena? Pozetik nuena nuen urduritasunetik, eta orain damu naiz alaiago ez agertu izana amak zabaldu zuenean. Zer galdetu behar nion, heriotzaz? «Maite zaitut» esan behar nion aspaldian esan gabea banintzen? Beldur nintzen, eta ez amarena.

– Ekarri poltsa, zure gelara eramango dugu. Afaldu gabe egongo zara.

Lagundu egiten du larritasuna letra xehetara ekartzeak. Eguneroko kontuekin hasi, momentuan egin beharreko txikikeriak ekarri hizpidera. Areago, askotan ez dago denbora erretzeko beste modurik.

– Dutxa bero bat hartu nahi izango duzu beharbada. Esnea berotuko dizut, begira, edontzi honetan.

– Hori baino txikiagoan, nahikoa dut.

Baso bat esne baino ez nuen nahi. Eta ohea, hurrengo eguerdira arte babestu eta mintzo egokia ekarriko zidan ohatze biguna gela arrotz batean, poster zaharrez inguratua.

Eroria zuen irria amak. Zenbat denbora ikusten ez nuela?

– Orain ez da inor gorrotatzeko unea.

Kendu gabe zuen eraztuna. Une batez, ezinezkoa pasa zitzaidan burutik. Beharbada maite zintuela artean. Zergatik ez zinen baina nirekin igo hegazkin hartara?

«Eta amari, ez diozu niri adinako ezinikusirik? Horretara ezkero, berak ere abandonatu zaitu...».

Burlaizez esan zenidan, zeure burua irteerarik gabe ikusi zenuen batean. Zuk ere beti jakin izan duzu min ematen nahi izan duzunean.

Kaxmirrezko zapia zeraman bildua buru bueltan, orban urdinkaretan ezinago eder, korapiloak loki gainetan zituela. Ez nion hilko zen galdetu, sinetsi beharra nuen garaiz erauzi zizkiotela erauzi beharrekoak. Ez zen umetokirik gabeko emakume bakarra izango. Neke doiaz altxa eta mahai gaineko argia isiotu zuen. Osorik estaltzen ez gintuen epeltasun-izara gorrikara. Kalean, haurrak hormara itzuliak ziren.

– Zer uste duzu, ez zela horiek bezain zoriontsu izan?

Ezina zitzaidan, baina, oina iraganeko hormaren kontra imajinatzea Mateo Vallejo, haren adineko mutilekin berbaz, zerbaiten trukean, bihurrikeriaren bat gertatzen, trapuz egindako baloi bati ostikoka. Zergatik ez dakidala, bakarrik agertu izan zait beti. Urbano Peña-eta gainerakoak, dezentez gerokoak ziren guztiak, Bilbotik amonarenera ezkontzeko atera zenekoa. Gorrotatu, nor gorrotatu behar nuen, gainera. Orduan mapan kokatzen ere asmatu ezin nuen komentu bateko ortu ostean lur emandako hezur mordo bat? Haren anai-arrebak, isiltasuna senide baten hilotzaren barnean zihoala ikusirik pozik? Apaizetatik hasita udaletxeko idazkariarenganaino, orduko gizartea osorik, eta «gizajoak» esan neure artean, «ederragatik libratu gara» esan, eta poztu?

Arazoa nuen hitzekin orduan ere, ez dakit gorrotoa den egokiena. Horregatik ere idazten nuen, paperean sinesgarriagoak zitzaizkidalako hitz haiek, denbora gehiago nuelako esanahian ondo pentsatzeko. Bestalde, zer hitz erabili behar nuen Edwinena azaltzeko amari? Errukia ez niola aipatuko, garbi nuen. Elkartasuna, han-

patuegia zait orain, sano normalagoa zen gertatu zen guztia. Laguna, berriz, badakit ez zuela ondo hartuko, ez zuela ulertuko. Ezin du hamahiru urteko neska batek gizon gazte bat lagun izan, ezta Mateo Vallejok berak xehetasunez azalduta ere nola eta zergatik sartu zuen Edwin etxean.

Orain ohartzen naiz errazagoa dela berez ezezkoan ematea, hori ikasi dut, eta injustizia aipatuko nion, merkantilismo inhumanoa, munstroaren ahutzak, labanak bezain zorrotz. Baina ni tartean egonda, hala gertatuko zen, alferrik ziratekeen nabieren logikei eta giza kondizioari buruzko azalpen haiek guztiak. Gainera, kontatzen hasita, dena kontatu beharko niokeen, baita hegazkina hartu bezperakoa ere.

Gau hartan, izara arteko babesean, koadernoa poltsaren hondotik atera eta azken eguneta-koak leitzen eman nuen, harik eta ez dakit nondik sartua, loak heldu eta Mateo Vallejo amagandik bezala bahitu ninduen arte. Eta gau hartan, benetan diotsut, ez zen inor agertu loaren etxean. Ez ama, ez zu, ez aitite Mateo. Ezta Edwin ere.

– Aitak ez diozula hitzik egiten dio...

Arrazoi duzu: mina da komunikatzeko erarik onena. Egunak ematen zenituenean ni ikusi gabe, denboraren poderioz ikasi dudan zerbait esan nahi zenidan. Ni ere, isiltasunak liluratuta, dena esaten ari nintzaizun.

– Ez da inor gorrotatzeko unea.

Eta orain, amarekin izandako elkarrizketak atzera berregiten nabilelarik, ohartzen naiz on beharrezko abisua zela gorrotoaren kontu hura. Menturaz ispilura hurreratzen zen bakoitzean heriotzaren itzala ikusten zuelako nahi ninduen herratik askatu. Komunean sartu, kisketaz itxi, zapia erantzi eta keizu hura, bihar-etzietakoa atzaparkaka gainera amiltzen, ni uztearen pena, eta kimioaren osteko metal hats astuna, ispiluan lurrunik ere uzten ez zuena.

Inoiz, goiza zabaltzeko artean falta zela, ohetik jaiki eta ondoan etzaten nintzaion, umetan bezala. Lasaia zuen loa, tximeletarenak egiten zitzaizkidan keinuak egiten zituen betazalekin esnatzeko ordua hurreratu ahala, eta itzartzekotan zegoela sumatzen nuenean, laztan txikienik ere egin gabe, neure gelara itzultzen nintzen.

Handik gutxira sentitzen nuen ura konketako txorrotan behera, komuneko bonba, lehenbiziko eztulak, hasperen sakonak atepetik behelainoa

balira bezala ihesi. Gero sukaldera igaroko ziren hotsak, etxean bazen bederen beti amaren ostean jaikitzen zen Kattyrenekin nahasten zirenak. Tea berotzeko ontziarena, katiluak mahai gainean, lagun bien arteko elkarrizketen oihartzuna.

Eta usain festa hura. Pare bat aldiz irten nuen auzoan bertan zegoen hipermerkatu handira, Kattyrekin. Orain normalagoa da, baina exotikoa zitzaidan mundu hura orduan, sano. Gustuko nuen zapidun andreen eta turbantedun gizonen artean tandorirako hautsak, currya, kurkuma hautatu eta geure otarretxoan sartzea.

– Zein dun neska polit hau? –galdetu zion behin Kattyri ordain-kutxako neskak.

– Neure alaba. Zer irizten dion? Bere aitak oraintxe itzuli zidan, hamahiru urterekin, traba egiten diola eta –eta musu eman zidan.

Barrez lehertu zen bestea.

Adierazten erraza ez den plazera ematen zidan babesten ninduen hura guztia hain urrun nuela jakiteak.

Gabon eguna zen Mateo Vallejorenera deitu genuenean. Katty azken erosketak egitera aterea zen, eta haur bi bagina bezala eseri ginen ama eta biok elkarren ondoan, irribarre txikiak

eginez batek besteari. Aurrenekoan hartu zuen telefonoa aitite Mateok, harritu keinua egingo zuen, hortzak erakutsi arte zabalduko zituen ezpainak. Kostatu egin zitzaion hastea, hizkuntza aldatzea ez da, amarentzat ere, galtzerdiz mudatzea. Baina ekin zion ibiltzeari. Hotzaz eta euriaz aritu ziren aurrena eta, amaren erantzunengatik, garrantzirik gabeko beste kontu batzuez gero. Haren eskua nirearen bila sentitu nuenean, ordea, zerbait larriagoaz zihardutela ulertu nuen. Zugatik ari zirela etorri zitzaidan berehala. Oker nengoen. Atoan pasa zidan tutua, neuk zuzenean hitz egin nezan.

Edwin joana zen etxetik. Gau bi zeramatzan kanpoan, eta ez zuen itzuliko zen itxurarik. Bularra estutzen zion arnaskera batek eman zidan albistea. Ez zuen ondo hartu ihesa Mateo Vallejok. Errua aipatzen zuen, zer egin ote zuen gaizki, non ote zebilen, negu beltzean gainera. Ea zer gertatu zen. Ez zekiela. Ohar bat topatu zuen sukaldeko mahai gainean, eskerrak emanez. Logelara joan eta hustasun hura, beti bezain handi ostera. Ez, maleta falta zen. Nahiak harrapatu omen zion gogoa hasiera batean. Kontsulatura deitu eta ezetz; gainera, pentsatzen zena baino luzerago joko zuela Edwinen etxerakoak. Abisua

heldu zela auzitegitik, ez zuela irteteko baimenik eta itxaron zezala pitin batean, epaileak pare bat kontu argitu artean. Deituko ziotela.

– Non ote dabil?

Zuri galdetzeko, hala etorri zitzaidan hasieran. Zuk jakingo zenuela zer esan zenion etxetik tankera horretan alde egitera behartzeko. Txintik ez ateratzea erabaki nuen, ordea. Amaren eskua nireari lotua, aitite Mateoren ondora nindoala uretara eror ez nendin. Urrezko eraztunak berotu egiten dira horrela, jakin duzu inoiz?

– Itzuliko da, zaude lasai –esan zidan.

Baina biok genekien ez zela horrela izango. Gau hartan ez zen Tererenera bilduko, ezta hurrengo egunetan ere. Lehengusu galduek elkar topatzearen lehenbiziko gabon jaiak ez ziren espero bezain alaiak izan, Edwin falta zen. Aurreneko aldiz azken urteetan, etxetik kanpo egin zuen lo Mateo Vallejok. Eta aurreneko aldiz, zapata jartzera behartu zuten sarrera ondoko gabon-zuhaitzaren ipurdi ondoan, besteekin batera. Ume txikiek bezala, ez zuen lo askorik egingo.

– Badakizu nola gobernatu ninduten!

Hurrengo egunean deitu genuenean, ez genuen inor harrapatu lehenengoan. Ezta bigarren-

goan ere. Leihotik begiratu eta inor ez zebilen kale hutsetan azkenik haren ahotsa entzun nuenean.

Nik banekien ez zela jankadarena baina. Aitite Mateok beste zerbait zerabilen erraietan.

– Kalean ikusi dutela esan didate.

Gezurretan ari zela sartu zitzaidan barruan. Haizea aldatu zuela esan zidanean bezala, ez ohiko epeltasuna sentitzen zela, olagarrotan joateko giroa egiten zuela, «horrela segitzen badu, joango gara atzera ere, Nerea». Artegatasuna lokartzeko gezurrak ziren, bion artean alferrikako minik nagusitu ez zedin.

– Laster naiz hor, aitite.

Gau hartan arkatza hartu nuen aspaldiko partez. Idatzi ez, koadernoa luzetara jarri eta eskuari utzi nion, paper gainean limur zedin. Lotsor hasieran, gero eta marra lodiagoz barruak asaskatu arau, gerri zabaleko soin bat agertu zen itsaso aurrean aulki batean jesarria. Eta beste bat gero haren ondoan, zozpala baino argalagoko gizonezko batena, besoa neskaren bizkar atzetik zuena.

Amaitu orduko, zirrimarraz ezkutatu nahi izan nuen amaitu berri nuena. Labana nahi zuen izan arkatzak bi soinei sastaka. Orria koaderno-

tik erauzi eta, xehatuta, komuneko zulotik behera bota nuen. Begirik kendu gabe egon nintzen. Kostatu egin zitzaion. Desordenan irentsi zituen paper zatitxoak tutu beltzak.

– Ondo zaude?

Eta barrua erretzen zidan kontu bat nuela esan nahi nion amari, «Edwin da, ama. Bada esan behar dizudan gauza bat».

–21–

Nik uste dut ez duzula egundo pentsatu inoren gogoan egon zarenik. Miraz ibili zara apartera begira, hain da ederra ederrik bada; gero eman duzu begia hurrera eta pentsatu duzu: «ez dut inguruan dudana merezi. Zertarako esango diet ezer, ordea, ez badidate behar dudana emango?».

Esadazu aho betean, biok baino ez gaudeeta. Zer nahi zenuen, hego batzuk, esaterako? Horrela begiratuta, ez zabiltza oker, lasta handia izan gara gora egin dezazun. Aita ferrobiarioa, Bilbora egokitzen asmatu ez zuen emaztea, egundo nahiko neska iruditu ez zaizun alaba... eta bizitza bakarra, zuri ere badoakizuna. «Zuengatik ez balitz», egin izan zenigun zemai behin baino gehiagotan, «zuengatik ez balitz...», haserre zeure buruaz.

Gugatik ez balitz, zer?

Luze hitz egin nuen amarekin zutaz Londresen eman nituen egunetan. Bazkalosteetan, ohetik jaikitzen zelarik esertzen ginen egongelan. Etxean fortunatzen bazen, Katty ere biltzen

zitzaigun. Sasoi hartan maitalea zuen, eta bizitzak eztitik ere bazuela kontatu beharra. Atzera jaiota ere inoiz ulertuko ez dituzun gauzak esaten zituen. Senarra akordura ekartzen laguntzen ziolako maite zuela porrua baino luzeagoko gizon hura. Horrelakoak. Areago esango dizut, maitaleari berari esaten zion hori. Ibilera baldarreko bus gidari bat, esnea baino zuriagoa.

– Ai, non ote dabil nire gaizki egindako opila! –deitzen zion.

Barre egiten laguntzen zigun Kattyk.

Beti zeukan zerbait labean. Gozo kontuan aritzea gustatzen zitzaion, eta ez zen txarra, eskua zuen. Amak tea egiten zuen eta, kanpoan argia bazihoalarik, maite izan zituztenen gainean mintzatzen ziren. Erdigunera jo gabe eman nituen hamar egunak. Auzunean ibili, beste etxe batzuetara joan bisitan, orduan hemen ikusten ez zen bigarren eskuko jaka haietako bat erosi. Ez da Kensal Green auzune txarra berriz bizitzen hasteko, bertakoa bazara.

– Erdigunera zertara? Turista horiek bezala, erreginaren kuleroak ikusteko esperantzarekin batetik bestera oinetan babak atera arte? –esaten zuen Kattyk.

Eta lehertu beharrean jartzen gintuzten gangarkeriok, bakoitzak bere baitan zituenak osorik erakutsi gabe.

Nik badakit neure gelan biltzen nintzelarik elkarrizketa beste sakonera batzuetan sartzen zela, zaparrada ostean zerua baretu, euri usainak zokoak hartu eta ura zirrikituetan behera doanean bezala. Behin, ez dakit zertara zetorren, gauza askoren gainean ezjakinak ginelako ginela zoriontsuak bota zuen amak, edo gure ezjakintasunak egiten gintuela zoriontsu, halako zerbait. Orduan uste dut erabaki nuela barruan nerabilena neure baitan ustelduko zela. Zaparradak zuloan behera bildutako orbel bustia irentsitako estolda nintzen.

Zugatik ez bazen izan, pentsatzen hasi beharra nuen zergatik alde egin zuen Edwinek Mateo Vallejoren etxetik. Zalantzan ibili naiz, baina esan egingo dizut, hara: hegazkina hartu bezperan, pasieran irten genuen Edwinek eta biok. Farolerantz joango ginen galdetu nion, telebista aurretik urruntze aldera. Neguko arrasti zoragarri horietako bat zen, eguzkiak ez zuen epeltzen, baina tarteka begiak kizkurtu, izpiak edan eta azala laztantzen zidan haize-hariekin jolasten nintzen. Alai nengoen. Eskolak amaituak ziren,

ama ikusiko nuen hurrengo egunean eta banekien Edwin ondo egongo zela Mateo Vallejorekin kanpoan nintzen bitartean. Terek gonbidatuak zituen biak gabon gaueko afarira eta natibitate eguneko bazkarira. Atzo izan balitz bezala akordatzen naiz denaz, zer kamio hartu genuen, nola gindoazen jantzita, nor aurkitu genuen bidean. Poltsa egiten eman nuen goiza. Amarentzako gutiziak hartuak nituen. Nezeserra osatzeko behar nituenak, osteratxoa ondoren erosiko nituen Uriarterenean. Eta koaderno berri bat. Ahazteke, Bolutxuko gozoak, Kattyrentzat.

Urratsa behartu gabe abiatu ginen, aldatsa berdindu genuen. Platanondoek porlanezkoak ziruditen, hain zabalduak, hain soilduak. Hilerri parean Edwini agur adeitsua egin zion bikote gazte batekin egin genuen topo, hizketan geratu ginen, egunen batean afari-legera agertzeko ere gonbidatu zuten, «zatoz gurekin nahi baduzu selekzioaren partida ikusi, gabonak horretarako dira», esan zuen neskak, «urtean zeharreko martxa eroak uzten ez diguna egiteko egunak dira». Mutilak irri baino ez zuen egiten. Berehala ulertu nuen ez zekiela ingelesik. Ez dakit nondik ezagutzen zituen, baina gauzak ez zihoazkiola hain gaizki pentsatu nuen. Kontsulatutik laster deitu-

ko zuten, salaketarena konpondua zela eta egiteko poltsa eta agurtzeko lagunak, aterea ziotela etxerako txartela esango zioten. Beldur ere banintzen, Londresen nengoela helduko ote zen baimena. Erabakia nuen ez agurtzea, ordea.

Eta bai, beharbada ama zuzen zegoen, ezjakintasunak egiten ninduen zoriontsu. Zenbat etxe berri egin zituzten, horretaz aritu ginen, nor bizitzeko baina, nork ordaintzeko. Zure izena atera zuen, ea zenuen kargua izanda ezin zenezakeen haietako bat erosi. Ez nintzen ausartu buruan nerabilena esaten. Gaia aldatu nuen, goldatu berri zirudien itsasoak, uralitazko azal harekin. Tximinietatik ez zen kerik. Hegoak garbitua zuen dena. Ontziak lasaitasunez bazkan Abran.

Nola ospatzen ziren gabonak bezalako egunak zamaontzietan galdetu nion Edwini.

– Oparirik egiten diozue elkarri?

Futbol elastikoarena ahaztua nuen bota zidan.

– FLN –esan zuen–. Aljeriarren taldea, akordatzen?

Zorionak zorrotza du hegia, ordea. Makurtzen hasia egonagatik, eguzkia gora zen artean muturrera iritsi ginenean. Labar gaineko txilarretan,

bikote bat zegoen musuka. Bulldog bat zuten aldamenean, belardi soilduan eratzana.

Aulkietako batean eseri ginen, itsasoari begira. Luzaz egon ginen isilik. Bi emakume pasa ziren haur-karrotxo banarekin. Lizawinek eman zigun hizketarako gaia, piztuta zituen begiak, faltan zuen umea.

Gure gainean, sabel urdina zirudien zeruak, hegazkin hegoek zauritua.

«Txartela eta pasaportea, mesedez».

Esan behar nion Edwini, menturaz ez genuela elkar gehiago ikusiko atera zitzaidan.

Nola ez dakidala, isiltasuna astunago bihurtu zen. Muinean, hormaren itzala gero eta etzanago. Zain nengoen noiz hasiko berbetan, baina eskuek hitz egin zuten arinago. Ohartu nintzenerako izterrez izter nuen Edwin. Haren besoak bildu ninduen, ondo ulertu ez nion zerbait xuxurlatu zidan belarri ertzean. Ezaguna nuen ordurako mikaztasun gozo haren usaina, jengibrea zen, koko esnea, egur gorrikara. Bakardade hitza entzutea iruditu zitzaidan. Ez zen maitasuna, ez pasio hutsa, laguntza eskea baizik.

«Ez kendu iritsi arte».

Barregarri sentitzen nintzen, aireportuko kakaumeena dokumentazioa eta ontziratze txarte-

la gordetzeko plastikozko zorrotxo harekin. Lepotik zintzilik, berokiko botoian katigatzen zitzaidan lokarria. Uniformedun emakume batek lagunduko zidan eserlekuraino. Kontrola pasa aurretik agurtuko nuen ama.

«Zer, joango gara?».

Kendu gabeko eraztuna zeraman eskuaz atzeratu zidan ilea. Amaren ezpainen beroa masailean. Azken unean erabaki zuen aireporturaino laguntzea. Indartsu ikusi zuen bere burua. Orduan sartu zitzaidan ateratzen hasia zela, erabat kiskaliko ziotela karramarro zerri hura betirako hustutako sabelean.

Eta orain, denboragarrenera, nahastu egiten zaizkit irudiak, nahastu ezpainak, laztanak, txerak. Esku arrotz bat bizkarrean, sorbaldan, lepoan laztanka. Farola piztu gabe. Atzapar bat nikia praketatik atera eta azalaren bila. Mihia ezpain artean barrura. Tuaren epela. Besoaren indarra, bigarren ahaleginean libratu nuena.

Eta ez nuen barrurik izan amari ezer esateko Edwinez. Nahikoa zuen zuenarekin. Mateo Vallejo ere ezer jakin gabe joan da, zaputzari nion beldurra, erori egingo zitzaion etxean hartu zuen gizona. Eta zuri berriz, zer esan behar nizun, kisketa puta hark arrazoi zuela?

Arineketa batean atera nintzen. Atzera begiratu eta Edwinek aulkian eserita segitzen zuela ikusi nuen, burua jakizu non.

Orain, ordukoa ekarri nahian nabilela, kostatu egiten zait irudiak elkarrekin taxuz lotzea, benetan izan zuen neurria ematea keinu bakoitzari. Zenbaterainokoa izan zen eta nola gelditu den akorduan. Lanbro errea da denbora. Horregatik hartu izan ditut oharrak, denboraldi batera berrikustean, euriaren kalteak albait arinenak izan daitezen. Orain ere ez naiz euri errearen gainean ari? Batzuetan konturatzen naiz beren-beregi lausotu ditudala marrak, bizitzen segitzeko. Beste batzuetan, ondoren gertatuak erraustu duela oro.

Koadernooi begira aritu naiz. Lerro bakar bat ere ez muturrean geundela gertatu zenaz. Argia isiotu dut. Eta orain zaila egiten zait gertatu zena izan zen bezala berregiten. Amarenean nengoenekoa behar du apunte honek: «Une hauek guztiak galdu egingo dira, malkoak euritan bezala». Ez da nirea, garbi dago. Non edo nondik atera nuen, liburu bat edo film bat izan zen, saiatuagatik, ezin naiz akordatu. Eta denborak nola, erre egiten nau ezin gogoratu izanak.

Sarari galdetuko diot.

– Blade Runner –esango dit.

Eta berehala heldu zait argia: Kattyrekin ikusi nuen telebistan, ama ohera joana zela. Eta ezetz jakin zergatik zegoen hain gustura maitale azalzuri harekin? Ez duzu asmatuko, hain da sinplea: barre eragiten ziolako. Nahikoa omen zuen harekin.

Orain, orduan esan ez nizkizunak agerian utzi eta gero, badakit zer pasa den zure burutik. Damua indartu zaizu Edwin etxean sartzea onartu zenuelako. Mendeku gosea hazi egin zaizu alaba ukitu zizulako. «Zikindu», pentsatu dut une batez. Ikusi egiten dut: boligrafoa labana legez daraman esku dardarati bat, zintzur, sabel, begi baten bila.

Esan dizut, neuri ere, zaila egiten zait gertatuari neurria ematea.

Ondorengo egunek mudatu egin baitzuten dena. Mateo Vallejok Edwinen berri ez zuela aitortu zidanetik, denak hartu zuen beste dimentsio bat. Zugatik izan zela pentsatzetik nigatik izan zela pentsatzera pasa nintzen. Txakur borroken epaiketaren mamua ere, hor zegoen. Edo beharbada dena zen bat. Nik dakit ba, egizu kontu atzerritarra zarela, ia bi urtez zabiltza

etxetik kanpo eta ezin zara besteren moldeetan egokitu. Eta beharrak hor daude.

Londrestik iritsi, eta badakizu zer egin nuen aurreneko egunetan? Kale artean ibili, itsasargiraino joan, hondartzako txaboletara jo. Ez iezadazu esan zergatik, eman zuen pausoak mindu baninduen. Halako nahaste bat nuen, eta belduररaren arratoia berriz ere. Ikusi gabe topatu nahi nuen Edwin. Arean ez inon. Neguko haize gordin hura besterik ez oro garbitzen. Jo bata, jo bestea, eta urrats bakoitzarekin higatuz doazen sentipenak baino ez.

–22–

Itzalen pisua zein den, hori da kontua. Oraingoxea da, baina zuk ere eskubidea duzu Mateo Vallejori eman nion argazkia nondik agertu zen jakiteko, zure odola da azken batean.

Leongo kaputxinoen komentu aurrean Neptuno txiki bat dago arboladiak babestua, edo Poseidon da akaso, batek daki. Harrizko zutabe gainera igoa, edertasuna bestela erakusten zeneko sirena totolo bi alde bietan eta sardea hodei mamitan sartua duela, absurdotik duena magikotik du iturriak lorategiaren begi ninian. Zer egiten du itsasoetako jaunak olatuetatik, enbatetatik, galarrenetatik hain urrun, erbeste hozmin hartan? Noren eroaldiak jarria, zein marinelen, zein ontziren zain dago lehorrik elkorrenean? Jakizu, baina han da.

Luzaro egon nintzaion goraka ateratzen zen uraren pol-polari erreparatzen, eskultorearen zizelaren bideari, iritsiko ez zenaren esperoan, ea barruko zainen batek tira egiten zidan azken unean eta urrunarazi, ez itzultzeko egundo toki arrotz hartara. Alferrik. Inoiz gertatzen da, lan

gaitzak hartu, azken atera iritsi eta errematerik eman gabe utzi nahia, izuagatik, antsietateagatik, norberaren buruari min emateagatik. Horma haien artean Mateo Vallejori itzuli beharreko zerbait zegoen baina.

Urrats etsiz, azken aldiz eman begia erlojuari eta biderik luzeenetik zeharkatu nuen parkea, korapiloa urdail zuloan. Berokiaren lepokoak altxa nituen, pausoa bizkortu sudurreraino babestua haize min hartatik. Maite ditut parkeak neguan, usain mikatzen nahasketa itxura batean harmonikoa. Ia autorik gabeko errepidea gurutzatu eta ate zabalean barrena egin nuen. Nor nintzen azaldu nion ateko hermanoari, telefonoz egina nuela hitzordua.

– Zaude.

Gibel zuen ateaz bestalde gorde zen, berehala itzultzeko.

– Oraintxe.

Berokiaren goiko botoiak askatu nituen, zapia erantzi lepo bueltatik. San Frantzisko Asiskoaren irudia nuen hormatik begira, besoak zabal, zakurrak, behorrak, erbiak orpoz orpo zituela. Korridore argitsuetan landare ezin berdeagoak buztinezko, plastikozko, pintura poto erabilietan sartuak. Beste non edo nondik ezagutzen

nituen baldosa nabarrak, leihoetatik sartzen zen argi iragaziak maiztuak. Begien olgetan eman nuen egon beharreko aldia.

Hurreratua zelarik, Neptunoren iturriaz galdetu nion atezainari, baita asmatu ere nori. Hiriko zaharrena dela menturaz, XVIII. mende hondarrekoa, nola egona zen katedral plazan, baina han ez zuela eraikina bere ederrean ikusten uzten. Horregatik aldatu zuten, aurrena beste plaza batera eta, komentu aurrera gero, gerra ostean.

– Nerea Vallejo?

Buelta askorik gabe konpondu zidan agurunean eskua emateaz nerabilen zalantza. Tantaia zen gizona, beste garai bateko bizar luze xarekoa. Astiro ebakitzen zituen berbak, hauek hausteko beldurra balu legez. Abitu higatuaren atzetik abiatu nintzen. Etxea berriki konpondua zuten, ezagun zen hormetan, argietan, ateetan karrajoan barrena gindoazela. Oinen hotsak irrist egiten zuen gresezko zoru garbian, eta etetearren izan zela esango nuke, bidearen luzeaz galdetu zidan, bideondoaren alferraz gaztigatu:

– Ez duzu balioko ezer aurkituko.

Irribarre behartu batez erantzun nion, berokiko poltsiko barrenean kamera digital txikia laz-

tantzen nuen artean. Ez zirela asko nire ardura erakusten zutenak esan zidan. Erabat galdua zela familietan interesa halako batean sortetxetik irten eta inoren zerbitzuan bizitzeko alde egitea erabaki zuten haiekiko. Are gutxiago gazteak.

– Sartu mesedez.

Etenkariei eman ahala hasi zen argitzen artxibategia. Bibliotekatik erretiratuak ziruditen liburuak metal grisezko apalategian ez ezik, behegainean ere bazeuden, elkarren gainean ganorarik gabe pilatuak. Ez ziren, itxura batera, ekarri zahar. Formikazko mahai artetik gidatu ninduen giltza emandako armairu bateraino. Giderrari eragin zionean, Neptunoren iturriari begira nengoela espero nuena agertu zitzaidan begien aurrean, karpetak eta karpetak, urteka sailkatuak.

– 1963... hemen dago.

Zuk ez duzu jakingo baina fraide bat hiltzen delarik, gelan dituen gauza guztiak bahitzea izaten da lehenbiziko lana. Kutxetan batzen dira apalategietan zein lan mahaian gorderik dituen liburu, paper eta argazki oro. Badago gero nork erabaki zer den sutarako eta zer jasotzeko, horregatik da hermandade bat, horregatik jakinarazi zidan aurrez ez nuela ezer aurkituko, alferrik

egin nituela joan-etorriko zazpiehun kilometroak. Ulertzen duzu orain? Eta hala ere, joan beharra nuen. Aspalditik nion agindua Mateo Vallejori, eta sano berandu nenbilen.

Erraz agertu zen. Karpeta urdin higitu bat, gomak hautsita zituena, korapiloz konpondua. Mahai bat eskaini zidan, flexo bat hurreratu. Kablea ez zen entxufera heltzen.

– Esan nizun bezala, badakizu ezin duzula ezer atera; baina irakurri eta ikusi, behar beste.

Artega askatu nituen gomak. Paper zahar laruxka batzuk baino ez zeuden, sei edo zazpi eskutitz, eta heze orbanak zituen sobre orbaindu bat. Berak zabaldu zuen azala: bost argazki zeuden barnean. Neure aurrean kontatu zituen.

– Ez harrapatzera zatozela uste dudalako, baina bost daude. Hemen ez, baina gertatu izan delako diotsut fraideen borondate onaz aprobetxatu nahi izana.

Banan-banan pasatzeari ekin nion, gorputz osokoak ziren denak, etxe barruetan atereak. Eta orduan ikusi nuen. Berehala ohartu nintzen. Ordurako ezagutzen nituen Mateo Vallejoren familiakoak, denek zuten aurpegiera bera, sudur zabal haiek, begi luzexkak, kopia asko emana zen Tere etxeko albumetik aitite Mateori, eta

masail guriko emakume hura ez zen ordura arte inon ageri. Berak izan behar zuen Mateo Vallejoren ama.

Hermano handiari begiratu nion, ez lasai ere. Zeharo argitu gabeko leiho ondoan jarraitzen zuen, aldizkari politiko bat leitze plantan. Erretratuari buelta emanda espero ez nituen letrak aurkitu nituen: «Nire arreba Pilar hogeita zazpi urte bete zituen egunean» zekarren atzean, letra kiribilez. Haren ondoan, Leongo Hirugarrendar kaputxinoen etxeko zigilua, urdin lohiz.

Denbora behar izan nuen, behar izan nuenez. Kosta zitzaidan Klaudio Aizpururen gaita-asmoa harrapatzea. Fraide hura leiho ondoan, begirik kentzen ez zidala. Orduan ulertu nuen. Handiak zituen begiak bekain ilunen azpian. Kamera atera nuen, irribarrea handitzen zitzaiola iruditu zitzaidan. Ondo zekien argi ahul harekin salto egingo zidala flashak, zurikara agertuko zitzaizkidala urteetako bahikuntzatik askatu nahi nituen aurpegi haiek. Flashik gabe ateratzera, tripoderik sartzen ez zidan ikusi, dardarez aterako zen paperean geldirik zegoen guztia. «Oraintxe nator» esan zuen bat-batean, ordea. Eta huraxe nuela aukera pentsatu nuen.

Itzuli zenean, utzi ninduen bezala aurkitu ninduen, bost argazkien gainean bizkarra makur, kamerarekin etxera eraman ezin nuena osten.

– Saiatua bazara ba.

Kable luzeago bat zekarren flexorako, fotoa erreago atera zekidan. Eskertu nion borondatea argazkiak bere aurrean bildu eta gutun azalean sartzeke utzi nituen bitartean. Eseri eta paperak irakurtzen hasi nintzen. Aurrez buruan eragindakotik, ezer ez. Izen bat behar nuen, baina jaten hasia nintzen arrasto guztiak erre zizkidatela. Pentsatu behar nuen, izan behar nuen zuhurrago eta oldoztu ez zutela aitorpen gordinik onartuko edonoren begietara bere biluzian agertzen. Klaudio Aizpuruk inoiz idatzi bazuen halakorik, kedarrezko sits bihurturik ziren aspaldi, hauts beltz, ezer ez.

– Zer, zerbait bai?

– Asko –erantzun nion.

Ondotxo nekien ez zidala sinetsiko. Ezpainak zabaldu zituen, burlaizez ari zitzaizkidan bizar arteko hortzak.

Eskuz idatzitako oharretan anabasa zen nagusi, ezagunak ez nituen toki izenak agertzen ziren data batzuen ondoan –ibilien nondik norakoak seguruenik–, diru-mugimenduak, ezer esa-

ten ez zidaten izen ilun batzuk, gizonezkoenak denak. Tarteka, zerbaitek eragindako zirrararen bat edo beste, gaztelera hanpatu, jasanezin batean idatziak. Bigarren asmoren batez egindako mezuren bat ote zegoen aritu nintzen. Garbitua zuten dena, hori pentsatu nuen, behar zuen zerbait egon bestela: inizial batzuk, helbide bat, zer edo zer. Norberarentzat zerbait izan diren pertsonak ez dira haizea baino errazago desagertzen. Ez zitekeen zure amamaren arrastorik ez egotea begi aurrean nuen paper multzo hartan.

Tartean, esan dizudan bezala, baziren gutun batzuk ere. Etxekoak gehienak, lehen garaikoak batez ere, Mateo Vallejo jaio aurretikoak. Guztien erreferentzia hartu nuen, nork noiz idatzia eta gaia. Baita esaldi bakan batzuk ere, deigarriak zitzaizkidanak. Hasi eta amaitu bakarra kopiatu nuen, Medellinen jesuita zegoen anaiak igorri ziona. 1935eko ekainean zegoen datatua, eta Carlos Gardelen gorpua bedeinkatzetik zetorrela zioen, Las Playas aireportutik. Ahuspez topatu omen zuten, F 31 baten motorreko balbulek zapuztua eta zango biak gorputzetik erauziak. Damu zen oliorik emateko betarik ez izana. Jaka batetik zintzilik zeraman katea ikusi eta batera ohartu omen ziren bera zela, Birigarro Kriolloa.

«Lurrean infernurik bada, aireportu hura izan zen arratsalde hatsarre hartan» aitortzen zion anaiari. Bi hegazkinek, pilotuak elkarrekin lehian zebiltzala, batak bestea jo eta dena su, oihu eta galda bihurtu zen Medellin egun hartan.

Paperak bildu eta neure aurrean sartu zituen atzera ere argazkiak azalean.

– Bost –esan nuen ahots garbiz.

– Bost –errepikatu zuen.

Kanpoan arratsa bazihoan parkeko gaztainondoen artetik. Haizea gozotua zen apur bat. Espaloitik lorategian barneratu gabe, artxiboan eman nuen tartea berregin nuen neure artean. Ia bi ordu arrotz izan ziren, ez-leku batetik iragan txatalak ateratzen arin joan zirenak. Eta atoan dakizuna, ehun eta hogei urte bizita ere, egundo itzuliko ez zaren toki horietako batean izan nintzela. Oinez, pausoa geratu gabe, atzerantz begiratzen nuen tarteka. Ez zen gertatuko, baina ikusi egiten nuen, entzun egiten nuen neure izena, hermano handia atzetik. Eskua sartu nuen poltsikoan: han zegoen argazkia.

Kontuak atera nituen, lasai egin nahi nuen itzulikoa. Parkea atzean uztera nindoala, orduantxe ohartu nintzen, ezkiak ere bazeuden. Komenturantz begiratu nuen. Logeletakoak izan zi-

tezkeen leihoak identifikatu nahian aritu nintzen. Obrak eginak zituzten ordea, jakizu nola zegoen hau Klaudio Aizpuru hemen bizi izan zen garaian.

Iragana edertzea besterik ez nuen: Mateo Vallejoren aitak zeldatik ikusten zituen arbolak ezkiak ziren.

Kale artean sartu nintzenean moteldu nuen pausoa. Denda batzuk giltzatzen hasiak ziren. Jendea ikusten zen ostatuetan, lanetik irtenda itxuraz. Kosta zitzaidan mahaiak libre zituen bat aurkitzea. Zenbat gura hestebete zeuzkan barra gainean zintzilik. Kafea eskatu nuen, eta jateko zerbait. Beltzegia atera zidaten. Ia osorik utzi nuen. Gasolioa, ia betea neukan andela. Ez zegoen bidean zertan gelditu.

Etxera deitu eta ez itxaroteko itzarririk esan nion Sarari.

–23–

Beti dago pentsatzea zer gertatuko zen Mateo Vallejok ez balu arratsalde hartan motor-txikira igoarazi, ez balitz Edwin gure bizitzetan saburdinaren izpia haragi-mamitan bezala sartu. Etorkizunaren ardura osoa iraganari leporatzea badago, eta esan: «oraina arrotza zaio gabiltzan bideari». Determinismoa ia, antzinako egintza batek dena baldintzatzen duela sinetsi. Eta itsuan segi, pentsatuta bestelakoa zatekeela gu bion artekoa, zoriontsuagoak ginatekeela elkarrekin Mateo Vallejok ez balio oherik zabaldu etxean kanpotarrari. Skinnerren kezka horiek guztiak.

Zer gertatu zitzaigun pentsatzen hasi eta, direnik eta gauzarik sinpleenak datozkit. Esaterako, abandonatutako jendearen arteko elkarrenganako beharra. Itsaso larri bat, baga ikusezina eta mareak bata bestearen ondoan biltzen dituen apakinak neguko hondartza zaharrean: ostutako haurra izaten ikasi ez duen agurea; nabierak, administrazioak eta lankideek abandonatutako marinela; aitak bazter utzitako nerabe la-

gunbako bat. Ez ginen denok akaso sentipen berdintsuen bila ari, ez ziren bataren gabeziak beste guztionak?

Gau hartan horretan eman nuen Leonetik etxerakoa. Iraganak irentsitako kontu bat zirudien guztiak, benetan gertatu zitzaigula sinesteak lanak ematen zituena. Errepidea garbi zegoen, zerua oskarbi, eta trailerrak erraz aurreratzen dira orain autobia berriarekin. Artegatu egiten ninduen irratiko musika hutsak. Konpainia egingo zidan ahots baten bila aritu nintzen auto barruko termometroaren dantzari erreparatzen nion artean. Lerdokeriak lerdokerien ondotik. Gidariaren gaineko argia piztu eta ondoko aulki gainean neraman berokiko poltsikoan sartu nuen eskua. Han segitzen zuen argazkiak. Atera, eta bolante atzean jarri nuen, gasoilaren maila estaltzen.

Begiez ari zitzaidan irriz.

Orduan ohartu nintzen. Kartazalaren barnean zeuden bost argazkietatik hura zen inor bekozkoz ageri ez zen bakarra. Kalean aterea zen, hiri bat zirudien, lorategi zaindu bat eta urmaela izan daitekeen zerbait. Gertuagotik egin nion so bihurgunerik gabeko errepide luzean. Emakume hura ez zen zuen etxekoa, lepoa egitea bazego-

en galtzeko arriskurik gabe. «Arrotzaren irribarrea», horrelako zerbait idatziko nukeen koadernoarekin segitu izan banu. Masailak, sudur luzexka hura, baina batez ere ezpain mamitsu haiek. Ez Terek ez Mateo Vallejok ez zuk ez duzue musualde hori. Eta pentsatu nuen ez garela asko izango, ezinezkoa dela ia biloba batek birramona lehenago ezagutzea aitonak berak baino.

Termometroak utzia zion gora eta behera ibiltzeari. Lau azpitik. Argazkia aldameneko aulkian lagatzera nindoala jo zuen. Irratia mututu nuen. Tere zen zure telefonotik. Ospitalean zeundetela zioen, oso larri zegoela, esan zizuela egunetako kontua zela, orduetakoa hurrean, ez zegoela jakiterik.

– Etsipena emanda gaude behintzat.

Kontua atera nuen. Hiru bat orduko bidea artean. Hogei minutu lehenago helduko nintzen ospitalera zuzenean joz gero. Zabaldian, alor ilunen gainean argi-laino gorrikara zerua doi argitzen. Hiri bat. Nahi gabe barrurago sakatu nion azeleradoreari, handik lasterrera moteltzeko ostera ere. Musika ez zetorren nire barruekin bat. Kanpoan izotza ariko zuen, nire begiak ikusteko gai ez ziren lei anpulu ezin txikiagoak galsoroen

gainean pausatzen. Lu etorri zitzaidan gomutara, haiek bezalaxe partikula elemental bihurtuta itsaso gainean atseden hartzen.

Ehiztari begiz so geratu zitzaizkidan bi mutilen autoa aurreratu nuen ordainlekura iristerako. Poloniako kamioi zuri handi bat gero. Presa nuen, anbulantzia bat nintzen, argirik gabeko anbulantzia interkontinental bat trasplanterako bihotza, gibela, giltzurrinak neramatzana.

«Altxa langa hori!» agindu nion peajeko kaiolan zegoen emakumeari neure artean. Ama daramakiot aitonari, ez du bizi izan den artean ezagutu, eta bizialdia badoakio. Zuk zeure txanda amaitu eta etxera heltzerako, begiak gehiago ez zabaltzeko bilduko ditu, eta ohera sartu aurretik haurrei gosaria gertatzen diezunerako, joana izango da. Gogortuta gauzkan izotz honek urtzen ari dela emango dio azken agurra Mateo Vallejori. Lo seko egongo zara ospitaleko korridoreko zelaietan negarra lauhazkan libre ibili ostean bezatzen hasten garenerako. Eta zure haurrak eskolako patio ertzean aurkituko duten kakarraldo hilaren inguruan biltzen direnerako, hustuta egongo da Mateo Vallejok izan duen gela. Izarak aldatuta, armairuko gauzak bilarazita, zapatilak

jasoak. Horrela garbitzen dugu heriotza mundu zibilizatuan.

– Eta loreak?

Mahaitxoan zeuden arrosen galdez ari zen Mateo Vallejo, nork eraman zizkion. Lore haiena zen kolore bakarra argilun apal hartan.

– Utzi dizute sartzen?

– Urgentzietatik.

Gauerdia pasea zen, zu erdi lo zeunden besaulki luzatuan etzana. Tere haren ondoan zutik, begi beratuz eskutik helduta.

Ezagutu ninduen, ongi-etorri argia egin zidan, ez nuen hain gaizki ikusi. Errieta egin zidan:

– Segi egiozu ohera, bihar lanera joan beharko duzu, eta ikusten duzu, ondo zaindua nago.

Esku biak askatu arte itxaron nuen Tere ohe ondotik komun bazterrera eramateko. Erdi gordean erakutsi nion emakumearen argazkia.

– Zera izango da hau izeko Pilar!

Musu eman nion masail hotzean. Eskuetan izan zezan utzi nion, atzekoa irakurtzeko agindu. Mateo Vallejo ez zegoen lo baina.

– Zer zabiltzate marmarrean?

Tereri eskatu nion eman ziezaion, ezer esan gabe egon ginen tarte batez. Orduan ez zela

ezertaz konturatu esango nukeen, geuk esan arte ez zuela susmo txikienik izan argazkitik begira zuen emakumeaz. Orain, aldiz, ez genuela ama-semeen arteko isiltasuna nahikoa errespetatu pentsatzen dut, bizitza oso baten kontakizunak hark baino denbora luzeagoa behar zuela. Eta gu, ezin bazter egon, begi bistakoa zena azaltzen. Konturatu ez Mateo Vallejok mudatzen hasia zuela aurpegia.

Errazago ateratzen zaie malkoa gaixoei.

– Bihar goizean azkazal horiek moztu behar ditugu –agindu zion Terek.

Ahalegindu ginen, baina iratzarri egin zintugun ahots berotu haiekin. Ileak narras jaiki zinen. Arduratu egin zinen aita negar batean aurkituta.

– Nekatua zaude, hainbeste lan. Segi etxera lasai, ni geratuko naiz –esanda hartu zintuen Terek.

Amonaren argazkia erakutsi zizun gero, izenik gabeko emakume haren begiak eskurik esku. Nondik atera nuen galdetu zenidan. Txarra izan zara beti esandakoak gogoan gordetzen. Esana nizun joan egingo nintzela Leonera, egun batean aise egiten dela ostera, zor niola Mateo Vallejori ahalegin hura bederik, ezin nuela saiatu gabe amore eman.

– Baina nola?

Eman ez, ez didate egin, ostu egin dut argazkia, lotsagabe ostu ere. Ohoina duzu alaba, bankuekin hasiko naiz bihar. Banuen susmoa onean ez nuela ezer iritsiko, fakultate garaian ikaskide batzuei entzundakoa baizik ez nuen errepikatu, nola atera zituzten dokumentu batzuk liburutegitik. Argazki zahar batzuk eraman nituen poltsikoan, han-hemen biltzen joan nintzen familia erretratuak, zuri-beltzekoak denak, ertzak maiztuak. Une egokia baino ez zen behar sobrean zeudenetako bat hartu eta antzeko beste bat uzteko haren tokian. Eta nik izan nuen momentu hori.

Barre-hari batez eztitu zituen malkoak Mateo Vallejok.

– Bost –errepikatu zuen mendeku gozoz.

Mateo Vallejo ez zen gau hartan hil. Beste egun bat gehiago egin zuen, eta beste bat, eta beste bat.

– Ez genuen espero, baina suspertu egin da –esan zizun mediku nagusiak astelehen goiz hartan.

Zuk ez dakit, nik argazkiagatik izan zela pentsatu nuen. Mateo Vallejok gauza asko zeukan kontatzeko foto zahar hari.

Lanean nintzen abisua pasa zidatenean. Ahaztua ere banuen herio zuela izara artean zain. Eguraldia erabat aldatuta zegoen, hotzaldi gorriak hego haizeari utzia zion aldi. Autoa hartu eta ilaran zubi berritik jo nuen. Langileen manifestazio batek zarratua zuen bidea. Arabazozo zuriak ziruditen panfletoek airean. Ospitalera heldu nintzenerako, Mateo Vallejoren gorpua garbitu eta atontzera eramana zuten.

–24–

Galdu duzun guztia erakutsi nahi nizun, besterik ez. Iragana ez da ostera itzuliko eta, hamabost edo gehienez hogei urte barru, laster zara nik bizi izan nuen Mateo Vallejoren sasoiko. Galera nola neurtzen den, ez dakit. Esaten, ahaleginduko naiz. Hor nonbait bada orain beste ume batzuen haurtzaro zoriontsuari abaro ematen segitzen duen ezki bat baserri baten aurrean. Haurrak hazi egingo dira, luze gabe utziko diote zuhaitzaren gerizpean biltzeari. Ezkiak ez dakien hori da galdu duzun guztia.

Gaur pasa naiz Mateo Vallejoren etxe atzetik. Eraitsi dute. Hesitua zuten ingurua, hondeamakina bat zebilen hauts artean lanean. Ez dizut gezurrik esango, bihotza erori zait hormak behean ikusita. Zure logelako paretak bakarrik eusten zion. Etxekoneko Mariarena ere botata zegoen ordurako. Elkarri oihuka sentitu ditut langileak. Errumaniera zela esan dit Sarak.

Antonen ostatua zegoen tokian, estrata barrenean, jatetxea zabaldu dute lagun batzuek. Bertara joan gara bazkaritara. Gorakoan ostera

pasa garenean, dena zegoen lurrarekin berdinduta. «Aita izan da» esan nahi niokeen Edwini, «Mateo Vallejo hil orduko saldu zuen lurra, zuk ezagutu zenuen etxearekin batera. Neuk ikusi dut dena txintxor, teila hautsi eta habe-gapirio multzo egina. Pisu berriak egingo dituzte, itsasoari begirakoak».

Eta han zeuden eroriak, hormekin batera, haien artean bizi izan genituen une guztiak. Hondakinen artean ez da gure itzalik geratu. Ez da han zure utzikeriaren arrastorik ageri, ez nire ezinegonarenik. Ate bat ikusi dut, zauritu bat bezala adreilu artean, zutitzeko gauza ez zela. Hurreratu egin naiz, jakin nahi izan dut. Makinaren atzaparkada batek erauzia zion alde bat. Hori ere ez, zure kisketa ere hondeamakinaren goseak irentsi du. Eta etxeak gordetzen zuena geuk daramagu orain. Zu, denbora da gu gabe bizitzen ohitu zinela. Nik, zurekiko sentitzen nuen amorrua gozotzen eman dut ordutik honakoa. Mateo Vallejorenean eman nuen ikasturte amaigabe hura. Zurekin gehiago ezin eta Londresen gero, amarekin. Ezin moldatzearen gaitza. High Schoola. Fakultatea. Eskerrak amari, eskerrak Kattyri, eskerrak unibertsitatera joan

eta Sara ezagutu nuenari. Mateo Vallejori, berriz, berdintsu zaiolakoan nago dagoeneko.

– Skinnerren kutxa hartan ez zunan kasualitaterik izan. Aldiroko erabakiek higitzen gintuztenan, Sara –esan nion sareraino hurreratuta.

Hesitik bertatik egon gara begira. Sukaldea zegoen tokian, hautsezko gela bat, zeru zati batekin. Aitite Vallejoren eta Urbano Peñaren balkoiko elkarrizketek ere ez zuten zorurik. Bien arteko harremana, hautsak hondakinen gainean pausatzeko behar duena beharko du ezer ez izateko. Peña hil zela esan zidatenean, akordatu nintzen akordatu nintzenez bien arteko berriketaldiez. Ez dakit zer zuen batak bestearekin, baina askatzea lortu ez dudan korapiloa da oraindino ere, ondoegi ulertzen ez nuena.

Handik gutxira, gau aldrebes horietako batean, inoiz atera ez dizudan kontu bat heldu zitzaidan. Esan zidaten Urbano Peña eta aitite Mateo elkarrekin ibiliak zirela itsasoan gaztetan, zamaontzietan. Behin, Gineako golkoan karga hartuta, Cabo Verde parean zihoazela, gizon bat aurkitu omen zuten makinetan, ezkutatuta. Izena ezabatu zioten ontzi pneumatiko batean sartu, astebeterako jatekoa eman, bidoiak urez bete eta itsasoan uzteko agindu zieten enpresa-

tik. Ez zegoela kostatik urrun, asko atzeratuko zuela dena gizona lehorreratzeak. Txostena egin behar, polizia, burokrazia koipeztu beharra. Afrika eta afrikarrak. Iritsi ote zen kezkarekin ezin bizita utzi ei zion Mateo Vallejok itsasoari. Ordainaz hitz egin zidaten, horregatik hartu zuela Edwin etxean, gaizki eginaren harra zeramalako barruan. Horregatik zuela Peñak zintzurretik heldua.

– Hiltzailearen damua dun.

Eskuan neukan edalontzia hustu nion muturrean. Barre gangar batek jarraitu zidan taberna ateraino.

– Vallejotarra haiz ba!

Aitite Mateori lur eman eta batera, ondraetxean bertan sortu zen eztabaida, ea zer izen ezarri behar zitzaion hilarrian: jaiotza unean eman zioten hura ala hartu zuten gurasoengandik jaso zuena. Juan Aizpuru zuen grazia ala Mateo Vallejo, alegia, ehortzi berri genuen gizonak. Niri ikaragarria iruditzen zaidala esan nizuen gaia mahai gainean jartze hutsa. Halaxe segitzen dut pentsatzen. Mateo Vallejo da gure hasiera.

Orain dena joana da. Laster ezagutzen ez dugun jendeak beteko ditu lur gainetik lau me-

trora utzi ditugun gelak, lehen guk beste batzuenak bete izan genituen bezala. Beste ahots batzuk izango dira sukaldeko balkoian, Abrara begira, zamaontzien joan-etorriaz arituko direnak. Gure mintzoan, berriz, geu bizi garen artean soilik segituko dute gure aurrekoek. Gero, betirako isiltasun bat. Noizik behin izen bat agertuko da, gurata utzitako aulki zatar bat eskonbro artean bezala.

Badago, baina, itzalen ordain honetan oraindino kontatu ez dizudan gauza bat. Mateo Vallejo ospitalean egon zen egunetan, badakizu, neuk nuen hartua etxearen ardura. Sararekin pasatzeko ohitura nuen; neu bakarrik bestela, berak ezin bazuen. Tere ez dago horrelako lanetarako, adin handia du, denok lurperatuko bagaitu ere oraindino. Hutsa zen egin beharrekoa: handienei pasada bat eman, argia, butanoa eta ura begiratu, posta jaso.

Behin, Mateo Vallejo hil baino hamar bat egun lehenago izango zen, ez ohiko gutun bat agertu zen postontzian. Hegazti koloretsu bat zekarren zigiluan, eta eskuz idatzitako izen eta helbide bat. Ez duzu asmatuko, Mateo Vallejorentzat zen, baina Filipinetatik igorria.

Lizawinena zen, Edwinen alabarena. Aurrena Mateo Vallejoren motor-txikian eta metroan gero, argazkian erakutsi zidan haur harena. Hamasei urte ditu orain. Eta barkatzeko zioen, barkatzeko gure bizitzetan horrela sartzeagatik, hainbeste urteren ostean. Hasten zen esanez amari esker lortu duela helbidea, badakiela Edwin etxean eduki genuela hainbat astez orain hamabost urte. Ez dakielako nondik hasi idazten digula, ez dakiela nondik hasi aitaren bila. Kontua da gabon haietatik ez dutela Edwinen berririk. Hamabost urte luze, eta Lizawinek ezagutu egin nahi du. Ama atoan hartu omen zuen etsiak. Beste emakumeren batekin joan zela sartu zitzaion, Europan bizi dela, auskalo non. Aitak abandonatu egin zuela sinetsita hazi ei da bera ere. Azkenean, ekin diolako, amak helbide hau ematea lortu duela. Ea ezer dakigun, idazteko mesedez.

Bada hilabete gutuna hor dudala. Hasieran Mateo Vallejoren berri emanda hastea pentsatu nuen, nola esan ziguten medikuek ez zuela luzerako, egun batetik bestera espero genuela albistea. Gero, dena pasa arte itxarotea erabaki nuen, eta dena amaitu zela esatea, joan dela Edwinek hemen izan zuen lagun onena. Orain, ai-

tzakiarik gabe, zer esan ez dakidala nago. Eta hala doaz egunak, bata bestearen orpotik, kezka honekin, goizetik gauera askatu ezin dudan korapilo hau dudala sabelean.

Sarak ez du beste konturik, uneoro gogorarazten dit, hala diost, idatzi behar diodala, ezin dudala neska horrela utzi. Ea ez dudan Mateo Vallejo ikusten Lizawinen ezinegonean. Eta arrazoi du. Ez dut Edwinen itzalak pisu handiagorik hartzerik gura, ezin dut iraganak ostera ere katiga gaitzan laga. Lizawini erantzuten ez badiot, Tere ni naiz, iragana da orain bihurtzen. Nekea da, baina, uzten ez didana. Nekea ez den baina hala deitzen dudan neke astun hau lerro bakar bat idazten uzten ez didana.

Ohartzen? Alde egin zuenetik, ez didazu inoiz Edwinez galdetu. Nik neure artean banuen erantzuna, sinetsita nengoen egunen batean ez hau, beste gutun bat jasoko nuela. Eta beste bat gero, urtero bat gutxienez. Iritsi zela Cebura esaten zuena, itsasoan segitzen duela lanean, gasontzietara pasa zela, hitzarmen hobea lortu duelako. Sinetsi nahi nuen esaten zidala Lizawin gero eta handiagoa datorrela, hasi dela haur-eskolara, hasi dela eskolara, hasi dela lizeora, emakumea dela dagoeneko, ingelesez zoragarri

egiten duela. Eta beragandik aparte emanagatik denborarik gehiena, ederra dela alaba hazten ikustea, ondo doakiola. Letra goxoz betetako gutunak, ez oso luzeak, erantzuki bakar bat gabe, eskerrak emanez amaitzen beti eman genion aterpeagatik, eskaini genionagatik, barkatzeko kalte egin bazidan, barkatzeko, ez gaituela ahazteko, ezta zu ere, eta emateko goraintziak denoi.

Lizawinen gutunak joanak ziren itzalak ekarri ditu atzera. Elkarrengandik betirako banatu gaituzten une zaharrak itzuli dizkit, eta kezka berriak sortu. Oinez noala Edwinekin datorkit, presaka goazela neguko arratsalde batez hostorik gabeko arbolen artean. Halako batean, mozkor deiadar batzuk.

«Hi, Auschwitz! Uki ezak neska hori eta...».

Ezin duela izan diost Sarak. Hala izatera jakingo zela zerbait, ez dagoela heriotza bat hain luzaz gordetzerik. Iritzia eskatu diot, behar dut jakin zer darabilen berak. Eta dio Lizawinen amak izango duela arrazoi.

– Izutu egingo zitenan akaso, jipoiren bat asko jota mando horiek, baina garbitu ez.

Hor zehar ibiliko dela Edwin, beste familia bat osatuta non edo non.

Niri etorri egiten zait, ordea, Edwinen atzamarra ilunpetan gora.

– Benetan hori uste dun, Sara?

Besarkatu egiten nau.

– Edwinek hainbestetan aipatzen zidanan Lizawin...

Isilik erantzuten dit, berak bakarrik dakien bezala estutzen nau itzalek gero eta pisu handiagoa hartu nahi duten artean.

«Hago, hire aitaren laguna naun!».

Hor zatoz. Beste pieza bat erantsi diot. Eta beste bat ondoren. Itzali nahi zaitut, baina gero eta argiago ageri zara. Lasaitu egiten nau, ezin dugula utzi iraganak oraina hondatzen dio Sarak. Ezinezkoa dela hain zehatz gogoratzea, ezin dela gertatuaren puzzlea horrela berregin, hainbeste urte joan direnean gainera. Eta diost ez abandonua, ez Edwinen farol bidekoa, ez zela hainbesterakoa izango seguru asko, neure barruan hazi dudala dena urte hauetan guztietan. Erreparatzeko orainari, begiratzeko zein ondo ibili garen Londresen eta zer ondo gauden hemen orain, ilunpetatik ateratzen hasia den Bilbo honetan, ez hondoratzeko mesedez eraikia duguna, uzteko amorruak, arren.

Eta nik Sararen beso artean lokartu nahi dut, begiak bildu eta ez esnatu. Ez esnatu mila eta bat egunean. Sua egin, koadernoak erre, boligrafoak hautsi, kraionak haustu, eskuak moztu, aurrerantzean inoiz letra bat, lerro bat, gutun bakar bat idatzi beharrik ez izateko.